

Goienkaria

2009ko urriaren 23a > Egubakoitza > IX. urtea > 394. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Amerikarrek gurekiko zuten irudia asko aldatu zen 1959an Nevadan egindako jaiarekin"

Jon Ander Ramos
Ikerlaria > 09



G2a

Maite Lazkano eta Aitzol Ena dantzariak > 45

ESKORIATZA

Errotarria aurkitu dute, ezustean, Atxorrotzeko indusketetan > 11

ARRASATE

Herriko sarrera-irteerako bidegorri zatiaren proiektuak abian dira > 12

ANTZUOLA

Matz-Erreka eta Goizper lantegiak, 10 urte euskara planekin > 38

EKONOMIA > UDAL FINANTZAKETA FORU FONDOA

Aldunditik 4,8 milioi gehiago datoz ibarrera

IGOERA 2009ko kopurua baino %16,42 handiagoa da 2010eko fondoa

ZERGA GUTXI Zerga-ekarpena %23,9 jaitsi dela berretsi dute erakundeek > 05

JENDARTEA > NATURA

Putreek ardiei eraso egin diete

Goseak daude eta bizirik dauden ardiei egin diete eraso > 04


JENDARTEA > ELKARTASUNA

Palestinarek laguntzeko kanpaina

'Elkartasunez tour' Arrasatera iritsiko da astelehenean > 04

Ordu aldaketa

Neguko orduategia estreinatuko dugu zapatuan: goizeko hiruretan ordu biak izango dira. Ez ahaztu!



AZPIEGITURAK > AHT

Elkarlanaren batzar orokorra Arrasaten

AHT Gelditu! Elkarlana taldeak *Borroka antolatuz, indarrak bildu!* leloarekin egingo du batzarra. Hori bukatuta, 13:30ean, giza katea egingo dute Kulturaten. > 05



Jonathan Perez atleta Mojategin, hainbat pertika eskuan dituela

XABIER URTZELAI

ELKARRIZKETA > JONATHAN PEREZ PERTIKA JAUZILARIA

"Jasoko dudan saria urteotako lanaren errekonozimendua da"

> 42

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-06
Iritzia > 08
Elkarrizketa > 09
Gutunak > 10
Herriak > 11-41
Kirola > 42-43
Kultura > 46-47
Saikatuak > 48
Gazteak > 50
Telebista-Irratia > 51
Zerbitzuak > 52
Berri-zakua > 53
Eskelak > 53
Non-zer > 54-55

JENDARTEA > SAHARA

Sahararren egoeraz kezkatuta

Mendebaleko Saharan ikusi eta bizi izandako esperientziarekin kezkatuta eta sahararren eskubide urraketa salatzen asmoarekin itzuli dira Agurne Juldain eta Olaia Sagredo debagoiendarrak handik. > 09



Agurne Juldain eta Olaia Sagredo, Brahim Dahane sahararrekarekin.

AGURNE JULDAIN

'Debagoieneko erronkak' gehigarria

GOIENKARIArekin batera, bailarako azpiegituren eta gizarte-zerbitzuen gaineko orrialde bereziak barruan.



JENDARTEA > BIZIKIDETZA

Kaken arazoa, pertsonon bizikidetza arazoaren seinale

BETIKO KEXUA Debagoien osoan, jende asko gogaituta dago kalean agertzen diren txakur-kakekin, jabeek jasotzen ez dituztenak

ARDURAGABEKERIA Txakur-jabeek esaten dute jabe askok jasotzen dituztela kakak eta benetako arazoa pertsonon ardura falta dela

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Txakurren kakak oraindik arazo dira –eta arazo larria, gainera–; baina horren azpian arazo larriago bat dago: pertsonon arteko elkarbizitza arauak askotan ez direla errespetatzen, ez eta animalien duintasuna ere. Denon elkarbizitzarako arau egoki, gizatiar eta animalien hobe beharra ere aintzat dutenen premia dago, txakurren jabeen eta gainerako herritarren artean sortzen diren egoerek adierazten dutenaren arabera.

LORATEGIAN, 45 KAKA

Txakurren kakak kale erdian, lorategietan edo behar ez den edozein lekutan topatzeaz gogait eginda daude herritarrak. Debagoien osoan dago arazo hori, udaltzaingoek ondo dakiten moduan: herri guztietan baieztatzen digute hori horrela dela, eta txakur-jabe askok "jaramonik ez" dietela egiten txakurron gorotzak jaso eta zakarrontzira edo edukiontzira bota behar direla agintzen duten arauak –Eusko Jaurlaritzaren urriaren 29ko 6/1993 Animalien Babeserako Legeak dio hori; eta, hori garatzeko dauden udal ordenantzetan, hala erabaki duten udalerrietan, ere bai; hortaz, araudi faltagatik ez da–; eta, Arrasateko Udaleko zerbitzulari Amaia Aranak dioen moduan, "jendeak ondo asko daki ze arau dauden; ez dituzte betetzen gura ez dutelako".

Leku batzuetan, txakur-jabe horien errespetu falta bereziki larria da, eta bizilagunak publikoki kexatu dira: adibidez, Aretxabaletako Bedarreta auzoko lorategian, 50 m²-an, 45 gorotz kontatu zituzten behin, eta ez zen salbuespeneko kasu bat auzo hartan.

Egoera horiek ez dute konponbide samurrik; izan ere, isunak zehazten dituzte udal ordenantzek –Aretxabaletan, adibidez,

Udal arduradunek esaten dute txakur-jabe askok "jaramonik ez" dietela egiten arauari, eta arazoa ez dela informazio falta, borondate falta baizik

"Txakurraren kaka jasotzen ez duen adinako zikina da txistua, txiklea edo papera lurrera botatzen duena. Hori ez da zikinkeria, ala?", dio txakur-jabe batek

arau-hauste arinek, gorotzak ez jasotzea, adibidez, 43 eta 431 euro arteko isuna izan dezakete; Bergaran, 30 eta 300 euro artekoa–, baina txakur-jabea araua hausten harrapatu ezean, zaila da hori egin ahal izatea. Kasu horietan, udaltzainek atentzioa ematen diote, eta gorotza batarazi.

Beste aukera da edozein herritarrek jokaera horien inguruko salaketa ipintzea; baina hori inork gutxi egiten du: "Jendea etortzen da kexaka, oso haserre, baina jakin arren zein den txakur horren jabea, ez du salaketa ipini gura izaten, pertsona horren izen-abizenak eta norberarenak ematerik; aukera hori ematen diegunean, atzera botatzen dira", esaten du Aretxabaletako udaltzaiburu Martin Garaik.

Gorotzena da, duda barik, txakurren jabeek sarrien egiten duten arau-urratzea, baina ez bakararra: oraindik ikusten dira txakurrak solte, adibidez –arauak dio uhalarekin eta lotuta eraman behar direla bide publikoetan eta jendea dabilen leku guztietan, oro har–; eta zaunkek-eta sortutako zaraten gaineko kexak ere jasotzen dituzte noizbehinka udaltzainek.

Arauak oso garbiak dira: txakurrek egiten dituzten kalteak edo trabak jabearen erantzukizuna dira, eta jabeak arduratu behar du txakurron kakak jasotzeaz. Bailarako bi herritan, Arrasaten eta Bergaran, instalazio bereziak daude txakurrek euren beharrak egin ditzaten; eta Elgetako Udalak ere interesa azaldu du eta herrian ipintzea aztertzen dabil. Baina horiek ez egotea ez da aitzakia, Oñatiko udaltzaiburu Idoia Laspitak dioen moduan: "Jabe batzuek galdetzen digute zer egingo duten gorotz horrekin. Bada, oso sinplea dela erantzuten diegu: batu eta ondoko zakarrontzira edo edukiontzira bota; ez dauka aparteko zailtasunik".



Oihana Iturralde bergararra, Ender txakurrarekin.

HAU DIO LEGEAK

Txakurra babesten du Jaurlaritzaren legeak

> ETXE-ABEREA

Bizi izateko gizakiaren mende dagoen animalia da.

> JABEAREN ERANTZUKIZUNA

Higiene eta osasun aldetik zaindu beharko du: instalazio onak, jateko eta edatekoak, albaiariaren zaintza eta ariketa fisikoa egiteko aukera eman behar dizkio.

> JABEAREN DOKUMENTAZIOA

Gutziz debekatuta dago animaliarik edozein motako tratu txarra ematea, abandonatzea, jateko eta edateko nahikoa ez ematea edo higie eta osasun baldintzak betetzen ez dituzten lekuetan edukitzea; gorputz-atalen bat moztea; drogak edo botikak kontrol gabe ematea; edo animalia behar ez bezala sakrifikatzea.

> BESTE DEBEKU BATZUK

Ezingo da horretarako baimenik ez duten 14 urtetik beherakoei edo gutxituei animaliarik saldu, eman edo utzi. Baimenik ez duten merkatuetan ezingo dira saldu; Administrazioak kontrolatu barik, ezingo da laborategi edo klinikei animaliarik saldu; edo publizitate, sari edo ordain gisa animaliarik eman.

> GARRAIOA

Leku batetik bestera eraman behar badu, nahikoa espazio eta zaintza eman beharko dizkio.

> KALTEEN ERANTZULEA

Jabea da animaliak egiten dituen kalteen erantzule, eta behar diren neurriak hartu beharko ditu gorotzak kale eta leku publikoetan gera ez daitezten. Jabeak salaketa ipiniko du hura galdu egiten bada.

Pertsonondako zein animalia-erantzule gaitz eta infekzio-iturri izan daitezke gorotzak; eta, parke eta lorategien kasuan bereziki, umeek eta leku horiek zaintzen lan egiten dutenek dute arrisku handien.

Baina araua bete nahi ez eta erosotasunaren bidetik jo nahi duenak hala egin dezake samur asko, kalean agertzen diren gorotzek adierazten duten moduan.

"ZIKINAK PERTSONOK GARA"

Txakur-jabeek ere badaukate zer esan, jakina. Denak zaku berean sartzearen arriskua azpimarratzen dute. Hala, Bergarako Oihana Iturralde orain bost urte eta erdi ekarri zuen txakurra, eta haxe dio: "Nik beti jaso izan ditut txakurraren kakak, eta jabe guztiek horixe egin beharko luketela uste dut". Baina harantzago doa bere erreibindikazioa: "Betiko kexa da txakurren kakena; baina arazoa eta errua ez dira animalia, pertsona baizik, ez garelako arduradun egiten daukagunaz". Eta jarraitzen du: "Txakurraren kaka jasotzen ez duen adinako zikina da txistua, txiklea edo papera lurrera botatzen duena. Nire txakurrak ez du oinetakorik, zergatik zapaldu behar du inoren txistukada? Hori ez da, bada, zikinkeria?" Iturralderen iritziz, "jendea hezi" egin behar da, "norberak dituen arduren kontzientzia har dezan", eta "horrela ez lirateke kalean kakak egongo, ez eta egun osoan jabeek ateratzen ez dituzten txakurrak, ehiza denboraldia bukatzen denean jabeek akabatzen dituztenak, abandonatuak..."

Arrasaten lehendik zeuden txakurrendako komunak edo guneak, eta Bergaran orain ipini dituzte. Oihana Iturralde haxe dio: "Nik uste dut ekimen ona dela, betiere desinfekzio eta higie neurri zorrotzak betetzen badira; baina garrantzitsua



Ana Landa arrasatearra eta Kodi txakurra.

ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA

DATUA

30

EUROTIK GORAKO ISUNA

Bergarako Udal Ordenantzak 30,05 eta 300,5 euro arteko isunak zehazten ditu txakurren jabeek araua arin urratzen badute.

2

TXAKUR HILERO

Ibarreko herri bakoitzean, hilero, batez beste, abandonatutako edo galdutako bi txakur jasotzen ditu udaltzaingoak; hala ere, Oñatin, aurten, bederlatzi topatu dituzte.

ESANAK

"Gorotza batu eta ondoko zakarrontzira edo edukiontzira bota; ez dauka aparteko zailtasunik"

Idoia Laspita > Udaltzaina

"Oso zaila da jabea araua apurtzen harrapatzea; eta jendea kexaka dator, baina ez du salatzen"

Andoni Azkarate > Udaltzaina

"Duintasunez tratatu behar ditugu: kakak jaso, paseatzera eraman eta elkarbizitza bermatu"

Oihana Iturralde > Txakur-jabea

"Txakurrendako guneak gutxi dira, txikiak, eta ez daude behar bezala txakurra gustura ibil dadin"

Ana Landa > Txakur-jabea

Txakur Txokoez kanpaina egingo du Udalak

Hilabete inguru daroate zabalik Bergarako Txakur Txokoak direlakoak. Sei daude -Artzamendin, Madalena plazan, bidegorrian, Boni Laskurainen, San Lorentzon eta Bolun-, eta beste hiru egingo dituzte -Labegaraletan, Martokon eta Ortuibarren-. Bada, horiek daudela eta zelan erabili behar diren gogorarazteko, eskuorri batzuk banatuko ditu Udalak txakurren jabeen artean. Plano baten, Txakur Txokoak non dauden adierazten da. Bestalde, azaltzen da txakurren kakek gaitzak eragin ditzaketela eta lorategiak kalte ditzaketela; eta indarrean dagoen udal araudiko puntu batzuk ere batzen ditu orriak.



Bidegorriko Txakur Txokoa.

LEIRE KORTABARRIA

goa deritzot txakurren jabeok kontzientziaztea eta gure txakur-rrak duintasunez tratatzea: euren kakak jaso, euren paseorako denbora eman, eta beste herritarrenganako eta txakurrenganako elkarbizitza bermatzea".

Txakurrendako txoko horiek ezagutzen ditu Ana Landak, bere herrian, Arrasaten, urte askoan daudelako. Landak ere ez ditu erabiltzen, ez dituelako egoki ikusten: "Alde batetik, ez daude behar adina: haraino ailegatu orduko, txakurrak bidean egin ditu beharrak. Bestetik, txikiak dira, eta ez daude behar bezala txakurra gustura ibil dadin eta bere beharrak egiteko eroso egon dadin. Gainera, jendeak hesiak apurtu ditu eta txakurrak ihes egin dezake". Horrez gain, "guneotan poltsak ipintzen dituzte, baina sekula ez daude: jendeak hartu egiten ditu, eta batzuetan, inguruan botata agertzen dira". Txakurrearekin irteten duenean, berak, beste jabe askok bezala, aldean eramaten ditu beti poltsa batzuk. Gune horiei ikusten dien beste akats bat da ez daudela estalita, eguraldi txarra egiten duenerako.

Ana Landaren esanetan, bestalde, "herrian ez dute non jolastu, non antxintxika egin; txaku-

rrak askatzea debekatuta dago leku guztietan. Urkulura eraman nuen aurreko baten, askatzeko asmoz, baina han ere ezin da".

Zikinkeriaz galdetuta, Ana Landaren iritzia Oihana Iturraldek esandakoaren oso antzekoa da: "Pertsonok zikintzen dugu herria, ez txakurrek".

ABANDONATUTAKO TXAKURRAK

Jabe batzuek abandonatu egiten dutelako txakurra, edo txakur-rrak ihes egin edo galdu egin delako, kalean agertzen dira batzuetan. Udaltzainek hura jaso eta, derrigorrezkoa den identifikazio-txip elektronikoa bidez, Jaurlaritzaren txakur-jabe erroldan bilatzen dute jabea. Hura agertu ezean, abisua ematen diote Bergarako Elurra txakurtegi-ko Axen Garitanori, eta hark batzen ditu. Jabeak obligazioa dauka txakurra desagertu dela salatzeke, eta haren bila joateko. Aipatzekoa da Elgetan agertzen direla kanpoko asko; eta horietako asko nahita utzitakoak direla: Aste Santuan eta udan agertzen dira gehien, inguruko herrietakoek mendian utzita. Bergaran, adibidez, 30 bat batzen dituzte, eta Arrasaten, azken zortzi urteotan, batez beste, 20.

ION
leihoak



LEIHOEN RENOVE PLANA
AURREZTU leihoak aldatzerakoan.
EEE-n DIRU-LAGUNTZAZ
aprobetxa zaitetz.



Telleria 4 - 11. Pab • Aramaioko bidea • Tel.: 943 79 11 35 • Arrasate
Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com

NATURA > ANIMALIAK

Bizirik dauden ardiei eraso egin diete putreek Urbia inguruan

Iaz ere antzerako erasoak gertatu ziren; putreak bizirik dauden animaliei eraso egiten hasi dira

Oñatiko Natur Eskolako ustez inoiz baino putre gehiago daude; eta gainera, gosez

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Putreek bizirik dauden animaliei egindako erasoak ugaritu egin dira azkenaldian. Iaz behin baino gehiagotan gertatu ziren horrelako erasoak gure mendietan; eta aurten, dagoeneko ikusi dituzte antzerakoak Urbia inguruan.

Mikel Altube Urbiako fondako arduradunak azaldu digu izan dutela eraso banaka batzuen berri: "Orain gutxira arte, hilda zeuden animaliei eraso egiten zieten; baina azkenaldian bizirik daudenei egiten diete eraso". Eraso horien arrazoa da putreak goseak daudela. Hori da Mikel Altubek esan diguna, eta baita Oñatiko Natur Eskolako Jon Betanzosok argitu diguna: "Inoiz

baino putre gehiago daude, eta gainera, gosez daude".

Eraso horien aurrean artzaien zer egin dezaketen galdetuta, Altubek esan digu ardiak zaindu besterik ezin dutela egin. "Goiz partea izaten da une arriskutsuena. Ardiren bat ezin jaikita gera-

tu bada, putreek bost minutuan eraso egiten diote".

JANTOKIAK DEBEKATUTA

Behi eroen gaitzari aurre egiteko dekretu bat atera zuten 2002an; hildako animaliak mendian uztea galarazten zuen dekretua, hain zuzen. Dekretu horrek elikatze bide funtsezko bat itxi zien sarraskijaleei. Hori da animalia horiek gose egotearen arrazoietako bat.

Bestalde, ugaritu egin dira putreak azkenaldian. Animalia horiek babesteko hartu diren erabakien ondorioz izan da uga-

ritze hori. Putreen populazioak gora egin du. Gurean, putre gehienak Oñatiko Orkatzategiko kolonian batzen dira. Natur Eskolakoek azaldu digute gutxi gorabehera 65 putre bizi izango direla Orkatzategin; baina Aloña inguruan ere badaude gehiago.

200 PUTRE INGURU

"Putre asko ikusten dira inguruan; hemengoz gain, haizearen arabera Txindokitik ere etortzen dira", azaldu digu Altubek. Hala, eraso baten ondoren 200 putre inguru ikustera iritsi direla azaldu digu. Jon Betanzos ere iritzi berekoa da: "Gehienak Orkatzategikoak diren arren, ingurutik ere etortzen dira putreak; besteak beste, Nafarroatik. Hegaz kilometro asko egiteko gauza dira putreak, gutxi gorabehera 100 kilometro inguru".

Hemengo putrea edo sai arrea Europako eta Afrikako putre bera da. 2,5 metro inguruko hegoluzera dute, eta bederatzi kilo har dezakete. Putre helduak 15 urtera arte bizi daitezke.

ESANAK

"Ardiren bat ezin jaikita geratzen bada, bost minutuan eraso egiten diote putreek"

Mikel Altube > Urbiako fondakoa

"Babestu egin dituztelako inoiz baino putre gehiago daude; eta gainera, gosez daude"

Jon Betanzos > Natur Eskolako



GOIENKARIA

Appaldeko kideek 10. urteurrena ospatu dute

Debagoieneko pentsiodunen eta aurre-erretiratuen elkarteak dagoeneko 10 urte bete ditu. Hori ospatzeko, joan den egubakoitzean bazkaria egin zuten Oñatin. 36 lagun batu ziren mahaiaren inguruan urtemuga ospatzeko. Oñatiko kideez gain, Arrasateko

eta Bergarakoak izan ziren giro alaian ospatutako bazkarian.

Urte hauetako balorazio positiboa egiten dute Appaldeko kideek. Lortu dituzte hobekuntzak, baina argi dute aurrera begira gogor lan egin behar dutela.

ELKARTASUNA > JARDUNALDI INTERNAZIONALISTAK

Palestinaren aldeko kanpaina astelehenean iritsiko da Arrasatera

Geldialdi luzea egingo du Askapenaren 'Elkartasunez tour' birak gurean

A.E. > ARRASATE

Askapenak antolatutako Palestinaren aldeko *Elkartasunez tour* bira astelehenean iritsiko da gure

ibarrera; hain zuzen, Arrasatera. Astelehenean egubakoitzera arteko egitaraua gertatu dute Askapeneko kideek. Ekimenak

herri palestinarri elkartasuna adierazi eta Israelgo estatuen okupazioa salatzea du helburu. Birak Euskal Herriko hainbat txoko zeharkatuko ditu.

ZINEMA GAZTETXEAN

Astelehenean bertan, 18:30ean *Children of fire* dokumentala eskainiko dute Arrasateko gaztetxean. Mai Masri zinemagilearen lana Nablusera itzuli zeneko irudiz osatuta dago. Martitzenean, *Domicilio privado* filma eskainiko dute. Filmean kontatzen den istorioan zuzendaria bera lekuko izan zen: Israelgo arma-

dak etxe palestinar bat okupatu eta base militarra jarri zueneko.

Eguaztenean *Jenin, Jenin* lana emango dute; eta eguenean mahai ingurua izango da *Palestina eta elkartasunez manifestua* gaia ardatz hartuta. Hitzordu guztiak 18:30ean izango dira.

KONTZERTUA

Egubakoitzean izango da kontzertua, 22:00etan, gaztetxean. Mikel Urdangarin, Petti eta Bazil Zayed palestinarrek emango dute kontzertua. Gainera, aste guttian zehar *Elkartasunez* manifestua sinatzeko aukera egongo da.

> POLITIKA

Nekazaritzaren inguruko markoa eskatu du Aralarrek

Gipuzkoako nekazaritzaren eta abeltzaintzaren etorkizunaren inguruko ponentzia abian jartzeko proposatuko du Aralarrek Batzar Nagusietan. Helburua izan beharko luke nekazaritzaren eta abeltzaintzaren etorkizuna bermatzeko markoa definitzea. Izan ere, krisi egoerak gogor kolpatu du arloa: lehendik zekartzan gabezia larri gehitu behar zaie nekazariak ekointzitateko gaitan eskaera txikitzea eta prezioak jaistea.

> OSASUNA

Odol-emailek domekan egingo dute diploma banaketa

Gipuzkoako odol-emaileen elkarteak domekan egingo du urteroko intsignia eta diploma banaketa. Elgetan izango da, Espaloia Kafe Antzokian. Debagoieneko eta Debabarreneko ordezkariak banatuko zaizkie oroigarriak.

12:00etan Elgetako parrokiaren entzungo dute meza; eta bazkaria Espaloia Kafe Antzokian egingo dute, 14:30ean hasita. Ondoren izango da intsignia banaketa.

> TURISMOA

Turismo erlijioso eta kulturalaz jardungo dute Bergaran

Turismo erlijioso eta kulturala sustatzeko asmoz *Ignaziotar lurraldea* deituriko ondare eta turismo jardunaldi eta tailerrak antolatu dituzte. Bergaran eta Azpeitian izango dira jardunaldiak, azaroaren 11n eta 12an. Hala, Gipuzkoako barne turismoa pertsonaia baten eskutik ezagutzera eman nahi da; hain zuzen, Loiolako San Ignazioaren bidez. Haurtzaro eta gaztaroan igaro zituen lekuak erakutsiko dituzte.

> EKONOMIA

Gerente berria izango du Debagoieneko Industrialdeak

Debagoieneko Industrialdeak gerente berria izango du azarotik aurrera. Andoingo PSE-EEko zinegotzi Juan Fernando Narciso izango da Debagoieneko Industrialdeko gerente berria. Azaroaren 2an hartuko dio erreleboa Narcisok Koldo Pereirari. Pereira Bergarako Kultura zinegotzia izan zen Debagoieneko Industrialdeko gerente kargua hartu aurretik. Narciso, ostera, Andoingo zinegotzia eta bokala da.

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

Gasolindegi inguruan lan handiagoa egingo dute, obrak arintzeko

Astelehena ezker, Bergarako Amillagako biribilgune lanetan, zirkulazioa desbideratuta dago eta hilabete inguru iraungo du desbideraketak

L.K. > BERGARA

Bergaran egiten dabilzan Amillagako biribilgune lanak aurreratuzko, hilabetean iraungo duten zirkulazio desbideraketa batzuk ezarri zituzten joan den astelehenean.

Hala, Bergaratik Elgetara sartzeko, eginda dagoen biribilgunearen zatitiki biratu behar da astelehena ezker. Horrez gain, Elgetatik Bergarara doan zirkulazioa Deba ibaia gurutzatu aurretik bideratuta dago orain, lanen gunean eta alboko gasolindegian sartu gabe. Zirkulazio aldaketa horiek astelehenean, 12:00etan ezarri zituzten, eta helburua da biribilgunea egiteko lanak aurreratzea. Urte amaierarako biribila gertu egotea aurreikuspen du Bide Azpiegituren Sailak. Orain egin dituzten desbideraketekin,

sail horren helburua da bide segurtasuna handitzea eta zirkulazioa arintzea.

POLIGONOEN SARRERAK, BERDIN

Aldaketa horiek ez diete eragiten Aitziturri eta Amillaga-iparraldeko poligonoen sarrerari, hots, orain arte bezala jarraitzen du. Beste aldetik, poligonootako sarrera GI-627 bidegurutzearen (Bergarako saihesbidearen) bitartez egiten da, Amillaga iparraldeko poligonoaren amaieratik. Modu horretara, gasolindegiak etengabe du sarrera eta irteera biribilgune berrirantz, Elgetatik zuzeneko sarrera salbu, lehen aipatutako desbideratzea dela-eta. Horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak egunotan hasi duen lanen fasean, gasolindegiko gunean lanen errit-

moa handitu egingo da, ahalik eta traba gutxien egiteko. Fase horretako lanek hilabete iraungo dutela kalkulatu da, baina horretarako uraren hornidura berriz jarri beharko da, eta horren erabakia Bergarako Udalak du.

URTE BUKAERARAKO, IA GERTU

Lanen abiaduraren arabera, urte amaierarako biribilgunearen eta bide-adarren behin betiko galtzadak zirkulazioak erabiltzeko moduan egongo dira, nahiz eta azken ukituak falta (behin betiko pintura eta seinaleztapena, errodadura geruza, eta abar); horiek guztiak segidan egingo dituzte.

Guillermo Ibarгойen SA enpresak dihardu lanok egiten, eta 1,1 milioi euroko aurrekontua dute.



Gasolindegiak etengabeko sarrera eta irteera du orain.

LEIRE KORTABARRIA



Obren ikuspegi orokor bat, Bergaratik joanda.

LEIRE KORTABARRIA

EKONOMIA > UDAL FINANTZAKETA FORU FONDOA

Udalek 4,8 milioi gehiago jasoko dute Aldunditik

Udalak finantzatzeko fondoaren 2010erako aurreikuspena onartu du Euskal Finantza Publikoen Kontseiluak

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko udalek aurtun baino 4.816.587 euro gehiago jasoko dute 2010ean Udala Finantzaketa Foru Fondotik. 2009ko UFFF Debagoieneko itxiko da 29.331.034 euroekin, eta 2010eko aurreikuspena 34.147.621 eurokoa da; %16,42ko igoera, hortaz. Aurrekontuok urriaren 15eko batzarrean onartu zituen Euskal Finantza Publikoen Kontseiluak. Gipuzkoa osorako, 394,9 milioi euro aurreikuspen dira, 57,1 milioi (+%16,9) igoera.

ZERGA-BILKETA, MAILA BAXUAN

Aurreikuspen ona da, hortaz, bailarako udalendako, krisiaren eraginez zerga-bilketa gura baino txarragoa den honetan. Hala, 2009ko itxiera aurreikus-

penean, 2009ko ekarpena %23,9 jaitsi dela berretsi zen. Azken hilabetean, zertxobait hobetu da zerga-bilketa, baina oraindik txikiak izaten jarraitzen du: hala, irailaren 30era arte, zerga-bilketa likidoa %22,8 gutxitu da aurreko urtearekin alderatuta; abuztura arte, %23,1ekoa zen jaitsiera. %22,8ko murrizketa horrek bi osagai ditu: zerga-batze gordina %14,1 gutxitu izana eta itzulketak %13,9 handitu izana.

2010erako aurrekontua

Antzuola	1.169.278 €
Aretxabaleta	3.672.658 €
Arrasate	12.089.596 €
Bergara	8.199.654 €
Elgeta	602.341 €
Eskoriatza	2.240.702 €
Leintz Gatzaga	215.501 €
Oñati	5.957.891 €
GUZTIRA	34.147.621 €

ITURRIA: GIPUZKOAKO OGASUNA

PRESTAKUNTZA > GAI PUBLIKOAK

Jendarte parte-hartzearen gaineko ikastaroa astelehenean hasiko da Bergaran

Izenematea doan da, eta Baketik-ekin harremanetan jarri behar da horretarako

L.K. > OÑATI

Astelehenean hasiko da Foru Aldundiak antolatutako jendarte parte-hartzearen gaineko prestakuntza-ikastaroaren bigarren ekitaldia. Eskualdekako bost ikastaroetako bat astelehenean, martitzenean eta eguaztenean emango dute, 19:00-21:00, Berga-

rako kultura etxean. Laugarren jardunaldia eta amaiera-ekitaldia azaroaren 7an izango dira, Aldundiaren Donostiako egoitzan. Jardunaldiok Euskal Herriko Unibertsitateko Parte Hartuz Ikerketa Taldearen eta Baketik Fundazioaren laguntzarekin antolatutakoak dira.

Ikastaroa doan da, eta izena emateko, nahikoa da Baketik-ekin harremanetan jartzea, 943 25 10 05 telefonoan, partehartu@baketik.org helbide elektronikoa edo www.baketik.org webgunean.

HERRITARRAK ETA ADITUAK

Jendarte-erakundeetan parte hartzen edo gai publikoetan interesa duten herritarrei zuzenduta dago ikastaroa; baita udal teknikariei eta udal ekintzen sarean parte hartzen dutenei ere. Helburua da jendarte parte-hartzearen esanahiari eta gaitasunei buruzko oinarrizko ezagutza eskaintzen jarraitzea eta, aldi berean, iazko ikastaroetan parte hartu zutenei prestakuntza hori ematen jarraitzea.

Ikastarook lau modulutan dira, bat egun bakoitzeko.

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

AHT Gelditu! Elkarlanak bihar Arrasaten egingo duen batzar orokorrera deitzen du

L.K. > ARRASATE

AHT Gelditu! Elkarlana Abiadura Handiko Trenaren aurkako taldeko Euskal Herri osoko ordezkariak Arrasaten batuko dira bihar, zapatua, han egingo dute eta ezohiko I. batzar orokorra, *Borroka antolatuz, indarrak bil-*

du! leloarekin, Kulturaten, 09:30ean. Batzarra bukatuta, 13:30ean, giza katea egingo dute Kulturategi, eta 14:00etan, frontoian batuko dira bazkaritarako.

Batzarrean, AHTren aurkako mugimenduak azken urteotan egindako ibilbideaz hausnartu-

ko dute (proiektuaren egoera, oposizioaren egoera, mobilizazioak, alde onak eta txarrak...).

AURKA DAUDEN GUZTIAK

Elkarlanaren esanetan, batzar horretan "parte hartzea oso garrantzitsua" da, "makroazpiegitura geldiarazteko momentu berezia" delako oraingoa, eta "proiektuaren aurkako mugimendua indartu eta indarrak metatzeko unean" daudela uste dutelako. Horregatik, gizarte-eragileei, sindikatuei, alderdi politikoei eta AHTren aurka dauden guztiei dei egiten diete biharko batzarrean.

Jon Ander Ramos > Ikerlaria

"Amerikarrek gurekiko zuten irudia asko aldatu zen 1959an Nevadan egindako jaiarekin"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Jon Ander Ramos (Arrasate, 1978) ikerlaria da. Eguaztenean hitzaldia egin zuen *Euskal Herria mugaz gaindi* nazioarteko mintegian. 1959. urtean egindako *Thunder in the sun* pelikula aztertu zuen. AEBetara joan ziren euskaldunei buruz amerikarrek zuten ikuspegiak jardun zuen.

Zergatik aukeratu duzue *Thunder in the sun* pelikula?

1959. urtean Russel Rousek zuzendutako pelikulak garai hartan AEBetara joan ziren euskaldunei buruzko ikuspegi okerra ematen duelako. Pelikula izan zen euskaldunei buruz izan zuten lehen erreferentzia.

Pelikularen sarreran diote euskaldunak heldu zirela AEBetara "milaka urteko ohitura xelebreekin".

Bai, hala da. *Thunder in the sun* pelikulan ikus daitezke euskaldunon ezaugarrietako batzuk; besteak beste, txapela, irrintziak eta zesta-punta. Baina zuzendariak ezaugarri horiei ematen dien zentzua ez da egokia.

Pelikularen arabera, euskaldunok irrintziak erabiltzen genituen gure artean komunikatzeko. Euren ustez, irrintzien bidez egiten genuen berba. Bestalde, zesta-puntan erabiltzen den zesta arma moduan erabiltzen dute pelikulan indioen kontrako gerran. Horregatik guztiagatik, Interneteko foroetan irakur daitezke zuzendariak egindako lanaren gaineko kritikak. Euskaldunon gaineko dokumentazioa batu zuen filmatzen hasi aurretik, baina pelikula akatsez beteta dago, eta horiek guztiak erakutsi genituen eguaztenean.



Jon Ander Ramos ikerlari arrasatearra.

OLATZ GARRO

"Pelikularen arabera, irrintzia komunikatzeko erabiltzen genuen"

"40.000 pertsona batuko dituzte 2010eko uztailan Boisen"

Filma ikusita, euskaldunak pertsona arraroak ginela usteko zuten amerikarrek?

Bai. Dena den, egoera asko aldatu zen 1959an, Nevadan lehen euskal jaia egin zutenetik. Antolatzaileek ahalegin handia egin zuten euskaldunon benetako ohiturei indarra emateko. Orduetik hona asko aldatu da egoera.

Euskal jaiak eta Euskal Etxeak inportanteak izan dira?

Oso inportanteak, batez ere azken 20 urteotan egin duten lanagatik. Asteon jakin dut 2010. urteko uztailan jaialdia egingo dutela Boisen. Euskal kulturen gaineko festa izango da, eta antolatzaileek 40.000 lagun batu nahi dituzte.

Internetek ere asko lagundu du euskaldunon irudia aldatzeko. www.euskosarea.org eta www.euskalkultura.com informazioa jaso eta emateko webguneetako batzuk dira.

Gaur egun euskaldunen gaineko pelikula egin gura duenak badu nahiko informazio lan txukuna egiteko.

Euskal diasporaren gaiak interesea pizten du?

Asteon egiten dihardugun mintegian erantzun nahiko ona jaso dugu. Antolatzaileok pozik gaude.

etxeke leihotik



Iban Arantzabal > 'iarantzabal@goiena.com'

Kanpotik zer esango duten zain egon barik

Sortzaileak dira ezereen aurretik. Hitzaren artisauek osatzen dute gremioa. Miresgarria askotan, eredia bestelako hainbat triburendako. Kooperatibismoak aztertu beharreko talde baten moduan ere ikusten dut, autoeraturako taldea, dinamikoa, eztabaida sakonetatik abiatu eta nork bere burua antolatzen dakiena kanpotik zerk eragingo zain gelditu barik. Kultura proiektu sendo bat da gaur, hizkuntzari oso lotua, transmisioari, identitateari, lurraldetasunari...

Gura lukete idazle euskaldunek horrelako elkarte sendo, egituratu eta eraginkor bat; gura lukete zinegileek beraien gorabeherak babestu eta landuko lukeen ofizio-elkarte bat; gura lukete euskal kantariak beraien eskubideak babestu eta kantarien beharrak asetzen lagunduko lukeen talde autoeraturatu.

Bertsolariek badute, eta badira. Horregatik lortzen dute frontoiak betetzea (azkena Zarauzkoa) eta lortuko dute milaka eta milaka lagunek BEC betetzea. Lortzen dute ehunka saio egitea plazarik plaza, elizpeetan, auzoetan, jatetxetan, antzokietan, balkoitik balkoira.... Urte guztikoa da jarduna, jardun profesionala.

Bertsolari finala da gaur-gaurkoz euskaldun gehien batzen dituen ekitaldia eta horregatik ere bada mirestekoa; hala ere, egunerokoan da eredu bertsozale elkarte.

> Elkar babestu ere egiten dute bertsolariek. Gutxi entzungo dituzu publikoki bata besteagatik gaizki esaka. Egoten dira motiboak, zelan ez, eta pribatuan entzun ere entzun ditugu demasak, baina indibidualismoen gainetik talde sendo bat da bertsozaleena.

> Bertsolari, gai-jartzai-egiten dute bertsolariek. Epaimahaiko, bertsozale... Komunitatean jokatzetik datorkie indarra. Patxikontrekin ez legoke bertsolaria oholtzako mikro irekian. Indibidualismoak ez du lekurik sisteman. Ez, behintzat, arrakasta kolektiboa bada helburu.

JENDARTEA > ELKARTRUKEA

Hizkuntza gutxituen ordezkariak Debagoiengan

III. truke programan parte hartzen dihardute; azaroaren 13ra arte egongo dira

M.B. > ARRASATE

Huizei fakultateak eta Garabide elkarteak Oñatiko Udalaren laguntzarekin, herri eta hizkuntzen esperientzien III. truke programa egiten dihardute Debagoiengan. Besteak beste, Guatemalako, Ekuadorko, Txileko eta Boliviako hizkuntza gutxituen 11 ordezkari daude gurean aza-

roren 13ra arte. Guztiak ere, erakunde indigenetako liderrak, hezkuntza arduradunak eta hedabideetako ordezkariak dira.

ASKOTARIKO BISITAK

Truke programaren helburua da hizkuntzaren errekuperazio-erako egon diren esperientziak ezagutu, eta euren errealitatearekin alderatzea. Horretarako, alor askotariko elkarteak eta erakundeak bisitatuko dituzte.

Dena den, jardunaldiak ibarrean egingo dituzte: mahai inguruak Bergaran eta Arrasaten eta azken jaia Eskoriatzan.



Talde indigenetako ordezkariak harrera egin zieten Oñatiko udaletxean astlehenean.

MIREIA BIKUÑA

Kutxa Auto Asegurua

Orain baditugu auto-asegurua. Bila ibili beharrik ez.

Ongi etorri **Kutxa Auto Asegurua**. Diruaz gainera, buruhaustek aurrezten dizkizun aseguruak. Estaldura zabalak, zerbitzu-kalitatea eta prezio ona ondoen konbinatzen dituen eskaintza. **Liberty Seguros** etxearen bermearekin. Eta, jakina, **kutxa**ren konfiantzarekin.

Zatoz gu ikustera, eta xehetasun guztien berri emango dizugu.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**



zabalik

Rufina Olasagasti

Arrasaten ez dago ezer

Arrasaten ez dago ezer. Nahiago nuke beste herri batean bizi, esan zuen aurrekoan Amaiak, 16 urteko neskatilak, elkarrekin marrazten ari ginenean.

Zergatia galdetuta erantzun zidan Arrasaten badaudela denbora librerako aukerak besteentzat, baina ez bere adineko gazteentzat. Haurrentzat ludotekak daude, gaztetxoek gazte txokak dituzte, gazteek gaztetxera joan daitezke, nagusiagoek tabernetan, kafetegietan eta elkarrekin badituzte elkarrekin bildu eta ondo pasatzeko lekuak. Aukerarik ez dute, ordea, gazte txokoetakoak baino nagusiagoak diren gazteek eta gaztetxera joateko gazteegiak direnek.

Bat-batean begien aurrean ikusi ditut EKIN Emakumeak Elkartean ibiltzen diren neska gazteak eskulanetan, lagun arteko giro ederrean; orratz lanetan egiten dituzten jertseak eta bordatuak; neska eta mutilentzako apropos prestatuko sukaldaritza erraza ikasten dabilzanak; jantzetan botoi bat nola jarri, prakabarrenak nola egin eta hone-lako gauza errazak ikasteko egindako ikastaroak... Hip-hop talde bat ere ibili berria da dantza eta musikaz gozaten. Gogoratzen dut baita zein pozik ibili ziren neska-mutil talde bat antzerkia prestatzen AEDk antolatutako taldean, eta nolako arrakasta izan zuten Arrasaten bertan eta Oñatin, Elgoibarren, Durangon, Aretxabaletan... egindako errepresentazioetan.

Beraz, hurrena ikusten dudanean badakit zer esan Amaiari: zatoz EKIN Emakumeak Elkartera, bere sorreraren 25. urteurreneko ospakizunak prestatzen hasi gara, eta antzerki emaldia prestatuko dugu. Lagunekin etorri, nahi baduzu.

Horrela, Arrasaten izango duzu nola dibertitu. Baita hau irakurri duzun horrek ere, gustukoa baduzu!

"Zatoz EKIN elkartera, bere sorreraren 25. urteurreneko ospakizunak prestatzen ari gara"

usteak uste


Irati Agirreazaldeg

AHTri bai

Denak AHTri ezezkoa ematen ari direnean ausartuko naiz AHTri baietz esatera. Batek baino gehiagok pentsatuko du: "Erotu ote da?". Ez naiz erotu, ez. AHTri ematen diozue ezetza, baina horretaz ari naizenik ez ezazue pentsa. Nirea ez da trena, ez duzue asmatu Abiadura Handiko Txapelketaz ari naizena. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia, lehen saioak naiz ikusia eta hartua du abiada bizia. Hartu bertsoaren trena eta gozatu ahalik eta gehiena.

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

Aitzina? Gibelera?

Asier Azpilikueta

www.berria.info/blogak/azpilikueta

Batzuetan, albiste bat irakurri eta ez dago jakiterik albisteak kontatzen duena gauza ona den (gizartea aurrera doan seinale) ala gauza txarra den (karramarroen gisako gizartearen adibide).

Kontua da Puebla hirian (Mexiko) bakarrik emakumeek gidatzen eta erabiltzen ahal dituzten 35 taxi arrosa jarri dituztela kalean. Tokion, badakizue, 2005ean hasi ziren soilik emakumeendako tren bagoiak erreserbatzen, mistoetan emakumeen kontrako ukitze lizunak zirelako. Halako sexu abusuak saihestu nahian, segurtasun argudioak aldarrikatu, abiatu dituzte Pueblako taxi arrosak. Mexiko Hirian ere aspalditik daude emakumeendako tren bagoiak eta autobusak. Betiere emakumeen segurtasuna eta lasaitasuna ziurtatzeko.

Pink Taxis enpresako zuzendari komertziala ez da emakumea, gizona baizik.

Humberto Vargas izena du eta berari egokitu zaio zerbitzua esplikatzea. Bada, segurtasun kontuak aipatu eta gero, Vargasek adierazi du taxi arrosatan emakumeak "erosoago" egon daitezela saiatuko direla. Horregatik, "atzeko eserlekuan ispilua izanen dute, makillatu ahal izateko". Ai... Honeraino albistea ez zegoen gaizki ere...

Autoritate eskasa

Markos Zapiain

www.eibar.org/blogak/zapiain

Banindoa herenegun goizeko zortziak aldera Institutura eta Iban Laka bizilagun eta ikaslea gerturatu zitzaidan atzetik erdi lasterka. Aurpegia nirena izugarri hurbildu eta zerri-gripe zerriarren sekulako ezul eta birus-festa zikina irentsarazi zidan. Irakasleoi autoritate-estatusa aitortzea ez da aski. Jokabide batzuk behar bezala zigortzekotan heriotza-zigorra berrezarri beharko lukete. Zelako makalaldia atzokoa eta gaurkoa! Harrapatu diat nik ere.

koplak

Enaitz Alustiza

Pello eta Arantxa

Igande hontan ospatu zuten *Pellon eguneko festa* bostehunetik gora pertsona ez da marka txarra, ezta?

Nola ez nuen joaterik izan pena daukat bihotzean besarkada bat jaso ezazu hitz hauek irakurtzean.

Honen harira kontuan izan, ahazten zaiguna sarri: Pertsona handiak izaten dira pertsona handien oinarri.

Zeini kontatu problemak, Pello, ta zeinekin egin dantza? Zure gizonak beste zorion merezi duzu Arantxa.

Arantxarentzat soilik hitz onak ditut, nago esan beharrez bera jabe den denda txikiak jantzi nau baserriarrez.

Nik argi daukat: batena beste, da bestean meritua. Ai, zein ote da hain maitatuak izateko sekretua?

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagakoko
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Mendebaleko Saharan ikusi eta bizi izandako esperientziarekin kezkatuta eta sahararren eskubide urraketa salatzeke goiendarrak Mendebaleko Sahararik. "Sahararrek ez dute ezer galtzeko. Bizia bakarrik. Desesperatuta daude. Edozein egunetan astakeria bat gerta daiteke", dio Juldainek.

Agurne Judain > Nubi elkarteko kidea

"Sahararrek diote, askatasuna galdua, beste ezer ezin dezaketela galdu"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Mendebaleko Saharan izan dira irailean Agurne Juldain arrasatearra eta Olaia Sagredo aretxabale-tarra. Sahararrei laguntzeko Deba-goieneko bi elkartetan dihardute lanean: Nubin lehenengoa eta les-baan bigarrena. Agurne Juldainek kontatu digu esperientzia.

Zein izan da bidaiaren helburua?

Olaiak eta biok urteak darotzaguz sahararrei laguntzeko elkarteetan lanean. Urtero joaten gara saharar errefuxiatuen kanpalekuetara. Umeengatik eta, elikagaiak batzen ditugu hara erateko... Baina oraingoan, joan egin gura izan dugu Mendebaleko Saharara. Izan ere, 2005a ezkerro dihardu harremanetan Olaiak Afapradesa erakundearekin: saharar desagertuen eta presoan familiartekoen elkartearekin.

Nubi elkartekook ere baduzue harremana gerran zauritutakoen senideekin, ezta?

Gerraren eta minen biktimen elkartekoekin. Esan behar da Marokok pertsonen kontrako minez josi duela Sahara, Lotsaizuneko Harresia deitzen den ingurua, eta asko dira mina horiek zapaldu eta zauritu daudenak. Mendebaleko Saharan bizi duten egoera ezagutu nahi genuen. Gatazka gori-gori bizi den tokia. Horregatik joan gara hara. Irailaren 11tik 20ra bitartean egon gara han.

Zenbat saharar dira munduan?

Guztira, milioi bat-edo izango dira, nahiz eta zaila den esatea zehatz-mehatz. Saharar asko bizi da gune okupatuetan, Mendebaleko Saharan, eta kanpalekuetan, bestalde, 200.000 lagun inguru.

Uste baino gordinagoa da egoera Mendebaleko Saharan?

Bagenekien egoera latza zela, 2005etik intifada hasita dagoelako eta izaten dugulako aldirio hango berri. Errepresioa etengabekoa da. Ia egunero ateratzen dira kalera manifestazioan eta kartzelaratzeak, atxiloketak, desagertzeak... egunerokoak dira. Baina egoera bertatik bertara ezagutzea ezberdina da, gogorragoa da. Gu modu klandestino samarrean joan gara hara. Ofizialki turista moduan joan arren, ezagutu ditugu saharar ekintzaileak, eguneroko borrokan murgilduta daudenak.



Agurne Juldain, Aaiun hiriko hotel batean, Martxa Berdearen gaineko mural baten aurrean.

OLAIA SAGREDO

Modu klandestinoan?

Oso gogorra izan da han bizi izan dugun jazarpena Marokoko polizia eta militarrengandik. Astebetez eta 24 orduz, ia bizkarrean izan ditugu poliziak, une batez 10 bat polizia zibil ere bai. Hoteletako gure geletan sartu dira gu ez geundenean. Heldu ginen zapatu batean hara eta martitzenerako bueltatzeko deseatzten geunden. Hasierako egunetan, batez ere, jasanezina izan da presioa, sekulako beldurra pasatu dugu.

Euskaldunak izatearren arazorik?

Ofizialki ginen espainolak eta turistak. Esan ziguten joan aurretik: "Euskaldunok eta katalanok, kontuz!". Joan baino 15 egun lehenago, katalan batzuk, Agadirtik sartu zirenak, Dakhlan biluztu egin zituzten. Guri ez ziguten halakorik egin. Uste dut libratu egin ginela emakumezko poliziarik ez zegoelako.

EGOERA

"Kartzelaratzek, atxiloketak, desagertzeak... egunerokoak dira Mendebaleko Saharan"

NAZIO BATUAK

"NBEko soldaduak bizi dira luxuzko hoteletan eta hilean 3.000 euro irabazten dute"

SOLDATA

"Saharar batek irabazten du marokoar batek baino bost bider gutxiago"

Zeintzuekin elkartu zarete?

Dakhla, Bojador, Aaiun eta Smara hirietan egon gara. Guztietan izan ditugu batzarrak sahararrek. Esaterako, orain dela gutxi atxilotu dituzte zazpi saharar ekintzaile eta atxilotutakoen artean dago gurekin egon zen bat: Rachid Sghyar. Bestalde, Bojadorren egon ginen Sultana Jayarekin. Dakh-lako Torturaren Aurkako Batzordeko kide da. Manifestazio batean poliziak begi bat galarazi zion bortizki egurtu ostean. Harekin egon eta bihamunean, berriz egurtu zuten eta besoa apurtu zioten. Bestalde, Smaran, saharar herriaren askatasuna eta autode-terminazio eskubidea aldarrikatze-earren atxilotuak eta torturatuak izan ziren adingabekoen testigantzak ere jaso genituen.

Gerra egoeran bizi direla esan genezake?

Gerra isilean. Errepresio basatia jasaten dute sahararrek, ez

dira askatasunean bizi. Marokorrek gehiago dira. Saharar bakoitzeko lau marokoar bizi dira. Gobernu marokoarrak ematen die dirua batez ere hegoaldean bizi diren marokoarrei, etxea egin dezaten Mendebaleko Saharan. Bitxikeria moduan, Dakhlan, Paco izeneko kanariar bat ezagutu genuen. Marokoko Gobernuak kala bat oparitu zion luxuzko hotela eraikitzeko. Administrazioaren aldetik, Mendebaleko Sahara da Espainiarena, nahiz eta berez sahararren lurraldea izan.

Zelan ulertu Espainiak, Europako Batasunak, Nazio Batuen Erakundeak... sahararrekiko duen jarrera?

Mendebaleko Saharan dauden NBEko (ONU) soldaduek ez dute ezer ere egin. Bizi dira luxuzko hoteletan, dena ordainduta, eta hilean 3.000 euro irabazten dute... Ulergaitza da.

Orain, zein da egoera Mendebaleko Saharan?

Urriaren 8an atxilotu zituzten Casablancan zazpi ekintzaile saharar. Joan ziren 10 egunerako kanpalekuetara, Tindoufera, eta itzuleran hartu zituzten. Auzitegi militarrek epaituko ditu parte diren estatua arriskuan jartzearen akusaziopean. 15 eta 20 urteko kartzela zigorra jaso dezakete eta, okerrean, heriotza-zigorra. Esan behar da, bestalde, saharar ekintzaileei ez dietela zaintzen medikuek. Esate baterako, urriaren 9an, Sultana Jaya, gurekin egon zen beste ekintzaile bat, Aaiungo aireportuan atxilotu zuten, Espainiara zihoanean begietatik eta besotik ebakuntza egitera. Atxilotu, bortxatu, egurtu eta bueltan etxera bidali zuten.

Zelan amai dezake gatazka honek?

Sahararrek ez dute ezer galtzeko. Bizia bakarrik. Baina diote, behin askatasuna galdua, beste ezer ezin dezaketela galdu. Desesperatuta daude. Edozein egunetan astakeria bat gerta daiteke. Han ezagutu genuen 8 urteko ume batek hau esan zigun: "Bihar zuek hemendik joaten zaretenean, poliziek jo egingo didate, sahararra izatearren eta zuekin jolas egitearren". Bestalde, sahararrek izatearren, hau da, euren nortasunari eustearren, ezin dezakete lanik egin. Eta saharar batek irabazten du marokoar batek baino bost bider gutxiago; eskoletan marokoar direla aitortu behar dute...

Oinezkoa, gure herrietan azkenekoa

Arantxa Mendizabal
Bergara

Etengabe autoan ibiltzeak errealitatearekiko itsu egotera garamatzala konturatu nintzen beste behin, eta hori, Bergarako kaleetatik oinez ibiltzeagatik; edo, esan beharko nuke, oinez ibiltzeari esker, nahiz eta horren ondorioak negar egiteko modukoak diren. Bistan geratu zitzaidan berriro ere gure herriak gero eta gehiago dabiltzala bihurtzen oinezkoendako kaiola, oinezkoak gero eta estuago eta larriago daudela, gaudela, gure herriez autoa alde batera lagata gozatzeko.

Kontua da oinez joatea erabaki nuela joan behar nuen tokira. Bergarako erdigunetik hasi eta iparraldera jo nuen, kiroldegi aldera. Horretarako, Masterrekatik eta Zubietatik behera joan nintzen. Berehala hasi ziren oztopoak, oinezkoarendako etengabeko tranpak: harlosak apurtuta, deskuidu

baten edo hain abil ez dabilen batek estropezu egin eta jausteko moduan, eta, bezperan euria majo egin zuenez, oraindik putzuz beteta. Baina, harlosak zeudelako, oraindik eskerrak eman behar; izan ere, haiek bukatu egiten dira halako baten, eta obra hauen-gatik edo besteengatik hesiak eta oinezkoa bere babesgune-tik, leku naturaletik, harlosa-tik kanpo eta errepedierantz bultzatzen duten egiturak daude.

Jakin badakit arduradunek ezin dituztela nahi bezala eta libreki egin euren hirigintza planifikazioak, eta herriak lehendik modu batera datozki-gula eta horretara moldatu behar dugula ahalik eta ondoen. Hala ere, iruditzen zait irabazi ahal zitekeela espazio gehiago oinez doazenezako, aparkaleku gutxiago eginez, etxebizitza berriak beste modu batera pentsatuaz. Gaur egun, gure herrietako kale asko ez dira inondik inora ere oinez ibiltzeko modukoak, eta horrek pena ematen dit. Autoendako moldatu ditugu gure herriak, haiei eman dizkiegu, eta oinezkoa gero eta baztertuago dago. Eta ez da ahaztu behar

denok ez garela gidari, denok ez dugula autoa edo ez dugula zertan izan behar; baina denok gara edo izan gaitezke kaletar eta oinezko. Eta lasai eta duintasunez ibiltzeko aukera izan behar dugu, ez bakarrik peatonalizatutako kale zabal horietan (ia denak erdigunee-tan egoten dira, ezta?), baizik eta gure herriko kale eta auzo guztietan.

Silveiraren amaiera makala

Aitor Arantzeta
Arrasate

Zarautzen egon nintzen bertsolari txapelketan. Ez naiz bertsozalegia, baina gustura ibili nintzen. Aurretik genituen sarrerak hartuta, eta eskerrak, ze bete-bete egin zen. Saioak berak izan behar zuen notizia, baina azkenean zein izango eta Xabier Silveira gaztea.

Ez zigun erakutsi errespetu handirik sarrera ordaindu genuen ikusleoi. Eta nire modukoak espontaneoak gara eta gaitz erdi, baina han bertsozale asko zeuden,

epaimahaikoak lanean, bertsolari kideak taula gainean zein entzuleen tartean. Eta zer egin zuen? Bere pronto horietako bati kasu egin eta taula gainetik salto. Hau dena bere puntuazioa entzun zuenean, ez lehenago.

Txapelketan jokatzea erabaki badu arau batzuk errespetatzea eskatu dakiok. Nire ondoan zegoen bertsozale-ak hauxe komentatu zidan: "Badirudi batzuek orain desku-britu dutela Silveira, pentsatu beharko luke bere buruan baino jende gehiagorengan".

Esan dut lehen ere ez naizela abilena, baina niri asko gustatu zitzaidan Oihane Perea.

Irudizko herria

Juan Xpe Madinabeitia
Arrasate

(Francisco Lopezi edo Patxiri irudizko herrian...)

Orain dela egun gutxi Espainia-ko irudizko herri baten nengoe-la oso gustura egunkari bat irakurtzen, zure esan batzuk irakurri nituen. Horregatik, neuk, inongo alderdi politikotan

esku-hartzen ez dudan irudizko herritarrak, honako hau esan nahi nizuke: edo gauzak ahazten zaizkizu edo zure diskurtsoak idazten dutenek irudimen oso txikia dute. Politikariek irudi-men handiagoa izango bazenu-te, arazoei konponbidea aurkitzen saiatuko zinateke eta ez zineten etengabe zuen jarlekuei eusteko borroka antzuetan ibiliko.

Zorionak!

Jon Larrañaga
Bergara

Zorionak eman nahi dizkiot Pello Garitanori, merezi du-eta. Urtetan, Bergaran, hainbat alorretan egindako lanagatik eta joan zen domekan jaso zuen omenaldiagatik. Zorionak, Pello, merezi duzu! Eta eskerrak eman nahi dizkiet Pello-ren Eguna antolatzen ibili diren guztiei. A zelako ebentoa! Zelako jaieguna! Goizean hasi eta iluntzera arte. A ze jendetza pilotalekuan! Aspaldiko (inoizko ez esatearren) herri bazkaririk jendetsuena. Eta bandaren kontzertua eta... Zorionak eta segi aurrera!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Berriz ere.

GOIENKARIA da hedabide irakurriena Debagoianean, berriz ere. CIEsen 2009ko lehen neurketak horixe dio. Zuk eta beste 36.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero. Gipuzkoa osoan, 44.000 lagunek. Eskerrik asko irakurleoi eta publizitatea jartzen duzuen guztioi.

Goienkaria

GOIENKARIA: 36.000 irakurle

El Diario Vasco: 21.000 irakurle

Gara: 4.000 irakurle

Noticias de Gipuzkoa: 3.000 irakurle

Berria: 2.000 irakurle

El País: 2.000 irakurle

Marca: 1.000 irakurle

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-20 Aretxabaleta > 21-22 Oñati > 35
Eskoriatza > 36-37 Antzuola > 38 Elgeta > 39 Aramaio > 40 Gatzaga > 41



> **ARRASATE**
Dorre batetik abiatuko da Larragaingo pasabidea > **13**



> **ARETXABALETA**
Gastronomia eta folklore jaialdia egingo dute etzi, egun osoz > **21**



> **OÑATI**
Trikiti jaialdia dago domekan, Lizargarateko trikitilariekin > **35**



> **ANTZUOLA**
Frontoi txikiko II. txapelketan 14 lagunek dihardute zapatuetan > **38**

ESKORIATZA > ONDAREA

"Oso ondo landutako" errotarri bat topatu dute Atxorrotzeko indusketan

LUZATU EGIN DA

Aurreikusi baino astebete gehiago lan egin dute adituek Atxorrotzen

AURKIKUNTZAK

Erdi Aroko armen arrastoak, jatekoen hezurak... ere aurkitu dituzte indusketotan

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Atxorrotz mendiko gaztelu zaharren inguruko indusketek hain fruitu onak eman dituztenez, eta lana hain probetxugarria izan denez, aurreikusi baino luzarago iraun dute, eta oraingo aste amaieran ziren bukatzekoak -urriaren 15a zen aurreikusitako bukaera data. Lanaldi oparo horrek garai askotako hainbat objektu azaleratu ditu, eta horietako batzuk ez zituzten espero lanok egin dituzten Berako Larrate indusketa-entresako hiru adituek: "Esku-errotaren baten errotarria topatu dugu. Oso ondo landuta dago. Ez genuen uste horrelakorik topatuko genuenik", azaltzen du lanotan ibili den Iñaki Sagredo historialariak.

Horrez gain, bestelako gauza hauek agertu dira: balezta-punta bat, lantza bat, ezpata bat, txanponak, oraindik identifikatu egin behar diren beste objektu batzuk, "eta fauna aztarna asko: jatekoen hezur asko eta bestelakoak", esaten du Iñaki Sagredo. Bestalde, Espainiako Gerra garaiko aztarna batzuk ere topatu dituzte.

INOIZ BAINO SAKONAGO

"Leku honen okupazioaren kronologia antzeko bat dago", esaten du historialariak; "geruzaz geruza induskatu dugu 20 metro koa droko lagina, eta garai askotako mailak zeharkatu ditugu: Gotikoa, Erdi Aroa..."

Sekula ailegatu bako maila batera ailegatu dira Larrateko langileak: "Ignacio Barandiaran



Goian, aurkitu duten errotarria (atzean dagoen palamarroiarekin alderatuta ikusten da harriaren tamaina); eskuman, indusketetako une bat.

60ko hamarkadan ibili zen hemen indusketak egiten, eta metro eta erdi inguruko sakonera jo zuen; bada, guk sakonera hori gainditu dugu zenbait lekutan", azaltzen du Iñaki Sagredok. Datorren urtean, Udalak ondo ikusten badu, lanokin jarraitzeko asmoa dute Larratekoek.

ABENDUAN, ERAKUSKETA

Orain, aztarna horiek aztertu egingo dituzte adituek. Urte beterrako lana izango dutela aurreikusten dute arduradunek. Baina hori baino askoz lehenago, abenduan, Sagredoren arabera, lanok gizarteratzeko beste pauso bat emango da -indusketa lanon bisi-

ta gidatuak egin dituzte- eta Ibarraundi museoan erakusketa ipiniko dute: panelak, topatu dituzten objektu batzuk, argazkiak... eta adituon hitzaldiak.

Azterketa bukatu eta gero, topatutako aztarnak Eskoriatzako Udalaren gordailura pasatuko dira.

Atxorrotzeko aztarnok inguruotako historiaren gainean argibide asko eman dezaketela dio Iñaki Sagredok: "Errotarriak adierazi diezaguke orduko errotak zelakoak ziren, eta bizimodu jakin baten gaineko pistak eman; hezurrek adieraz dezakete zelako elikadura zuten".



Bisita gidatua Atxorrotzen.

ESKORIATZAKO UDALA

Bisita gidatuetan 55 helduk eta herriko ikasle gehienek parte hartu dute

Ibarraundi museoko arduradunak oso pozik daude Atxorrotzeko bisita gidatuak zelan joan diren; izan ere, epea laburregia izan da gura izango zituzketen bisita guztiak egiteko: "15 egunean, ia egunero bi ikasle taldek bisitatu dituzte lanok; hala ere, ezin izan diegu ikasle guztiei erakutsi", esaten du Ibarraundiko arduradun Saioa Altzuak.

Ikasleen bisitaldiez gain, publiko orokorrarendako bi bisita eman dituzte, eta denetara 55 bat lagunek parte hartu dute. Egun onena joan den zapatua izan zen: "Eguraldi ona egin zuen eta 40 bat lagun etorri ziren. Gustura ibili ziren", esaten du Altzuak. Lehenengo bisita gidatua hilaren 12an izan zen, eta eguraldiak orduan lagundu ez zuen arren, 15 pertsona animatu ziren. "Eguraldi aldetik ez zen egun atsegina izan, baina bisita gidatua bera oso ondo joan zen", esaten du Ibarraundiko arduradunak.

Lanon emaitzak lasaiago eta denok ikusteko moduan erakutsiko dituzte abenduan egiteko asmoa duten erakusketan, Ibarraundin.

Maria Alonso eta Iñaki Caballero > Kale hezitzaileak

"Neskak mutilak baino okupatuago daude"

UBANE MADERA > ARRASATE

Bada urtebete pasatxo Arrasateko Udalak gazteendako zerbitzu berria abiarazi zuena: kale heziketa. 11 eta 17 urteko gazteei zuzenduta, asmoa da aisialdi gehiena kalean ematen duten gazteengana heltzea, haiek ibiltzen diren gunean, kalean. Ekimenaren helburua, labur esanda, gazteei laguntzea da. Eta horretan dihardute iaztik Maria Alonso eta Iñaki Caballero hezitzaileak.

Zelan hartu zaituztete gazteek?

Orokorrean, nahiko ondo hartu gaituzte. Eta, urtebete pasata, igartzen dugu desberdintasuna.

Zenbat gazterekin zabilzate lanean?

Bost koadrilarekin. Koadrila batzuetan 10-15 bat gazte dira; bestetan, bospasei. Guztira, 30 bat gazterekin dihardugu, eta gehienak mutilak dira, 11-17 urtekoak.

Zer egiten duzue eurekin?

Berez, eurekin egon. Konpainia egin, eurekin denbora-pasa, eta horren bitartez jakin zeintzuk diren euren beharrak. Batzuetan gehien behar dutena konpainia

da; bestetan, ekintzak egiten ditugu, euren denbora librean egoten garelako eurekin: futbol partiduak, eskulanak... Zubi lana ere egiten dugu gazte eta hainbat zerbitzuren artean (Gazte Bulegoa, liburutegia, Kulturategia...).

Esan duzue gehienak mutilak direla. Zergatik?

Kalean denbora luzea ematen duten gazteekin egiten dugu lan, eta horietako gehienak mutilak dira. Hori da, adibidez, gazteen artean igarri dugun aldeetako bat: neskak okupatuago daudela. Gehiago kostatzen da neska koadrila hutsak ikustea. Neskak gehiago apuntatzen dira eskolaz kanpoko jardunaldietan mutilak baino.

Lagun talde mistoei dagokionez, halakoak ere gutxi ikusi ditugu; gehiago gazteagoak dire-

nean, 11-12-13 urtekoak, baina gero... Asteburuetan elkartzen dira; aste barruan, askoz ere gutxiago. Egunero daude okupatu: ingelesa, musika, futbola...

Eta ikusi dugun beste kontu bat da 14-15 urtetik aurrera neskak kirola albora uzten dutela edo kirola egiten neska gutxiago dabilena; baina hori izan daiteke, seguruenik, maila profesionalen aukera gutxiago dutelako.

Bestela, gazteen artean zein behar ikusi dituzue?

Batzuk orokorrak dira: orekarik eza nerabe eta gizartearen artean... gauzak ez dira askorik aldatu lehen eta orain. Baina, adibidez, asko arduratzen gaitu gazte batzuk egon daitezkeela bakkarririk. Gaurko gizartearen ezaugarria da hori. Internet-eta sortu direnetik, gazte gehiagok ematen du denbora etxean, ordenagailuaren aurrean... harremanak desberdinak dira. Eta ikusi dugu, baita ere, gazteei zuzendutako produktu gutxi daudela; ez dagoela eskaintza askorik, batez ere 13-14-15 urtekoendako. Eta lokalak egunero eskatzen dituzte nerabeek.

"Internet-eta sortu direnetik, gazte gehiagok ematen du denbora etxean"



Nerea Alonso eta Iñaki Caballero.

U.M.

AZPIEGITURAK > OINEZKOENDAKO ETA BIZIKLETENDAKO

Arrasateko sarrerako eta irteerako bidegorri zatien proiektuak idazten hasiko dira

LKSk idatziko ditu proiektuok, bost hilabeteetan eta 40.000 euro pasako aurrekontuarekin

U.M. > ARRASATE

Adjudikatu dituzte Arrasateko bidegorriaren beste bi tramu idazteko lanak. Batetik, Epeletik ospitale-gunerainoko zatiaren proiektua idaztekoak; eta bestetik, Araba etorbidea eta Fagor arteko bidegorri zatiarenak. LKS Ingeniaritzak idatziko ditu bi

zatiaren proiektuak. Kontratu sinatzen dutenetik bost hilabete epea dute lana entregatzeko, eta 40.368 euroko aurrekontua.

LEHEN ZATIA: ARRASATE IPARRA Bidegorriari dagokionez, Epeletik ospitalerainoko zatia hasiko da araztegia egiten dabiliztan

gunean, Eroski ingurutik pasa eta Arrasatera sartu eta ospitalerainoko bidea egingo du erreka ondotik. Bi kilometro eta 400 metro luze izango da. Gero, ospitale-gunean herri barruko bidegorriarekin bat egingo du, Zerrajerako atzeko partetik pasatzen den bidegorriarekin, alegia.

Horixe adierazi du German Pozasek, Diputazioko Garapen Iraunkorreko teknikariak. Izan ere, Gipuzkoako Diputazioa dabil inguruko bidegorria eraikitzen.

BIGARREN ZATIA: HEGOA

Diputazioko ordezkariak emandako xehetasunen arabera, Arrasate hegoaldeko zatia motzagoa izango da. Araba etorbidean hasi eta Fagor San Andresen bukatuko da. 500 metro luze izango da.

oharrak

ISTRIPUA

> Auto harrapaketa

Auto batek 40-50 urte bitarteko bi emakume harrapatu zituen martitzen goizean Alfontso VIII. kalean. Bi emakumeak larri eraman zituzten ospitalera, eta bat Txagorritxura biderratu behar izan zuten. Dena den, arriskutik kanpo zeuden.

PROTESTAK

> AHT Gelditu Elkarlana

Batzar orokorrera deitu ditu AHT Gelditu Elkarlanak eragile sozial, sindikatu, politiko, ekologista eta, oro har, AHTren kontra dagoen edozein herritar eta talde. Kulturaren da hitzordua, bihar, zapatua. 09:30ean hasita

aztertuko dute taldearen ibilbidea, proiektuaren egoera eta taldeak aurrerantzean izan behar duen lan ildoak. 13:30ean giza katea egingo dute; eta 14:00etan, herri bazkaria Uarkapen .

TXATXILIPURDI

> Bitxigintza eta larrugintza

Erguin eta San Andresko gazte txokoetan tailerrak egingo dituzte (18:00). Erguinen fimo tailerra egingo dute, egunean. San Andresen, martitzenean eta azaroaren 3an larrugintza tailerra egingo dute Bestalde, urriaren 31rako Zarautzera joango dira 12-17 urtekoekin. Surf ikastaroa egingo dute. Izena emateko azken eguna da urriaren 27a.

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



LEHIAKETAK > ERAKUSKETA ETA PINTXOAK

Perretxikoak barra-barra domekan Herriko Plazan

Perretxikoaren Eguna ospatuko dute 19. aldiz Arizmendikoek, eta perretxiko-pintxo lehiaketa ere bai

U.M. > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, eta azken ordukorik ezean, Arizmendi ikastolako DBHko ia 300 ikasle mendira joan dira, perretxiko bila. Izan ere, domekan, XIX. perretxiko lehiaketa eta IV. perretxiko-pintxo lehiaketa jokatu dituzte Arrasaten.

11:00etarako egin dute hitzordua, Herriko Plazan, gaur eta zapatuan batutako perretxiko sortak ikusgai ipintzeko, 14:00ak arte; orduantxe banatu dituzte sariak. Hiru sari izango dira eta epaimahaiak kontuan izango ditu ahalik eta espezie gehien agertzea perretxiko sortan, eta sorta horren

kalitatea ere bai. Hori bai, ezin izango dute edozein perretxiko erakutsi, "zerrenda jakin baten agertzen direnak baino ez" (lehiaketaren oinarrietan daude), zehaztu dute Arizmendiko ordezkariak.

Eta gaineratu dute "lehiaketan Debagoieneko 10-15 urtera arteko edozein ikaslek parte har" dezakeela.

PINTXO LEHIAKETA

Pintxo lehiaketari dagokionez, berriz, "edozein taberna, elkarre edo partikularrek hartu ahal izango du parte, pintxoaren oinarritzko osagaia perretxikoa delarik", azaldu dute ikastolako kideek. Pintxo horiei izena ipini egin beharko dietela ere azaldu dute, eta 13:00etarako gertu izango beharko dituztela.

Lehiaketa horretan parte hartu gura duenak egunean bertan eman dezake izena, pintxo lehiaketa hasi baino ordu erdi lehenago.



Argazki-muntaiak erakusten du zela geratuko diren dorrea eta oinezkoen pasabidea.

ARRASATEKO UDALA

AZPIEGITURAK > GARAJE ETA KALEAREN ARTEKO LOTURA

Oinezkoendako pasabide berria, Larragainerako

Dorre modukoa gehitu eta solairu bat irabaziko du Bizkaia etorbideko garajeen igogailuak

UBANE MADERA > ARRASATE

Asteon onartu dute Gorostizarako oinezkoen pasabiderako proiektua. Han azaldutakoaren arabera, dorre moduko bat gehitu behar diote garajeen eraikinari. Eta dorre horretatik abiatuko da oinezkoendako pasabidea, Gernika Oinezkoen Zumardiaren gainetik 9,95 metrora, Larragain kale-raino iritsi arte.

Modu horretan, Udalak lortzen duena da Larragain kalekoak ere garaje barrutik doan igogailu publikoa erabilita igo ahal izatea bizitokira. Hau da, igogailua oraingoa baino solairu bat gorago iritsiko da.

Gaur egun, igogailu publiko hori iristen da Gorostiza auzoaren beheko parteraino, Gernika

Oinezkoen Zumardiraino, hain justu. Eta Larragain kalera iristeko automobilendako bidea eraiki zuten. Larragain kaleko bizi-lagunek, baina, oinezkoendako bidea gura zuten. Hori horrela, sinadurak batu eta, haien laguntzarekin, Udalari eskatu zioten orain egingo duten proiektua egiteko, oinezkoendakoa.

SEGURTASUNA INDARTU: ARGIA

Bestalde, oinezkoen pasabidearekin batera, igogailu publikoaren segurtasuna hobetzeko lanak ere egingo ditu Udalak, "gerta daitezkeen erasoak saihesteko".

Hori horrela, batetik, hobeto argiztatuko dute ingurua, eta argiak etengabe piztuta segitzeko bidea ere egokituko dute.

SEGURTASUNA: BIDEOKAMERAK

Bestetik, zaintza lanak egiteko, bideokamerak instalatuko dituzte igogailuaren hainbat puntutan: sarreran (beheko partean), erdi-bidean (goiko plazan) eta orain eraiki behar duten irteeran.

Bestetik, gaur egun garajearen barruko aldetik jaisten den ebakuazioko eskailera, orain edozeinek erabil dezakeena, itxi egingo dute, bakarrik larrialdietarako izan dadin.

Bukatzeke, Bizkaia etorbideko igogailuaren sarreran dauden ate biak kendu egingo dituzte. Modu horretan, inork ezin izango ditu erabili beste inor barruan harrapatzeko.

AURREKONTUEN MENPE

Esandako moduan, oinezkoen pasabide hori egiteko proiektua idatzita eta onartuta dago. Orain falta dena da diru partida finkatzea, hura gauzatzeko. Bada, puntu hori datorren urteko aurrekontuen eztabaidan aztertuko dute.

IGOGAILUAREN EZAUGARRIAK

Zortzi lagun kabitzen dira Bizkaia etorbideko igogailu publikoan; kilotan, 630 kilo. Garajeen barrutik doa, zerotik bederatzigarren solairura zuzenean; hau da, ez da bidean geratzen. Beraz, garajeen eraikinak dituen bestelako solairuetara joateko ezin da hori erabili, garajeek eurek duten igogailua baizik.



GOIENKARIA

Aquariumean egun-pasa ederrean

Gustura asko ibili ziren Alaine, Ane, Igone, Lur eta Marta (argazkilaria) arrasatearrak Donostiako Aquariumera egindako bisitan. Arrasate Irratiari esker sarrerak lortu eta hantxe pasa zuten eguna. *Nemo* txikiak ikusi, pirañei urrutitik patxo eman eta Aquariumetik ikusten den paraje ederrekin gozatu ostean, pozik bueltatu ziren etxera.

PUB HAIZEA

arrasate

KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



The Discantus Vocal Ensemble abesbatzako kideak.

KULTURA SAIALA

KONTZERTUA > THE DISCANTUS VOCAL ENSEMBLE

Hungariako abesbatza etzi gurean, Tolosako lehiaketara bidean

Peter Meszarosek zuzentzen duen Budapest hiriko talde gazteak parrokan egingo du emanaldia domekan, iluntzeko zazpitan

MIRARI ALTUBE > ARRASATE

Budapest hiritik (Hungaria) datorren The Discantus Vocal Ensemble abesbatzak kontzertua eskainiko du domekan, parrokan (19:00). Urriaren 28tik azaroaren 1era bitartean Tolosan egingo den 41. nazioarteko abesbatzen lehiaketan parte hartu aurretik

gurean egingo du erakustaldia talde gazte baina eskarmentu handia duen horrek. Pizkundeko eta Barroko aurreko doinuak eta gaur egungo abestiak tartekatzen dituen abesbatzak egitarau dotorea gertatu du arrasatearrei eskaintzeko; tartean, hainbat meza konposatu zituen Heinrich

Isaac autorearen *Missa Solenne a 6* eta abesbatzendako konposatzen duen Peter Zombola hungariar gaztearen *Ave Maris Stella*.

SARIAK DITUEN TALDE GAZTEA

Peter Meszarosek sortu zuen abesbatza 1996an, eta hura da gaur ere zuzendaria eta abeslarietako bat. 12 kide dira –bost emakume eta zazpi gizon– eta talde gaztea da, 25 eta 35 urte artean dituztelako abeslari guztiek. Hala ere, eskarmentu handia dute: Europako hiririk garrantzitsuenetan egin dituzte emanaldiak, eta nazioarteko hainbat lehiaketatan parte hartu. 2001ean, esaterako, Budapestean egindako nazioarteko abesbatzen lehiaketan lehen saria irabazi zuen ahots nahasien atalean, eta Alemanian lehen saria eta sari nagusia (Johannes Brahms Prize). 2004an, oster, Italian (Gorizia) saritu zituzten.

Tolosako 41. nazioarteko abesbatzen lehiaketari dagokionez, urriaren 30ean hartuko du parte The Discantus Vocal Ensemblek; batetik, musika sakratuaren atalean jardungo du norgehiagokan, eta bestetik, musika profanoarenean.

KULTURA > LIBURUAK

Joxean Agirre idazlea izango da literatura solasaldian

Eguaztenean hasiko du denboraldia euskarazko taldeak, Mikel Aierbek gidatuta

M.A. > ARRASATE

Udal Liburutegiak antolatzen dituen literatura solasaldiek hasi dute ikasturtea. Martitzenean izan zen lehen saioa, espainolez, eta datorren eguaztenean euskarazko taldea elkartuko da Kulturaten (18:30).

30 LAGUNETIK GORA

Urrian hasi eta ekaina bitartean irauten duten literatura solasaldietan, liburu baten gainean jarduten dute taldeek hilean behin. Lehen saioa espainolezko taldeak egin zuen eta jende asko elkartu zen, 30 lagunetik gora. Rikardo Arregi poeta gasteiztarrek egingo die lagun aurten, eta Francisco Umbrak idatzitako *Mortal y rosa* liburua izan zuten berbagai martitzenean. Liburuko pasarteek gain, idazlearen gorabeheren gainean ere jar-

dun zuten. Azaroaren 17an elkartuko dira berriro eta, orduan, Antonio Lobo Antunes idazlearen *Tratado de las pasiones del alma* liburua izango dute berbagai; eta abenduaren 15ean, William Maxwell AEBetako autorearen *Vinieron como golondrinas* liburua.

JOXEAN AGIRRE ETORRIKO DA

Eguaztenean, urriak 28, euskarazko taldearen lehen solasaldia izango da. Aurten, gainera, Mikel Aierbe idazle eta literatura kontuetan aditua izango dute koordinatzaile eta gidari lanetan, Iban Zalduren ordez. Lehen saioan, Joxean Agirrearen *Romain zen bere izena* liburuen gainean jardungo dute, eta gonbidatu berezia etorriko zaie taldera: idazlea bera.

Azaroko solasaldia, oster, hilaren 25ean egingo dute eta Philip Roth estatubatuarren *Suminez* liburua izango dute berbagai. Eta lehen hiruhilabete azkena abenduaren 16an izango da, Mikel Peruarenaren *Ez obeditu inori* liburua gai hartuta.



Hezkuntza eta immigrazio arazoak erakutsiko dituzte filmeez. PRODOCUMENTALES

ELKARTASUNA > FILMAK

Mugarik Gabeko Zinema Emanaldia datorren astean

M.A. > ARRASATE

Elkarheztzen gobernu kanpoko erakundeak II. Mugarik Gabeko Zinema Emanaldia antolatu du. Martitzenean hasi eta hilaren 31 bitartean emanngo dituzte sentsibilizatzea eta kontzientzia kritikoa sortzea helburu duten filmak.

SAHARA ETA LATINOAMERIKA

Bigarren aldiz antolatu duten zinema emanaldian, berdintasuna, giza eskubideak, elikagaien subiranotasuna, hezkuntza eta immigrazioa landuko dituzte. Elkarheztzen taldeko kideek diote beste herrialde batzuetan bizi duten egoera ezagutarazi

gura dutela, "bidegabeko egoeren ondorio eta zergatiaz hausnartu eta alternatibak bilatzeko".

Prodocumentales taldeko mediatekak utzi dizkie filmak eta, emanaldi batzuen ostean, solasaldia izango da adituekin. Hona egitaraua: martitzenean, hilak 27, *Un grito desde el Sahara*, Kulturaten (19:00); ostean, mahai-ingurua egingo dute Nubi eta Iesbaa elkarte kideekin. Eguenean, hilak 29, *Desobediencia*, Amaia antzokian (20:30); eta zapatuan, hilak 31, hiru film labur Kulturaten (19:00): *Mujeres de Mamirua* (Brasil), *Ni una mas* (Mexiko) eta *Voladora* (Mexiko).

IAMAIA ANTZOKIA
ARRASATE

Ostiraletan 00:00etatik aurrera

Urriak 30 Mario Simancas.

Azaroak 6 Iñigo. Bakarrizketa jantzia eta irrazionala

Azaroak 13 Cesar Bueno. Magia eta umorea

Azaroak 20 Kike Viguri. Umorezko bakarrizketa

Azaroak 27 Jesus Angel Arriet eta Nano.



Zaldibar

EMAITZAK

Betrayer-Steaua del Grifo	16-3
Iluntz-Ekaitz	3-4
Iriztu-Fidel & Disc.	6-3
Abokajarro-Katenatxio	9-4
Komando Alpagat-Cipris	4-8
McAwenDauen-Lasagabaster	3-3
AT Celaya-Dibling	3-6
Aldapa-Dublin	1-8

PARTIDUAK

Urriak 24, zapatua		EPAILERAK
10:30 McAwenDauen-Dublin	AT Celaya	
11:30 AT Celaya-Aldapa	McAwenDauen	
12:30 Betrayer-Katenatxio	Aldapa	
16:00 Steaua del Grifo-Fidel & Disc.	Aboka.	
17:00 Abokajarro-Ekaitz	Steaua del Grifo	

Urriak 25, domeka		EPAILERAK
10:30 Iriztu-Cipris	Iluntz	
11:30 Iluntz-Lasagabaster	Iriztu	
12:30 Komando Alp.-Dribling	Lasagabaster	

SAILKAPENA

	P	J
1. Betrayer	3	1
2. Dublin	3	1
3. Abokajarro	3	1
4. Cipris	3	1
5. Iriztu	3	1
6. Dribling	3	1
7. Ekaitz	3	1
8. Lasagabaster	1	1
9. McAwenDauen	1	1
10. Iluntz	0	1
11. AT Celaya	0	1
12. Fidel & Disc.	0	1
13. Komando Alpagat	0	1
14. Katenatxio	0	1
15. Aldapa	0	1
16. Steaua del grifo	0	1

Talde batzuek gorputzaldi onean jarraitzen dute

Ligako lehenengo jardunaldian bistan geratu zen talde batzuek gorputzaldi onean jarraitzen dutela. Betrayerrek ez zuen inongo errukirik izan estreinatu berria den Steaua del Griforen aurrean, eta talde horretako atezainak hamasei alditan atera behar izan zuen baloia ate barrutik. Bihar eguerdian (12:30) Katenatxio taldekoak izenari kasu egin eta atzean sartuko ote dira? Ez dakigu, ba, joan den astean bederatzik gol jaso zituzten-eta.

Tabernen arteko derbi lehiatsua

Lehen jardunaldia beroa izan zedin ez zen askorik behar, nahikoa zen Ekaitz eta Iluntz tabernakoak aurrez aurre jartzea. Zaldibarko kantxa barruan ez dago lagunik, eta bi tabernetako inork ez zuen liga belarria bero-bero hasi gura. Gol baten aldegatik galdu zuen Iluntzek, baina badago errebantxarako astia.

Bigarren jardunaldia gertu

Liga ondo hasi dutenen artean, bi partidu azpimarratzeko: Iluntzek eta Ciprisek jokatu dutena, eta Aboka-k eta Ekaitzek jokatu dutena.

ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Lider dagoen Ford Mugarrik Romo hartuko du bihar Iturripen

Edu Orgazen mutilak seigarren garaipenaren bila kantxaratuko dira 17:00etan hasiko den partiduan

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Euskadiko txapelketara igo zenetik Ford Mugarririk ez du horren bolada onik izan, ezta liga horren ondo hasi ere. Bost partidu eta bost garaipen, eta bihar seigarrena zenbatu gura dute: "Fitxaketa garrantzitsuak egin ditu aurten Romok, Castrotik bospasei jokalaririk hartu dituzte-

eta, iaz igoera fasean jokatzeko ibili zirenak. Baina badirudi ez direla nahi bezain ondo hasi", adierazi du Edu Orgazek.

Romok lau partidu jokatu ditu orain arte eta horietako hiru irabazi ditu: "Joan den astean irabazi egin zioten Urolari, baina oso-oso justu, gol bateko aldearekin baino ez. Garbi dagoena da

biharko partiduan joko-erritmoa ezartzen duenak asko izango dela irabazita".

BARAKALDON GERTATU BEZALA
Hain zuzen ere, norberari kome-ni zitzaion erritmoa ezartzea erabakigarria izan zen joan den astean Barakaldoren kantxan irabazteko: "Batetik, bigarren zatiko defentsa aldatu egin genuen eta eurak ez ziren egoera berri hartara ondo moldatu; eta bestetik, kontraerasoan azkar jokatzeko

hasteko gauza izan ginen, eta eurek ez dakite hala jokatzeko. Hor egin genion Barakaldori min".

Iaz ez bezala, aurten Ford Mugarririk Arrasatek berme handiagoa du txapelketa biribila egiteko, liga amaieran behar daren Mugarririk ez izateko, postu bakoitzera-ko Orgazek gizon gehiago ditu-eta eskura: "Hori bai, lider egonda badakigu aurrerantzean gure kontrako partiduetan kontrarioek ez dutela ezer gordeko". Seinale ona da hori.



Jonan Eskibel, Barakaldoko defentsa hautsi eta jaurtiketa egiten, Pitxi Herreroren omenaldiko partiduan, denboraldi-aurrean.

JOSETXO ARANTZABAL

ATLETISMOA > ESPAINIAKO TXAPELKETA

Malen Ruiz de Azua laugarren sailkatu zen Espainiako txapelketan

Kadete mailako atleta urtebete nagusiago diren atleten kontra lehiatu zen

X.U. > ARRASATE
Malen Ruiz de Azua Espainiako txapelketan izan da asteburuan, Bartzelonan. Arrasateko taldeko atleta gutxiatik ez zen podiumera igo, laugarren sailkatu zen pertikarekin 3,11 metroko salto eginda. Lehenengo sailkatua Clara Amat izan zen (3,47 metro, eta Espainiako errekorra), bigarren sailkatu zen Paula Linares (3,21 metro) eta hirugarren Laura Izquierdo (3,21 metro).

Espainiako txapelketako laugarren postuak balio handia du, Ruiz de Azua kontrarioak

baino gazteagoa delako: "14 urte beteko ditu laster, eta datorren urtean oraindik ere kadetea izango da. Asteburuan aurrean izan dituen atletek, berriz, hurrengo kategoriara egingo dute salto", adierazi du Arrasateko taldeko arduradun Fernando Zufiriak. "Gainera, entrenatzaile lanetan dabilen Jonathan Perez Bartzelonan izan zen Ruiz de Azuarekin, eta hori abantaila handia da. Izan ere, Perezek badaki zer den txapelketetan ibiltzea, eta ikaslea gertutik zaindu zuen, salto bakoitza egin aurretik detaile guztiak zainduz".

Malen Ruiz de Azuak erakusten du, Maialen Xperek, Lore Marekin eta euren entrenatzaile Jonathan Perezekin batera, Arrasaten ze maila dagoen pertikarekin.

> XAKEA

Arrasate Hiriko hirugarren jardunaldia jokatu dute gaur

Gaur, egubakoitza (19:00), jokatu dute Altamiran Arrasate Hiria torneo hirugarren jardunaldia, eta partida interesgarriak izango dira. Holden Hernandezek Arabako promes David Astasio izango du aurrean. Gainera, azken bi urteotako txapelkunak -Alejandro Franco eta Alain Prieto- aurrez aurre izango dira.

> SASKIBALOIA

MUK hirugarren lekuan dagoen Urdanetaren kantxan jokatu du

Mondragon Unibertsitateak Loiu jokatu du domeka arratsaldean (17:00), Urdanetaren kontra. Ardoiren kontrako porrotean, Javier Zurbanok adierazi zuen taldeari garaipenean sinistea falta izan zitzaioela. Fede hori etxetik kanpora errekueratzea zailagoa izango da, baina etxekoek ahalegina egingo dute.



Txitxinpe

**Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN

Jatetxea

**Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE**



Dantzarien arkuen eta herritarren txalo artean atera ziren Pello eta Arantxa Labegarietako elizatik, Malen eta Unax bilobekin.



Arku originala egin zieten Lokatzako ziklistek erruberekin elizkizunetik irteteen.



Semeek eta errainek aureskua egin zieten, Aitor seme zaharrena gidari zutela.



Pello eta Arantxaren koadrilakoek talde argazkia egin zuten.



Barrika jotzaileen oroigarria jasotzen.

JENDARTEA > PELLOREN EGUNA

"Herritarren erantzun aparta txalotu nahi dugu antolakuntzatik"

Antolakuntza taldeak modu positiboan baloratu du Pelloren Eguna; Pello eta haren familia ere oso pozik daude eta Pello "erabat eskertuta" dago

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

"Errepika ezina". Hala definitu dute antolatzaileek Pelloren Eguna. Oso pozik daude "dena primeran atera zelako", "eguraldiak eta guzti lagundu zuen", esan dute.

Baina antolakuntzatik zerbait azpimarratu badute, herritarren parte-hartzea izan da: "Herritarren erantzun ezin hobea txalotu nahi dugu", esan dute, "antolatutako guztia ez litzateke ezertan geratuko herritarren parte-hartze barik. Egun guztian antolatutako ekitaldietan batu zen jende mordoxka -bazkarian 500 pertsona-. Bazkalostean ere mahaiak kentzeko jende asko hurbildu zen laguntzera eta segituan kendu genituen guztiak. Jendearen inplikazioarekin oso pozik gaude".

GOGORATZEKO EGUNA

Polita eta ondo antolatutako eguna izan zen **Pello Garitanoren** omenaldia eta, parte hartu zuten jira askotariko herritarrak ikusita -gazte eta nagusi, alderdi politiko ezberdinetako ordezkariak...-, agerian geratu zen Pello-ri darion gizatasuna dela bere erakargarritasun nagusietako bat.

Une hunkigarriak asko izan ziren: Labegarietako meza ostean **Aitor, Jon Ander eta Xabier** semeek eta **Jaione, Kristina eta Ane** errainek aureskua egin ziotenean malkoek egin zieten ihes

PELLO GARITANO

"Ez daukat hitzik eguna deskribatzeko; eskerrik asko, denoi"

Pello erabat eskertuta dago omenaldiarekin: "Oso egun polita eta pozgarria izan zen, ez daukat hitzik", esan du. Eta gehitu du: "Erabat eskertuta nago antolatzaileekin, ekitaldietan parte hartu duten guztiekin eta hemen ezin egon eta zorionak helarazi dizkidateneekin, herriko presoekin, besteak beste, eta bereziki Jose Luis Elkororekin, elkarrekin lan asko egindakoak gara-eta". Arantxa emaztea ere ekarri du gogora: "Hainbeste esker on nuen esateko, emaztearena ahaztu egin zitzaizkidan domekan. Bada, eskertu nahi diot saltsa askotan sartuta egon arren beti animatu nauela jarraituzera".

Pellori eta haren emazte **Arantxa Askasibarri**, eta Udal Musika Bandaren emanaldian danborradako barrika jotzaileen emakumeen konpainiako ordezkari **Cari Zabalak** oroigarria eman zionean ere asko hunkitu zen Pello. Dena den, une hunkigarri gehien bazkarian eta bazkalostean izan ziren -oso ondo aurkeztutako bazkaria, bestalde-. Horieta bat izan zen **Susana Izak** mikrofonoa eskuan hartu eta berak idatzitako bertsoak abestu zizkionean Pellori. **Jesus Kortabarria Kaxeta** eta **Eñaut Uriarte** ere ez ziren atzean geratu euren bertsoekin.

Bergararez gain, inguruko herrietan ere lagun ugari ditu Pellok, eta, beste batzuen artean, Sumofic etxeko nagusi **Antonio Martinez** egon zen bazkarian; baita oparia ekarri ere Pelloren-dako. Izan ere, talde, elkarte eta norbanakoen opari asko jaso zituen bazkalondoan, 20tik gora, guztiak ala guztiak Pellok egingandako lan guztia eskertze aldera.


Pellok ere, Arantxa emaztea ondoan zuela, mikrofonoa hartzean, esker hitzak izan zituen guztiendako.




Ibon Garitanok eman zion Aritzetaoren oroigarria Udal Musika Bandaren emanaldian.



Realeko kamiseta jantzita Gipuzkoako Federazioaren himnoa abestu zuten tripleek.



Poteoan lepoko zapi eta guzti.



Jesus Kortabarria Kaxeta bertsoetan.



Urteetako laguntasunaren ordaina izan ziren Susana Izak egin eta abestutako bertsoak.




500 pertsona batu ziren bazkarian. Antolakuntza bikaina izan zen.



Arantxak ere jaso zuen oparia, lore sorta ederra Pelloren eskutik. Gerritik eutsita agurtu zituzten bazkarikoak.



Barruso alkateak eta Minguez zinegotziak eman zitoten Udaleko oroigarria.



Maillot horia Tourreko lagunaren partetik.



Ezkontzetan bezala, Pellok eta Arantxak bals batekin ireki zuten dantzaldia.



Dantzarako arrimatzea komeni da.



DJ Angiek eta Julen Narbaizak oso ondo aukeratu zuten dantzarako musika.

ARGAZKIAK: HILARIO AZKARGORTA / JOSETXO ARANTZABAL / IRATI AGIRREAZALDEGI / JOSE ANTONIO APERRIBAI

Antolatzaileen partetik,
ESKERRIK ASKO!
Pelloren egunean lagundu
eta parte hartu duzuen guztioi.

Luis Fernando Mendibil > Lamiategi elkarteko kidea

"Lamiategi elkarteko kaltetuok AHTren trazatua hegoaldera eroatea eskatzen dugu"


MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Luis Fernando Mendibil AHTk afektatuetako bat da eta Lamiategi elkarteko kidea. AHTk Angiozarko bailaran eragingo dituen kalteen harira sortutako elkarte da. Mendibilek azaldu ditu taldearen helburu eta asmoak.

Zer da Lamiategi elkarte eta nortzuek osatzen duzue?

AHTgatik kaltetutako Angiozar bailarako hainbat bizilagun eta lurjabe osatzen dugu. Hain justu, Bergara-Bergara tarteko kaltetu guztiak gaude elkartean eta Bergara-Antzuola tarteko Bergarakoak. Gutxi gorabehera, San Kristobal auzoan hasi eta handik beherakoak dira horiek guztiak. Horrekin batera, trenbide-begistako -Angiozar auzoko- hainbat kaltetu ere elkartean daude. Eta tarte horretako beste hainbat ere batzarra egitekoak dira elkartean sartu ala ez erabakitzeak.

2008ko ekainean hasi ginen batzartzen. Zundaketak egin behar zituztela esanez etorri zitzaizkigunean. Izan ere, pentsatu genuen proiektua egiten zebiltzan unetik eutsi behar geniola gaiari, jakin egin behar genuela proiektua nolakoa zen, ingurua defendatzeko. Horren haritik, gure helburuak dira: AHTren kaltetuei laguntzea; lanak ahalik eta modu iraunkorrean egin daitezkeen bultzatzea, eta azpiegiturak zonaren ingurumen baldin-



Luis Fernando Mendibil.

MONIKA BELASTEGI

"Trazatu berri honek kalte askoz handiagoa eragingo dio Angiozarko bailarari"

tzetan izan dezakeen eragina txikitzen saiatzea.

Eta gaur egun nagusia da trazatua hegoalderantz mugitzen saiatzea. Horrekin batera eskatzen dugu kontuan har ditzatela kotak, azpiegituraren ardatz nagusiak lur azpian gera daitezkeen, bai tunel naturalen bitartez, bai artifizialen bitartez, Angiozar auzoan. Era berean, nahi dugu AHTk berarekin dakartzen bestelako

zerbitzuak -heliportua, bideak, hondakindegia...- ez daitezela egin erein daitezkeen lurretan, baizik eta egin daitezela horren emankorrrak ez diren, eta jendea bizi den gunetatik urrunago.

Izan ere, trazatua aldatu egin da eta ez zaudete konforme.

Bai. 2008ko azaro edo abendu aldera jakin genuen hori. 2008ko apirilean Adifek bidali zuen Udalera AHTren trazatuaren oinarritzko txostena eta Udala konturatu zen trazatua zatorrela Lurralde Plan Sektorialak agintzen zuen mugetatik kanpo. Hortaz, hainbat alegazioekin batera, hori ere alegazio moduan aurkeztu zuen eta

Adifek egin duena izan da, beste aukera batzuk aztertu ordez, 2000. urteko trazatura bueltatu.

Zein dira ezberdintasunak?

Iparralderago doa trazatu hori, modu horretan errekarantz eta bailararantz gerturatuz; hau da, etxeetara. Angiozarren hasi eta Eduegi baserriraino lehengo trazatuan, batez beste, etxeetatik 100 metrora bazihoan, gaur egungo trazatua doa 30 metrotik 70era bitartean. Bestetik, inpaktu bisuala ere askoz handiagoa da: lehengo trazatuan ia tren guztia estalita zihon, baina erreka aldera gerturatzean, Angiozarren hasi eta zabortegiko zubibideraino agerian joango da -hor tunel artifiziala egingo dute-. Bestetik, Eduegi baserriaren ondoan 420 metroko zubi-bidea ere egingo dute.

Inpaktu bisualaz gain, zarata ere kontuan izan behar da, eta erreka ekosistemari ere kalte handiagoa egingo dio.

Ze urrats eman dituzue?

Desjabetzeak hastear dira eta presako kontua da nahiz eta gaia geldiarazteko eskatu dugun. Ahalik eta ate gehien joko dugu. Udal ordezkariekin egon gara, EAJko parlamentari Madrilen Jose Ramon Belokirekin ere batzartu gara, Batzar Orokorretan aurreko astean ere aurkeztu genuen gure kezka, Iñaki Arriolarekin batzartzeko pausuak egin ditugu...

oharrak

JARDUNALDIAK

> **Herriko gazteen egoera aztertuko dute gaztetxean**

Zer nahi dugu gazteok Bergaran? izenburupean jardunaldiak egingo dituzte bihar, 10:00etan hasita, gaztetxean. Bazkaria ere egongo da.

IKASTAROA

> **HABEren 4. mailako ikastaroa Udal Euskaltegian**

Eskolak izango dira martitzen eta eguenean, 18:00-20:30 orduetara. Izena emateko deitu 943 76 44 53 zenbakira edo idatzi hekkbide honetera: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

ASTRONOMIA

> **Behaketa publikoa teleskopioekin bihar San Martin plazan**

Ilatargi astronomia taldeak antolatu du, Aranzadiren eta Udalaren laguntzarekin. 20:00-22:00 bitartean izango da. Ilargiko kraterrak eta Jupiter eta haren sateliteak ikusiko dituzte. San Martin plazak baldintzak ez baditu betetzen -argi gehiegi-, Muni-be plazan egingo dute behaketa.



Mariaren Lagundiko ikasleak Marianum eskolakoekin Amsterdameko kanaletako bat atzean dutela.

MARIAREN LAGUNDIA

HEZKUNTZA > ELKARTRUKEA

Mariaren Lagundiko ikasleak Holandan izan dira

M.B. > BERGARA

Mariaren Lagundia ikastolako 32 ikasle eta bi irakasle Holandan izan dira, Groenio herrian urriaren 10etik 17ra bitartean. Marianum ikastetxearekin elkartru-

kea egitera joan dira eta esperientzia "oso aberasgarria" izan dela aurreratu dute ikastetxetik, bategik, "autonomia" garatu ahal izan dutelako, eta bestetik, Europako kontzientzia.

Hainbat bisitaldi egin eta gastronomia ezagutzeko eskolak ere jaso dituzte. Baita Euskal Herriko jakiak nederlanderrei prestatzeko erakutsi ere. Gainera, hango familien etxeetan eman dute aste hori eta horrek bertako ohiturak ezagutzeko aukera eman die eta baita Holanda modu sakonean ezagutzeko ere.

Marianum ikastetxeko ikasleek apirilean itzuliko diete bisita Mariaren Lagundikoei.

bere ustez



Jon Suinaga

Garai txarrak Euskal Herriarentzat

Azken urteotan gauzak gero eta okerrago daude Euskal Herrian. Demokrazia falta nabarmena eta kezagarria da: alderdien ilegalizazioak, komunikabideak itxita, jendea kartzelan bere ideengatik, adierazpen askatasunaren falta, presoan dispertsioa, torturak komisaldegietan, autodeterminazioa ukatzea, alkatetzak mehatxatuak eta abar luze bat.

Milaka euskaldunek Euskal Herria nazio bat dela sentitu, defendatu eta aldarrikatu dute. Bitartean, alderdi

"Euskaldunok sakabanatuta jarraitzen dugun artean ez ditugu helburuak lortuko"

espainolistek errealitate hori ez dute ikusi nahi eta gatazka politikoa dagoela ukatzen dute. "Dena ETA da" aitzakiarekin euskaldunon eskubideak behin eta berriz zapaltzen dira.

Frente espainolistak txisteratik ateratako Alderdi Legearekin milaka pertsona politikatik kanpo atera ditu haien eskubideak zapaltzen. Lege bidegabe eta lotsagarri horretaz baliatuz, PSOE eta PPK, hauteskunde antidemokratikoei ezker, Ajuria Enean sartu dira, azken urteotan lortutakoa desegiten eta giroa endredatzen.

Garbi dago euskaldunok sakabanatuta jarraitzen dugun artean, sekula ez ditugula gure helburuak lortuko; baina elkartzen garen egunean inor ez da gai izango gu gelditzeko. Gure eskuetan dago.

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

MARGOAK > 'PANOPTIK.COM'

Joxan Izaren erakusketa Aroztegin

Panpina 'elektrikoak' eta azken bi urteotan egindako koadroak erakutsiko ditu Joxan Izak

Erakusketa gaur arratsaldean zabalduko du eta azaroaren 8ra arte izango da zabalik

EDU MENDIBIL > BERGARA

Eguaztenean, Amillagako estudioan lanean zebilela, hitz egin genuen Joxan Izarekin. Gaur Aroztegin zabalduko duen erakusketa prestatzen ziharduena; hain zuzen ere, sei metroko koadro bati azken ukituak ematen: "Asmatu ezinda nengoen koadro honekin. Posizioa aldatu eta orduantxe geratu naiz konforme", dio Oñatin bizi den margolari bergararrak. Aipatutako koadroak ez du, oraingoz, izenbururik, baina Berlin hiriarri eskainitakoa dela aurreratzen digu: "Asko erakartzen nau Berlinetik, II. Mundu Gerran erabat txikituta izan zelako eta ezereze-

tik sortutako erreferente bilakatu delako gaur egun. Philip Kerr idazlearen *Berlin Noir* tetralogia irakurri berri dut eta horretan oinarritutako zerbait egin nahi nuen, II. Mundu Gerrako garai haiek guztiz erakargarriak direlako niretako".

Esan bezala, *panoptik.com* izenburuko erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitzea, Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Alde batetik, Parisen zegoela, 1985ean egiten hasi zen panpina *elektrikoak* erakutsiko ditu. Hain zuzen ere, 1985etik 1999ra egindako hamar bat panpina ikusgai egongo dira. "Nolabaiteko bukaera eman nahi diot etapa hari eta, ziu-



Joxan Iza.

GORKA SALMERON

rrenik, azken aldiz erakutsiko ditut panpinok. Tamaina ezberdinetakoak dira".

IKUSI ETA IKUSIA EZ IZAN

Era berean, formatu panoramikoko dozena erdi bat koadro izango dira erakusketan eta beste 20 bat tamaina txikiagokoak. "Formatu panoramikokoak zelanbait lotu nahi izan ditut, rapsodia bat balitz bezala". Elementu ezberdinak batzen ditu aipatutako koadroetan eta jolaserako duen nahia

agerian geratzen da izenburuetako bati erreparatuta: *Neobaserrri en Central Park*.

Erakusketaren filosofia honakoa litzateke: "Ikusi eta aldi berean ikusia ez izan; gaurko gizartean horrenbeste zaintza-kamerarekin gertatzen dena, hain zuzen". Izaren lan egiteko modua ere eza-gutzeko aukera izango da, Asier Altuna *Kixi* haren lehengusuak filmatutako bideoari esker. Erakusketa azaroaren 8ra arte izango da zabalik.

> MUSIKA

Txistua, organoa eta bertsuak San Pedron, zapatuan

Organo erromantiko zikloaren barruan, emanaldi bitxia izango da bihar, zapatua, San Pedro parrokian. Aitor Olea organo joleak, Jose Ignazio Ansorena txistulariak eta Andoni Egaña bertsolariak jardungo dute elkarrekin, eta Mokoroa, Vivaldi, Saint Saens eta beste egile askoren piezak interpretatuko dituzte.

Kontzertua San Pedro parrokian izango da bihar, 20:00etan, eta sarrera doanekoa izango da.

> LEHIAKETA

Film laburrak: azken egunak lanak jasotzeko

Bergarako Udalak film laburren lehiaketaren laugarren ekitaldia deitu du.

Debagoienean bizi den edozeinek har dezake parte lehiaketan. Irabazleak 400 euro jasoko ditu eta 300 euro bigarren saria eskuratzen duenak. Era berean, 150 euro izango dira bergarar onenarentako.

Lanak jasotzeko epea azaroaren 2ra arte dago zabalik. Argibideak: 943 77 91 58.

**BERRITU EGIN DUGU
GURE DENDA,
ZUGANDIK
HURBILAGO IZATEKO!**

Zatoz une gozo
bat igarotzera

Aprobetxatu gure
irekiera-eskaintza!

LG hauetako bat hartzen baduzu,
esku libreko bat doan



LG KP 500
0€^{-an}

LG GM310
0€^{-an}

opari!
LG HFB500

Bluetooth esku libreko
kita, eguzki-argiaren
bidez kargatzekoa

Sustapen honek 09/10/30a baino lehen egindako kontratazioentzat balio du. Unika 30 Tarifa duen mugikorr-linea berri bat kontratatzen duten Euskaltel Hautaketaren eta Leiharen bezeroentzat balio du mugikorraren PSPak 18 hilabete irauteko konpromisoa. Mugua: 20 ale.

Ibargarai, 20, Bergara
943 76 94 58



ESKUBALOIA > LEHEN LURRALDEKO TXAPELKETA

Bergarak bi partidu jokatuko ditu etxean, behingoz esnatzeko

Mahoneroek emaitza ona behar dute denboraldi-aurrean izandako sentsazio onak errekuiperatzeko

X.U. > BERGARA

Bergarako mutilei ez zaie goizetik gauera eskubaloian jokatzea ahaztu. Ligako laugarren partidua jokatuko dute bihar eguerdian (12:15, Labegaraieta) eta oraindik ez dute partidurik irabazi. Martxa horretan, badi-rudi iaz izandako liga hasiera makalaren bide bera jarraituko dutela aurtan ere, nahiz eta gero denboraldia izugarri ondo amaitu -Kopako txapelkun.

Bihar, Soraluze BKEren antzera dabilen Amenabar taldea izango da Labegaraietan, baina hurrengo astean ere mahoneroek etxean jokatuko dute. Eta, Josetxo Muniategik badaki bi partidu horiek taldea

esnatzeko erabili behar dituztela: "Konfiantza da taldeak behar duena, emaitza on bat. Horretarako, defentsako lana hobetu egin behar dugu, taldea motel dabilelako. Iaz baloi mor-doa errekuiperatzen genituen: baloiak lapurtu, kontrarioa baloia galtzera behartu... Aurtan, baina, kontrarioen eraso jokaldiak oso luzeak dira, eta ez dugu kontraerasoan irtetea asmatzen, ez ditugu hamar segundo irauten duten eraso jokaldiak egiten. Eta guk hor egiten dugu min".

ZARAUZK ALDAKETA ASKO

Biharko kontrarioa ez da izakoa bezain indartsua: "Iaz Zarauzkek aurreko postuetan amaitu zuen, baina aurtan aldaketa handiak izan dituzte, eta aldaketa horiek barneratzeko denbora behar izaten da". Ligako lehenengo bi partidua galdutako egin dituzte, baina joan den astean ondo irabazi zioten Egia-ri (35-29).



Patxi Ugalde, aurtengo udan ateratako erretratuan, ur lasterretan.

J.U.

PIRAGUISMOA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Patxi Ugaldek zilarrezko domina jantzi zuen Irunen, kadete mailan

Beti Bustiko ordezkariak lan ederra egin zuten gazte eta kadete mailako kategoriatan

XABIER URTZELAI > BERGARA

Patxi Ugaldek zilarrezko domina irabazi zuen domekan Gipuzkoako piraguismo txapelketan, Irunen. Ur lasterretako txapelketa izan zen, baina, piraguekin ondo ibiltzeko komeni dena baino ur gutxiago zegoenez, piraguis-tek normalean baino trebezia handiagoa erakutsi behar izan zuten lanak burutzeko.

Kadete mailan piraguis-tek bakarri ibili zen Bergarakoak baino hobeto, Xabier Jauregi. Ugalde kadetea da, baina gazte mailako eta senior mailako hainbat piraguis-tek baino denbora hobea egin zuen. Hala ere, Jauregiren kontra ezer gutxi egin ahal da, donostiarra bigarren geratu zen-

eta sailkapen orokorrean, eta 16 urte baino ez ditu. Ugalde ez zen Beti Bustiren ordezkari bakarra izan, Iñaki Usabiagak eta Aritz Gimbertek ere uretara egin zuten-eta salto. Bi haiek ere pozik egoteko moduko lana egin zuten, bosgarren eta seigarren postuetan sailkatu ziren-eta; gainera, aurrerapen handiak egin dituztela erakutsi zuten.

GAZTE MAILAN, JOSU MENTXAKA

Gazte mailan Beti Bustiko Josu Mentxaka lehiatu zen. Lan azpimarragarria egin zuen Mentxakak, Bergarakoak laugarren sailkatu zen eta haren aurretik daudenak Espainiako selekzioarekin lehiatzen dira.

Domekan egin zuten txapelketa udaberri amaieran egin behar zuten, baina orduko euriteek erabat apurtu zuten Bidasoako ibaian dagoen piraguismo zirkuitua, eta piraguis-tek urte erdi itxaron behar izan dute txapelketa jokatu ahal izateko.

Bergarako piraguis-tek azaroan izango dute hurrengo hitzordua, Euskadiko Txapelketan. Proba hori ere lehenago egin behar zuten, baina lehiarako baldintza txarrak zituztelako antolatzaileek atzeratzea erabaki zuten.

Azaroan, baita ere, eskola arteko txapelketa egingo dute Bergaran. Aipatzekoa da txapelketa horretan hainbat neskak hartuko dutela esku, kirol horretan buru-belarri murgildu dira-eta. Ikusteko dago Labegaraietan edo Bideberrin egingo duten, Deba ibaiaren baldintzen arabera.

SASKIBALOIA > GIPUZKOAKO SENIORRAK

Santo Tomas Lizeoaren bisita bihar Labegaraietan

X.U. > BERGARA

Soraluze BKEko lehenengo taldeak puntu kopuru bera duen Santo Tomas Lizeoaren kontra jokatu du bihar, zapatua, Labegaraietako kantxan (16:00).

Joan den astean puntu bateko aldeagatik galdu zuten Oiarzunen (75-74), eta oraingo asteburuan ez dute horrelakorik nahi, are eta gutxiago sailkapenean parean dagoen beste talde baten kontra, eta gainera, etxean jokatu.

BIGARREN TALDEAK, DERBIA

Soraluze BKE B taldeak, ostera, bigarren derbia jokatu du jarraian, oraingoan Aloña Mendikoen kontra, Zubikoan (Zapatua, 16:00). Mahoneroendako ligako lehenengo porrota izan zen, baina ondoko herrikoen kontra izateak min egingo zuen. Bergarari laugarren laurdenean joan zitzaion partidua, lehenengo hiru laurdenetan parean ibili zirelako bi taldeak, nahiz eta emaitzak horrelakorik ez erakutsi (35-56).

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



BERGARAKO ZIKLOTURISTA TALDEA

Denboraldiari agur esateko

Domekan egingo dute Bergarako zikloturistek urteko azken irteera: Dorletako Ama Birjinari eskerrak ematera joango dira, 09:00etan.

Bestalde, hilaren 21ean egingo dute batzar orokorra Zuloako elkartearen (19:30), eta ondoren afaria egingo dute Torrekuan. Izena emateko deitu 943 76 39 11 zenbakira (Jesus Olabarria).

HIRIGINTZA > EKITALDIA

Lehenengo 40 etxebizitza tasatuen giltzak banatu dituzte asteon

Bruesa eraikuntza enpresak egin ditu eta Galartzako bidearen alboan dauden bi blokeetako etxeak dira; beste 192 geratzen dira bukatzeko

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Asteon banatu dituzte Deba ibaiaren beste aldean egiten dabiltzan hainbat etxebizitza tasatutako giltzak. Atzo egin zuten ekitaldi ofiziala eta han elkartu ziren Bruesa Inmobiliaria enpresako zuzendari nagusi Alvaro Bilbao, Inaxio Garro alkatea eta hainbat erosle.

Bilboak onartu zuen luze joan direla lanak eta zalantzak izan dituztela erosleek, baina "enpresak aurrera egin duela". Iragarri zuten datorren urtean beste bi blokeetako etxeak emango dituztela.

Alkateak, berriz, gogorarazi zuten aurreko agintaldiko udalbatzak "ausardiak" hartutako era-



Bruesa enpresako eta Udaleko ordezkariak erosleekin batera, banatutako etxeei begira, atzo eguerdian.

M.A.

baki baten ondorio direla etxeok: "Inon ez zegoen halako izendapenik zuten etxerik; izan ere, Jaurlaritzak ere geroago sortu eta arautu zituen".

232 ETXE, 12 BLOKETAN BANATUTA

Udalak 2004an sinatu zuen hitzarmena Bruesa enpresarekin etxe tasatuak egiteko, 232 guztira. Aretxabaletako eta inguruko herrie-

tako bizilagun askok eman zuten izena orduan eta abenduan zozketa egin zuten. Lanok, baina, uste baino luzeago joan dira eta bien bitartean hainbat erosle

atzeratu ziren; horregatik, beste bi zozketa egin behar izan dituzte: iaz bat eta aurten bestea.

Markole auzoan hasi eta Lausitta kaleraino -Deba ibaiaren beste aldean- joango den auzoak Txarapea izango du izena. Bertan etxe tasatuak izango dira nagusi, 232 guztira 12 bloketan banatuta, eta giltzak banatu dituzten bi blokeak, 40 etxe, Galartzako bidearen alboan daude. Blas Urbizu eta Luis Sesek egin dituzte arkitekto lanak eta, Bruesaren esanetan, "arreta handia jarri dute diseinu lanetan eta material ezin hobeak erabili dituzte". Horren helburua izan da "herriko gainerako eraikuntzekin bat etortzea etxeok". 85 milioi eurotik gora behar izan dute horretarako. Bloke horiek guztiek duplek dituzte hirugarren solairuan, 78 guztira, eta horietako batzuk oraindik salgai daude.

Aipatutakoekin batera bi bizi-tzako beste hainbat etxe egin ditu Bruesak Txarapean eta babes ofizialeko 100 daude egiteko. Horien lanak beste enpresa eraikitzaile baten eskuetan utzi ditu.

OSPAKIZUNA > DANTZAK

XIII. Gastronomía eta Folklore Jaia domekan, plazan

Hainbat erkidegotako jatekoak eta edatekoak izango dira, eta girotzeko, dantzak eta musika

M.A. > ARETXABALETA

Hainbat erkidegotako ohiturak, gastronomia eta kultura ezagutarazteko asmoarekin, Gastronomía eta Folklore jaia egingo dute, domekan (10:30-20:00), Zaria Mendizale taldeak eta Udalak elkarlanean. Antolatzaileek onartu dute aurrekontua murriztu beharrean izan direla, baina "jai giroa ziurtatuta dagoela" esan digute.

ERRIOXAKO JOTA TALDEA

Aurreko urteetan legez, Gaztela eta Leon, Extremadura, Galizia, Errioxa eta Euskal Autonomi Erkidegoa ordezkatzeko dituzten taldeak elkartuko dira. 10:30ean izango da ongietorria, eta gero (11:15), dantza erakustaldiak egingo dituzte herriko hainbat gunetan Galizia etxeko taldeak, Gaztela eta Leongo San

Fernando taldeak eta Aretxabaletako Loramendi Dantza Taldeak. Errioxako Jota taldearen emanaldia, ostera, 12:00etan izango da, plazan.

Eta folkloreaki dagokion ekitaldiak egin bitartean, erkidego bakoitzeko gastronomia dastatzeko aukera izango dute herritarrek: olagarroa, txitxi-burruntziak, urdaiazpikoa, Errioxako ardoa, albariñoa eta beste asko.

XV. PATXARAN LEHIAKETA

Jai giro horretan XV. Patxaran Lehiaketa egingo dute. Lehiaketan parte hartu gura dutenek domekan bertan, 11:00ak eta 14:00ak bitartean, ekarri behar dituzte etxean egindako patxaranak Herriko plazan jarriko duten mahaira. Parte-hartzaile bakoitzari bi botila bakarrik onartuko dizkiote.



Extremadurako txitxi-burruntziak iazko jaietan.

JOSETXO ARANTZABAL

Epaimahaiko kideek 17:00etan dastatuko dituzte aurkeztutako patxaranak, eta sari banaketa 17:45ean egingo dute. Aranekin egindako patxaranaz gain, botilaren orijinaltasuna ere kontuan hartuko dute.

Patxaran onenak egin dituzten lehenengo hirurei garaikorra eta diru-saria emango dizkiete. Eta saria irabazitako patxaranak enkantean banatuko dituzte, hau da, diru proposamen onena egiten duenaren izango dira hiru botilak. Gainerako patxaranak herritarrei eskainiko dizkiete proba ditzaten.

> ZINEMA

'Gran Torino' eta 'La Pantera Rosa 2' filmak, aste bukaeran

Astean iritsi da zinema berriro Arkupera, uda partean oportetean egon eta gero. Eta film ezagunak izango ditugu bukatzeaz dagoen hilabetean. Helduendako, zuzendari eta aktore lanak egin dituen Clint Eastwooden *Gran Torino* dago gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) -4 euro- eta astelehenean (16:00) -2 euro-. Umeek, ostera, *La Pantera Rosa 2* dute etzi (17:00) -3 euro.

Eta eguenean (19:30), zine klubaren barruan, *Lejos de la tierra quemada* eskainiko dute -4 euro.

Iber

Lotería
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

HEZKUNTZA > IKASTAROA

Gurasoendako tailerrerako izenemate epea, bukatzeaz

Azaroko lau martitzenetan izango dira saioak Loredi Salegi adituak bideratuta

M.A. > ARETXABALETA

Urriaren 30ean bukatuko da gurasoendako tailerrerako izenemate epea. Interesa dutenek eskuorria bete behar dute eta udalaletxera edo kultura etxera eroan.

Prebentzio Zerbitzuak eta Gazteria Sailak antolatu dute ikastaroa. Iaz egin zuten lehenengo, eta, gurasoek interes handia erakutsi zuten, errepikatzea erabaki dute. Oraingoan, *Arduraz hezi* izena jarri

diote ikastaroari eta lau saio egingo dituzte azaroan; lau martitzenetan, hain zuzen (18:00-19:30), Arkupe kultura etxean.

GURASO ARTEKO HAUSNARKETA

Iaz legez, Loredi Salegi gizarte langile eta hezitzailea izango da saioak bideratu eta gurasoen kezkek entzungo dituena. Helburua da seme-alaben heziketan dituzten zailtasun eta erantzukizunen gainean hausnartzea, beste guraso batzuekin egoerak aztertzea eta konponbideetarako tresna egokiak eskuratzea.

Ikastaroan 30 lagunendako daukate lekua eta gaiak talde txikitan landuko dituzte. Hainbat azalpen eman ostean gurasoen arteko elkarrizketa bideratuko du Salegik.



Xake eskolako ikasleak lanean Aitor Alcaide irakaslea alboan dutela, astelehen arratsaldean.

M.A.

OSASUNA > ODOL ATERATZEA

Urriko hiru egunetan, 111 herritarrek eman dute odola

Horietatik bakarra izan da lehen aldiz odola ematera joan dena; gainerakoak, ohikoak

M.A. > ARETXABALETA

Arabako Odol Bankuko ordezkariak gurean izan dira urriaren hiru egunetan. Herritarren borondateari dei eginez, odola ateratzera etorri dira, eta 123 aretxabaletarrek erantzun diote dei horri. Odola ematera joandakoei frogatxo egiten diete erizainek, eman dezaketen edo ez jakiteko, eta osasun etxera joandako 123 horietatik 12k ezin izan dute eman, hainbat arrazoiengatik.

Hala, bada, 111 lagunek eman dute odola gurean: hilaren 2an, 37k; hilaren 9an, 35k;

eta hilaren 14an, 39k. Horien artean bakarra izan da lehen aldiz joandakoa; gainerakoak ohikoak izan dira.

OHIKO KOPURUAK

Kopuru horiek "normaltzat" jo ditu Aretxabaletako ordezkari Ramon Erañak. Odol emailen elkarteak emaile berrien bila dabilta azken hilabeteotan eta batez ere gazteak animatzea gura dute, "gutxien ematen dutenak direlako".

Hiru hilabete barru etorriko dira berriro Arabako Odol Bankuko ordezkariak gurera.

oharrak

GAZTEAK

> **'Korto express' aste bukaeran**
Atxagazte gaztelekuan film laburrak egingo dituzte aste bukaeran gazteek, kamera txiki batekin.

GAZTEAK

> **Surf egitera Zarautzera**

Zarautzera irteera antolatu du gaztelekuak urriaren 31rako. Surf egitea da helburua eta izena aurrez eman behar dute interesatuek gaztelekuan.

KINTOAK

> **1957an jaiotakoak Karrantzara egun-pasa**

Bizkai aldera joango dira 1957an jaiotako kintoak azaroaren 7an. Izena eman behar

dute aurrez Haizea tabernan 30 euro ordainduta. Azken eguna, azaroak 1.

ERRETIRATUAK

> **Donostiara joateko txartelak azaro hasieran salduko dituzte**

Donostiako Kutxaespazioa ikustera joango dira Basotxo-ko erretiratuak azaroaren 12an. Txartelak azaroaren 2an eta 3an salduko dituzte Basotxon (11:00-12:00).

ERRETIRATUAK

> **Abesbatzaren entsegua**

Basotxo erretiratuaren elkarreko abesbatzak entsegua dauka eguaztenean, hilak 28, Basotxon (18:00). Hamabost egunetan behin elkartzeko dira.

KIROLAK > XAKEA

Xake Eskola hasita dago lanean eta astelehenetan elkartzeko dira kideak

Aitor Alcaide irakaslea Sestaoko eta Arrasateko txapelketak jokatzeko dabil asteotan, eta Gipuzkoakoa hasiko du bihar, zapatua

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Astelehenetan elkartzeko da Aretxabaletako Xake Eskola Iralabarriz plazan -5. atartearen alboan duen lokalean (18:00-20:00). Aitor Alcaide xake jokalariek iaz abian jarritako eskolak gero eta ikasle gehiago ditu eta aurten 12 bat lagun elkartzeko dira. Herritarren batek interesa izanez gero, jo dezala bertara.

Xakean jokatzeko ikasi eta ondo pasatzea dute helburu ikasleek. Gaztetxoek 8 urte dituzte eta oinarriko jokaldiak ikasten dabilta. Gainerakoek, ostera, jokaldi korapilatsuagoak eta estrategia kontuak gurago dituzte, gero elkarren aurka jokatzeko partidak. Eta, poliki-poliki, txapelketetara joaten hasiko dira nagusienak.

BEDERATZIGARREN POSTUAN

Aitor Alcaide, ostera, hainbat txapelketa jokatzeko dabil asteotan. Batetik, Arrasate Hiria txapelketa dago, Arlutz xake taldean kide dituen Fran eta Andoni Miguel eta Mikel Alcaide bezalaxe. Saillkapen nagusian bederatzigarren postuan dago -Fran Miguel, bosgarren- eta Roberto Villar izango du aurkari gaur.

Bestetik, Holden Hernandez kubatarra nagusitu zen Sestaoko txapelketa jokatu zuen joan den aste bukaeran eta 19. sailkatu zen. Eta bihar, Gipuzkoako txapelketa hasiko du Zarautzen.

ELKARTASUNA > JAIALDIA

Bertso afaria egingo du Hiruatxek azaroaren 6an, eta txartelak dagoeneko salgai daude

Muru Alde elkartearen izango da afaria eta txartelak Gurean eta Arlutzen dituzte

M.A. > ARETXABALETA

Proiektu berria darabil esku artean Hiruatx gobernuz kanpoko elkarteak eta herritarrei horren berri emateko jaialdia egingo du azaroaren 6an. Aurkezpen ekitaldia izango da lehenengo eta bertso afaria gero, Muru Alde elkar-

tean. Jon Maia eta Jokin Labaien bertsolariak giroa dute afalordua eta 50 lagunendako lekua izango da. Txartelak dagoeneko salgai daude Gurea eta Arlutz tabernetan, 25 euroren truke.

ORAIN, EKUADORREN

Azken urteotan Ekuatore Ginean (Afrika) egindako proiektua bukatutzat eman du Hiruatxek -nahiz eta Mundukidek jarraitu- eta orain Ekuadorren jarriko du abian beste proiektu bat. Salinas eskualdeko perretxiko ekoizpe-

nari laguntzea du helburu. Horren guztiaren berri emateko antolatu dute jaialditxoak datorren azaroaren 6rako, egubakoitza. Jaiki elkartearen musika eta dantza lagun dituztela hasiko dute ekitaldia (20:00) kalejira eginaz Durana kalean. Udaletxe aurrea iritsitakoan Ekuadorko proiektuaren aurkezpena egingo dute Hiruatxeko kideek eta aurrea eroateko laguntza eskatuko diete herritarrei. Ondoren Muru Alde elkartera joko dute afaltzera, bertsolariak lagun dituztela.

DEBAGOIENEN ERRONKAK

■ FINANTZA ERAKUNDEAK

Autoenplegua sortzeko konpromisoa krisi garaian

ARANTZAZU EZKIBEL

Krisi garaian, enpleguarekin duten konpromisoa sendotu egiten dute finantza erakundeek. Langabeziak gora egiten du; hortaz, enplegua sortzea da helburu nagusia. Euskadiko Kutxak Gaztempresa fundazioaren bitartez egiten du lan hori.

Finantza erakunde indartsuen laguntza ezinbestekoa da krisiari aurre egiteko. Besteak beste, gizarte proiektuetan inbertitzen dute dirua finantza erakunde gutxi batzuk; horren adibide da Euskadiko Kutxak autoenplegua sortzeko duen Gaztempresa gizarte-proiektua. Orain dela 15 urte baino gehiago abiatu zuten proiektua, gazte ekintzaileen asmoen laguntzeko.

"Krisi garaian langabe kopuruak gora egiten du; hortaz, garrantzitsua da enplegua sortzea. Garai hauek aproposak dira autoenplegua sortu edo martxan jartzeko", dio Marije Etxanizek, Euskadiko Kutxako Debagoieneko arduradunak.

ENPLEGUA SORTZEN LIDERRA

Euskadiko Kutxaren gizarte proiektua enplegua sortzen liderra izan da azken urteetan. Gaztempresak 2.000 enpresa-jarduerara baino gehiagoren eta ia 4 mila lanposturen sorkuntzan lagundu du. Une zehatz batean ikusten da autoenplegurako programa handinahi horren dimentsioa: ekintzaile berriek hasten dituzten jarduerak EAEko eta Nafarroako ehun ekonomiko eta sozialean duten eragin onuragarriaz oharzen garenean.

Aurtengo datuei begiratuta, 830 eskabide berri izan ditu aurtengo Gaztempresa proiektuak. Horietatik, 230 enpresa berri eta 330 lanpostu berri sortu dira dagoeneko: %13 merkataritza sektorean eta %87 zerbitzuetan. "Konturatu gara proiektu hauek arrakasta handiagoa dutela krisi garaian, orain dela urtebete baino", azaldu du Marije Etxanizek.



Gaztempresa fundazioak 15 urte daramatza lanean.

GOIENKARIA

Hain zuzen, aurtengo bikoiztu egin dira eskabideak. Horren atzean dago egungo krisi egoera.

5,5 MILIOI EURO

Euskadiko Kutxak 5,5 milioi euro finantzatu du enpresa horiek abiarazteko. Modu horretan, kri-

si garaian enpleguarekin duen konpromisoa sendotu du.

Bestalde, enpresei laguntzen jarraitzeko ardurarekin, Gaztempresa fundazioak sarera egin du salto: www.gaztempresa.com webgunearen bitartez. Aipatutako helbidea plataforma bat da, eta

helburu nagusia da autoenplegua sortu dutenen arteko harremanak sendotzea; ez bakarrik dagoeneko enpresak sortu dituzten artean, baita sortzeko bidean direnen artean ere.

Gainera, ekintzaileen arteko harremana bideratzen dute Gaztempresaren bitartez. Elkarrekin biltzeko, kongresuetara joateko, bizipenak elkartrukatzeko... aukerak izaten dituzte ekintzaileek.

PROIEKTUA GARATU ETA FINANTZATU

Gaztempresa fundazioak proiektua garatu eta aurrera eramateko laguntza ematen du. Hau da, norbaitek ideia bat baldin badauka, Euskadiko Kutxara jo beharra besterik ez du. "Garapen Agentziek, Mankomunitateek...

laguntzen dute proiektua garatzen eta baita Gaztempresaren kontsultoriak ere. Proiektua garatutakoan bideragarria den edo ez aztertzen dugu; bideragarria baldin bada eta finantziario beharra baldin badago, ematen dizkiogu maileguak baldintza oso berezitan", azaldu du Etxanizek.

'1.010 AHOLKU' LIBURUA

Gaztempresak bultzatuta eta Javier Fernandez Aguado pentsalari entzutetsuaren parte hartzearekin, azaroaren 4an Bilbon eta azaroaren 5ean Donostian, bi hitzaldi antolatuta dira *1010 aholku ekintzaileentzat* lemapean. Interesatuak, Euskadiko Kutxako sukurtsaletan eska ditzakete argibideak.

Bilboko ezkerrean sortu zen proiektua

Gaztempresak 15 urte bete ditu dagoeneko. Hasierak ikusteko 1994. urtera joan behar dugu. Urte hartan, gure herrialdea industria-krisian zegoen, eta Bizkaiko Ezkerrean eskualdeko Euskadiko Kutxako kooperatibista-talde batek, langabeziak gazteengan zuen eragin handiarekin kezkatuta, gazteentzako autoenplegu-programa bat sustatzea erabaki zuen; Gaztempresa izena jarri zioten programari. Zortzi urte beranduago, Gaztempresa Fundazio izatera pasa zen. Horretarako Eusko Jaurlaritzako enplegu eta gizarte gaietarako sailaren laguntza jaso zuten eta baita Mondragon kooperatiba-taldearena ere.



Gero eta gehiago dira gure ibarrean Lanbide Heziketa aukeratzen dutenak etorkizuneko lan irtenbide moduan.

■ LANBIDE HEZIKETAREN ERRONKA DEBAGOIENEAN

Lanbide Heziketa baloratzea eta indartzea helburu

JASONE ZABALA

Hezkuntza proiektuak Debagoieneko beste erronketa-ko batzuk dira; horren harira, lan munduari begira Lanbide Heziketa da momentu honetan gure ibarrean erronka nagusia. Ingaruko herriak Lanbide Heziketako hezkuntzan buru-belarri murgildurik daude.

Zorionez, Debagoiengan Lanbide Heziketako sarea nahiko handia da. Bere garaian egon zen bilakaera industrialaren eskutik, Arrasateko Eskola Politeknikoa sortu zen, eta geroago, haren inguruan, Miguel Altuna GLHBI Bergaran, Aretxabaletan Lanbide Eskola eta Oñatiko Zuazola-Larraña Institutua.

Aretxabaletako institutuko zuzendari Amaia Arantzabalek zera adierazi du: "dirudienez,

Europako beste lurraldeetan bezala, konturatzen ari gara Lanbide Heziketa ikastea aukera ona dela lana topatzeko".

LOGSErekin Lanbide Heziketan zikloak sortu ziren eta LHko sailburuordetzak eman zien bultzadarekin, azken hamarkada honetan oso one onak bizi izan ditugu, eta, etorkizunerako, enpresekin batera lan eginez, hau da, euren prestakuntza beharren diagnostikoa egin ondoren, enpresen neurri diseina daiteke prestakuntza. Ildo horretatik joan behar du etorkizuneko Lanbide Heziketak. Enpresekin dituzten loturak estutu egin behar dituzte eta enpresek eta ikastetxeek batera aurrera egin behar dute.

Aretxabaletako Lanbide Eskola da Debagoieneko Lanbide Heziketa munduan adibideetako bat. Ikasturte honetan bere irudi korporatiboa aldatu egin

du. Aldaketa hori ikastetxean azken urte hauetan gertatu diren aldaketekin lotuta dago. 2006an, EFQMren (Europako Bikaintasuna) zilarrezko Q-a lortu ondoren, Goi Mailako Zentro Integral bihurtu zen.

**Krisi garaian,
Lanbide Heziketa
ikastetxe guztiak
ikaslez beteta
daude**

**Lanbide
Heziketak
enpresekin dituen
loturak estutu
egin behar ditu**

Horrek esan nahi du hasierako prestakuntza, langile eta langabeendako prestakuntza ematen dituela. "Talde multzo horri formazioa ematen egoteak ikastetxea goizeko zortzietatik gaueko bederatziak arte irekita

**Zorionez,
Debagoieneko
Lanbide
Heziketako sarea
nahiko handia da**

**Erakusleihoa egin
zen, langabeen
formazio bidea
zabaltzeko
helburuarekin**

egotea dakar", adierazi digu Amaia Arantzabal zuzendariak. Azken urte hauetan asko nabaritu da ikasle kopuruaren igoera arlo guztietan; adibidez, ikasturte honetan, hasierako prestakuntzan (goizeko gazteak) matrikulazioa %20 igo da eta beste mota batzuetako prestakuntzetan ere igoera hori nabaritzen ari da, Arantzabalek adierazi digunaren arabera. Joan den urtean, hobetzeko ikastarotetan 364 pertsona ibili ziren eta okupazionalako ikastarotetan 32 izan ziren.

IBARREKO ENPRESEI BEGIRA

Aretxabaletako Lanbide Eskolako ikasketak Debagoieneko enpresetara begira egon dira beti; horregatik, familia industrialetako erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen dituzte: mekanizazioa, soldadura eta galdaragintza, automozioa, fundizio eta pulbimetalurgia eta metal erakuntzak; eta nahiz eta industria ez izan, oso interesgarria den gure bailararako Erizaintzako zaintza osagarriak ere eskaintzen dituzte bertan.

Ikasketa horiek aldaketa handiak ekarri dituzte ikastetxe kudeaketan. Bi tailer berri erai ki dituzte azken hiru urteotan, soldatzekoa eta metal erakuntzetakoa eta karrozeriakoa lehendik zegoen automozio tailerraren ondoan. Mekanizatuko instalazioak, nahiz eta zaharragoak izan, guztiz berri dira.

EROSI BEHARREKO MAKINERIA

Tailerrak egin ondoren, ekipatu egin behar dira. Erositako azken makinaren artean, soldaturako ABB erroberta eta plasmaren bitartez mozteko mahaia daude. Biak metal erakuntza tailerrendako dira eta laster izango



GOIENKARIA

AMAIA ARANTZABAL / EFPS ARETXABALETA LANBIDE ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Konturatzen ari gara Lanbide Heziketa ikastea aukera ona dela lana topatzeko"

JASONE ZABALA

Amaia Arantzabal da Aretxabaleta Lanbide Heziketa Eskolako zuzendaria 2005a ezker. Urte hauetan guztietan Lanbide Heziketa munduak aldaketa batzuk izan ditu, eta horri buruz eta hezkuntza proiektuen gainean hitz egin dugu Arantzabalekin.

Aretxabaleta Lanbide Eskolak izan duen bilakaera nola baloratzen duzu?

Azken 30 urteotan Aretxabaleta Lanbide Eskolak (ALE) bilakera handia izan du. Hasieran, Lanbide Heziketa ematen hasi zen, geroago REM ematea ere egokitu zitzaion. 1998an Arrasateko Institutuarekin batu zen; baina, ISO 9001 eta zilarrezko Q-a ateratu ondoren, desfusioa etorri zen berriz, eta ikastetxe integratua izatea lortu zuen. Gaur egun, Lanbide Heziketako prestakuntza ikastetxea da eta pertsonak prestatzen ditugu lan munduari begira.


Nolakoa da Lanbide Heziketaren osasuna? Krisiak izan du eraginik?

Bai, krisiak eragina izan du. Azken bi urte hauetan jende askoz gehiago hurbildu da ikastetxetik ikastaro desberdinei buruzko informazio eske. Langile eta langabeendako eskaintzen ditugun ikastaroei dagokienez, ia beteta daude eta goizetik eskaintzen dugun hasierako prestakuntzak ere erantzun handia izan du.

Dirudienez, Europako beste lurralde batzuetan moduan, konturatzen ari gara Lanbide Heziketa ikastea aukera ona dela lana topatzeko.

Lantegietan egiten diren praktikek ere garrantzia izango dute, ezta?

Ikasleen praktikak beste ikasgai bat dira teknikari titulua lortzeko; horregatik dira hain garrantzitsuak. Enprekin duten lehen kontaktua da eta bertan, ikastetxean ikasitakoa praktikan jartzen dute eta, gainera, jarrazko beste gaitasunak ikasteko aukera dute. Enpresak langile gazte baten ahalmenak eta gaitasunak ikus ditzake; eta haren lan egiteko era gus-tatzen bazaie, kontratatzeko aukera dute. Edozein kasutan, ezinbestekoa da ikasleendako praktikak egitea, bestela ez lukete-eta titulu-



Amaia Arantzabal (eskumatik bigarrena), beste kide batzuekin.

GOIENKARIA

rik lortuko. Hori enpresek jakin behar dute.

Zer hobetu duzue eta zer falta da hobetzeko?

Aretxabaleta Lanbide Eskolan gauza asko hobetu dira azken 10 urte hauetan. Aldaketa nabarmenenak tailer berriak dira, baina ekipamendu aldetik ere hobekuntza asko egin ditugu. Irakaskuntzan teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen ditugu eta orain, ziklo berriekin, gauza gehiago aldatuko dira. Poliki-poliki azpiegiturak hobetzen ari gara, baina oraindik badaude hobetzeko gauzak: ikasgela berriak egin behar ditugu, igogailuaren beharra, ekipamenduak hobetu...

Dirulaguntzak edukitzea ere garrantzitsua izango da.

Bai, dirulaguntzak ikastetxe publikoetarako oso garrantzitsuak dira, funtzionamendu gastuetarako jasotzen dugun dirua baino gehiago gastatzen dugu-eta. Baina, normalean, ez dugu dirulaguntzarik jasotzen, lortzen dugun dirua ikastetxeak egiten duen lanarengatik da. Hobetuz-eko eta okupazionalako ikastaroak ematen. Azken urtean karrozeria tailerra egiteko Aretxabaleta Udalarena eta Euskadiko Kutxarena, eta esker-rrak eman nahi dizkiegu.

Eta zein etorkizun ikusten diozu Lanbide Heziketari?

Inoiz baino gehiago, gure gazteen prestakuntza beharra ikusten da. Euskadiko sare industrialak dituen beharrei erantzuna eman behar zaie. LHko ikastetxeek eta enpresek batera lan egin behar dugu.

"LHko ikastetxeek eta enpresek batera lan egin behar dugu"

dituzte bi margotzeko kabina eta beste ekipamendu batzuk karrozeria tailerrarendako.

FORMAZIORAKO AUKERAK GUREAN

Joan den uztaillean, Mankomunitateak Debagoieneko Lanbide Heziketako erakuslelhoa antolatu zuen *Formazioak garrantzia duelako* izenpean.

Langabeziak gora egin duen honetan, langabe horiei formazioaren bidea zabaltzeko helburuarekin egin zuten erakuslelhoa, eta horretarako aukerak eskaini zituzten.

Bertan, ibarreko Lanbide Heziketako ikastetxe guztiek parte hartu zuten: Oñatiko ETEO eta Zuazola-Larraña, Bergarako Mariaren Lagundia eta Miguel Altuna, Arrasateko Arizmendi eta Goi Eskola Politekniko

koa eta Aretxabaleta Lanbide Eskola. Helduen Eskolako ordez-kariak ere egon ziren. Ikastetxe bakoitzak ordu erdiko hitzaldia egin zuen.

Formazioari buruzko aukera asko dituzte eskaintzeko lan munduari bideraturiko institutuek; gai zehatz bateko informazioaz gain, etengabeko formazioaren aukera ere badago eta, kredituak eginez, moduluak osatzeko aukera ere.

Lanbide Heziketari, beraz, lehen ematen ez zitzaion balioa ematen ari zaio orain Debagoienean, eta, krisi uneak gogorrek diren garai hauetan, eskola horiek irtenbide berriak eta erronka berriak eskaini behar dituzte, ikasleendako etorkizuneko lan irtenbideak topatzeko helburuarekin.

ARETXABALETA
Lanbide Eskola

Goi mailako Lanbide Heziketarako Berriak Institutua



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila



ETXEBARRI AUZOA, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955

GOI ETA ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
GOI MAILAKO SARBIDE FROGARAKO PRESTAKUNTZA
LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK
ENPRESEN NEURRIRAKO IKASTAROAK
GAITASUNA EGIAZTATZEKO EGITURA



AP-1 ak erosotasuna bermatu du Debagoieneko gidariendako; horrek ahalbidetzen du Boulevard merkatala gunera ibarreko jende asko joatea.



■ AZPIEGITURAK

AP-1, Araba eta gure ibarra lotzen dituen bide sarea

JASONE ZABALA

AP-1 autobide berriak Arabaren eta Gipuzkoaren arteko lotura erraztu du. Gainera, autobidea zabaldu zutenetik debagoiendarren presentzia areagotu egin da Araba aldean, eta egunero 8.000 automobiletik gora ibiltzen dira Eibar eta Gasteiz lotzen dituen bide sarean.

AP-1 egin eta zabaldu zutenetik Gasteizera joan-etorri gehiago dago Debagoienetik. Oraindik erabiltzaileek euren ohiturak finkatu behar dituzte autobidea erabiltzeko garaian, baina esan daiteke orain arteko balorazioa oso positiboa dela.

Horrekin lotuta, merkataritza-guneetara ibarreko jende gehiago joaten da orain, errazagoa eta erosoagoa delako orain bertara heltzea. Merkataritza-

guneen kasuan, bertara doan debagoiendar kopuruak gora egin du eta hori asko nabaritu dute El Boulevard merkataritza-gunean, adibidez. Patricia Sanz marketin arduradunak ere hala xe adierazi digu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bidegi enpresa publikoko Oscar Rekaldek adierazi digun moduan, "zaila da jakitea autobide berrian zenbat auto dabilzan, tramu

bakoitzean kopurua ezberdina delako, baina batez beste 8.000 autotik gora dabilta".

ZIRKULAZIOA TXIKITU

Joan den ekainean AP-1 autobideko Arabako tartea zabaldu zen, eta denbora tarte honetan, errepide arruntetako zirkulazioa nabarmen txikitu da. Arabako Foru Aldundiaren arabera, Arlaban eta Gatzagako portuetatik

11.000 eta 12.000 gidari pasatzen ziren egunero, hurrenez hurren. Orain berriz, 4.500. Gainontzeko 7.500 gidariak AP-1 autobidea erabiltzen dute eta, bide batez, kontsumoa eta kutsadura txikitu egin dira. Zirkulazioa segurua goa dela dio Diputazioak.

AP-1 autobidearen ustiaketa lanei dagokienez, arduradunak pozik agertu dira izandako emaitzekin, esperotako datuak bete egin dira-eta. Krisiaren eraginez, %15-25 tartean jaitsi da auto kopurua autobideetan; krisi egoerak Araban ez du eraginik izan. Europako hainbat lekutatik Maroko aldera joaten diren bidaiariek igarri dute gehien.

HUTSUNEA BETETZEKO

AP-1 autobideak Gipuzkoan izandako atzerapenak diru galerak eragin dizkio Arabako Foru Aldundiari, baina konpentsazio proposamena Gipuzkoako Foru

Aldundiaren mahai gainean dagoela ere esan dute agintariek. Autobidea 35 urteren buruan finantzatuta egongo dela iragarri dute. Zerbitzuegun bat jartzeko proposamena ere badago. Gutxienezko zerbitzuak eskaintzeaz gain, baliteke hotel bat eta autokarabantzeko aparkaleku bat ere izatea.

Orain arteko emaitzak onak izan badira ere, hutsuneak ere badirela onartu du Arabako Diputazioak. Bide seinaleen arloan, adibidez, badago zer hobetu. Autobidean bertan, Gasteiz-Donostia arteko kilometro distantzia jarri gabe dago, eta Madril zein Burgooserako seinaleak falta dira. Autobidetik kanpo ere, badago zer egin. N-1 errepidean, adibidez, AP-1 autobidera bideratzeko seinaleak behar dira eta Gasteizen, hirian bertan, autobidea seinalatzen duten kartel gutxi daude.

Autobideko zati erabiliena Bergara-Maltzaga tartea da, egunero batez besteko 14.000 ibilgailurekin; bigarren, Bergara-Arrasate (10.000); Eskoriatza-Luku (7.500); Arrasate-Eskoriatza

Arlaban eta Gatzagako portuetatik auto gutxiago pasatzen dira orain

AP-1 autobideak asko lagundu du Debagoiena eta Arabaren arteko loturan

14.000

IBILGAILU

Bidegiren datuen arabera, Bergara A-8 da gehien erabiltzen den AP-1eko tramu: batez beste, egunero 14.000 ibilgailu dabilta. Bigarrena, Bergara-Arrasate da: 10.000 ibilgailu egunero.

%65

IBILGAILU GUTXIAGO

Arabako Foru Aldundiaren arabera, Arlabandik 11.000 eta Gatzagatik 12.000 ibilgailu zebiltzan egunero, eta orain, 4.500; hortaz, batez beste, %65 jaitsi da erabilera.



GOIENKARIA

PATRICIA SANZ ETA ANA LOPEZ / BOULEVARD-EKO MARKETING ARDURADUNA ETA GERENTEA

"Helburua, bide estrategiko bera jarraitzea izango da: erreferentzia gune"

JASONE ZABALA

Ana Lopez da El Boulevard merkataritza-guneko gerente berria; eta Patricia Sanz, berriz, marketing arduraduna. Lopez sartu berria da Gasteizko merkataritza-guneko gerentziara, baina eskarmentu handia dauka, horrelako karguetan ibilia delako. Biekin egon gara El Boulevard-en egoerari buruz hitz egiten eta krisi garai honetan autobideak zein eragin izan duen komentatzen.

Zer ekarri dio AP-1en irekierak El Boulevard merkataritza-guneari?

Aukera handi bat. Autobide berriak bezero berri eta interesgarriak inoiz baino gertuago izatea ekarri du. Gainera, kanpotik datozen bezeroek hiriburutik edo gertuagotik datozen bezeroek baino denbora luzeagoa pasatzen dute bertan. Modu horretan, merkataritza-guneko eskaintzen kontsumoak gora egin du, modari dagokionez, aisialdiari dagokionez eta baita jatetxe zein kafetegiei dagokionez ere. Aipatu behar da jende gehien biltzen duten guneak Leroy Merlin eta Media Markt direla.

Merkataritza-gunearen eskaintza adin guztietako jendeari zuzenduta dago?

El Boulevard-en eskaintza komertziala eta zerbitzua ipar-guneko handiena eta osoena da, eta horrek adin guztietako jendea erakartzen du guregana. Arropa, elektronika, arreta zerbitzua, edoskitze gelak eta kafetegi eta aisialdi gunean aukera asko daude edozeinendako. El Boulevard-era datorrenaren erosoagoa izateko eskumuturreko identifikatzaileak, umeendako aukitxoak jartzen ditugu nahi duenaren erosoago eskuragarri, umetxoek jolasteko guneak eta mugikortasun urria duten pertsonendako aparkalekuak. Horrekin batera, eta merkataritza-gunearen dinamikotasuna mantentzeko, desfileak, ikuskizunak, azokak eta ere egiten dira. Eta nahi duen edonork gure webgunea ere bisita dezake: www.elboulevard.com.

Autobideak eragina izan du merkataritza-gunearen denda gehiago zabalteko eta daudenak indartzeko?

Zaila da esatea faktore erabakigarria izan den edo ez, baina uste dugu El Boulevard-en negozioak ipini dituztenek aukera ezin hobea ikusi dutela; autobideak ahalbidetu duelako, hein handi batean, Debagoiena merkataritza-gunetik gertuago egotea; baina baita Debabarre-



Ana Lopez, gerente berria eskuma aldean.

EL BOULEVARD

neko eta Gipuzkoako beste herri batzuetako jendea ere. Gainera, badakigu gune horietako jende askok merkataritza-guneko denda asko atsegin dituztela eta askotan joaten direla bertara.

Krisi garai hauetan, nola baldintzatu du AP-1ek?

Zaila da hori esatea. Baina, behintzat, krisiak eragindako beherakada horiek ez dira horrenbestekoak izan sektore batzuetan. Datuak alderatuz gero, esan dezakegu AP-1 zabaldu zenetik, pasa den urteko hilabeteekin alderatuz, hiler bertara etorri diren bezero kopuruak gora egin duela.

Autobidea dela-eta Debagoieneko jende gehiago joaten da?

Euskaraz hitz egiten duen jende gehiago dago orain lehen baino. Horrekin batera, euskaraz argitaratutako informazio liburrak ere gehiago erabiltzen dira. Beste adibide bat aipatzearen, udako beherapenetan egin zen kanpainatik, Debagoienetik datorren jendea %15 igo da.

Badago berritasunik El Boulevard merkataritza-guneari buruz?

Urri hasietatik, merkataritza-gunearen seigarren urteurrena prestatzen ari gara. Merkataritza-guneko gerentzia aldatetarik egon dira. Orain, Ana Lopezek du kargu hori. Beste merkataritza-gune batzuetan ibilitakoa da, eta badauka eskarmentua gerentzia lanetan; helburua orain arteko bide estrategiko bera jarraitzea izango da: inguruko erreferentzia-gunea izaten jarraitzea, alegia. Datozen asteotan bi azoka antolatuko ditugu urriaren amaierarako.

"Autobide berriak ahalbidetu du ein batean merkatal gunea berpiztea"

"El Boulevard-en eskaintza ipar-guneko osoena da"

(6.500); eta azkenik, Luku-Gasteiz (3.700). Hala eta guztiz ere, nahiz eta autobidea asko erabiltzen den, errepide zaharrak ere zirkulazio handia du oraindik ere. Gainera, gidariak aprobetxatu egiten dute eguraldi ona dagoenean ordainsaria ordaindu beharrean errepide zaharretik joateko; kamioi eta furgonetak gehiago joaten dira autobidetik.

Horrela, debagoiendarren jomuga da aspalditik Gasteizko hirigunea eta bertako merkataritza-guneak.

El Boulevard merkataritza-guneko marketing arduradun Patricia Sanzek aldaketa nagusi bat nabaritu dutela esan digu: "Euskaraz berba egiten gehiago entzuten dugu bezeroen artean, eta hori adierazgarria da nondik datozen". Sanzek adierazi digun

moduan, merkataritza-gunera joaten den jendea egonaldi luzeak edo egun-pasa joaten da, El Boulevard-en eskaintza zabala delako: 150 denda baino gehiago eta doaneko 4.000 aparkaleku; hiler 670.000 pertsona joaten dira hara. Motor ekonomiko garrantzitsu bihurtu da. Txikiendako aipatzekoa da sortu duten umeentzako gune berria eta baita Akertxo gunea ere. Debagoieneko merkataritza-guneko, AP-1 ez da mehatxu; horrela, galdetutako dendari guztiak iritzi berekoak dira, edozein herritan.

Autobidea ireki aurretik ere, Debagoieneko merkatarien elkarrekin baziharduten ekintza bereziak egiten: beherapenen azoka, Arrasaten eta Bergaran ere bai; eta Oñatin Txanda txartela dago martxan beherapenendako.

Boulevard Udazkeneko Moda Zuzenean BIHOTZERA

Konpromisoz beteta. ZUTAZ beterik.



www.el-boulevard.com
Bezeroarenganako Arreta: 945 155 440

Adolfo Domínguez, Bata Superstore, Bershka, Blanco, Calzados Valentino's, Calzedonia, Cardigan y Gables, Carlangas, Charo Duarte, Coronel Tapioca, Etam, Generacion X, Glisse Gasteiz, Golden Point, H&M, Inside, Jack & Jones, Kiddy's Class, Levi Strauss & Co, Massimo Dutti, May Day, Mayoral, Megacalzado, Misako, Nanos, Orchestra, Oysho, Pepe Jeans London, Pikolinos y Martinelli, Pull & Bear, Shoes & Piel, Skechers Usa, Springfield, Stradiarius, Styling, Ulanka, United Colors of Benetton, Wauer, Women's Secret, Z, Zaparratrillo, Zara

Informatu eta parte hartu
Caritaseko proiektuetan,
behe solairuan gaitutako lokalean.





Eskoriatzako eguneko psikogeriatrikoa; Arrasaten ere badago beste bat.

AITA MENNIK

■ OSASUN ZERBITZUAK

Osasun eta eguneko zentroen eragina gurean

JASONE ZABALA

Osasun zerbitzuen maila gurean ona dela esan daiteke. Herri guztietan daude osasun etxeak, beste zerbitzu berri batzuk ireki dituzte, Aita Menniko ospitalea ere hor dago, eta 2010ean, Debagoieneko ospitale berria egongo da martxan; gure balarako erronka nagusia.

Osasun zerbitzuei dagokienez, aukera ugari daude Debagoienean. Buruko gaixotasunak dituztenei laguntzea izan da betidanik Aita Menniren xedea, betiere garaian garaiko baliabideak eta beharrak kontuan hartuz eta osasun mentalaren ikuspegi zabal eta orokorrean; gaur egun, hiru dira Aita Menniren jardueraren ardatzak: psikiatria, garuneko kaltea eta adinekoen zainketa, hain zuzen ere.

Psikiatriaren arloan, buruko gaixotasunen tratamendurako aukera ezberdinak jorratzen dituzte Gesalibarko ospitalean eta, bestetik, Arrasaten, Beasainen, Donostian eta Irunen, komunitatean lantzen diren programen bidez. Garuneko kaltearen

arloan, berriz, Estatuko lehenengo unitate berezia sortu zuen Aita Mennik 1992an, eta orduz geroztik erreferentzia nagusienetakoa da garuneko kaltearen ondorioz sortutako urritasun neurologikoen errehabilitazioan.

ADINEKOEN ARLOA

Adinekoen arloa da Aita Mennik lantzen dituen artean berriena. Egia esan, betidanik izan du zeresana psikiatriak zahartzeko prozesuan. Jakina da demenziek eta horien artean Alzheimer kasuek gora egiten duela adinarekin batera. Beraz, Aita Mennik badu eskarmentua pertsona horiei laguntzen. Hala ere, egitura berriak sortu ditu, eta pertsona nagusiei zuzenduriko zerbitzuak abian jarri. Izan ere, hemendik 20 urtera, gure gizartearen %30 inguru 60 urtetik gorakoa izango da eta horien %39, berriz, 80 urtetik gorakoa.

Bestalde, eguneko zentro psikogeriatrikoak ditu, besteak beste, Arrasaten eta Eskoriatzan. Eguneko zentro psikogeriatrikoak adineko pertsonen zaintzak eskaintzen dizkie, euren gaitasunak ahal diren neurrian mantentzen dituzaten; horretarako, errehabilitazio

modu egokienak lantzen dituzte beharren arabera. Egotzen helburu nagusia da atentzio integrala eskaintzea, etengabea eta demenziak jota dauden pertsonen bizi kalitatea hobetzea bilatzen duena, ingurumenak ahalik eta eragin txikiena izan dezan bere sintomatologian. Horretarako, programa ezberdinak lantzen dira, alderdi kognitiboak eta psikologikoak lantzen dituztenak eta aisialdiari ere garrantzia ematen diotenak. Aldi berean, senitartekoekiko harremanak jorratzen dira.

EGUNEKO ZENTROA

Eguneko zentro psikogeriatrikoak adinekoen zaintzak eskaintzen dizkie; modu horretan, euren gaitasunak ahal diren neurrian mantentzen laguntzen ditte, eta horretarako errehabilita-

zioa egiten dute bakoitzaren beharren arabera. Modu horretan, adinekoek etxeko artean eta betiko lagunartean jarrai dezatela bilatzen da ahalik eta denbora luzeenean, izan dezaketen funtzionamendu mailarik eta bizi kalitaterik handienarekin. Taldekako programez gain, banan-banan egokitutako programak ere lantzen dituzte eta errehabilitazioa eguneko orduetan egiten da, goizeko bederatzietatik arratsaldeko seiak arte hain zuzen ere.

Horretarako, egokitutako garraio zerbitzua erabiltzen da, adinekoa bere etxetik zentroro errotan duena egunaren hasieran eta lan-saioa amaitzean berriz etxera eramaten duena. Zentroan dagoen bitartean, gosaria, bazkaria eta merienda egiten ditu, eta, errehabilitazioaz gain, behar

dituen osasun tratamenduak ere zaintzen dira.

DEBAGOIENENKO OSPITALEA

Gizartearen zahartzeak eta dauden behar berriak erronka berri batzuen bueltan sartu dute Debagoieneko osasun zerbitzua. Gurean, osasun zentroeiei dagokionez esan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Aramaion, Elgetan, Oñatin eta Antzuolan badaudela eta bertako biztanleen beharrak asetzen dituztela.

Beste erronketako bat Debagoieneko ospitale berria da. 2010erako amaituta egotea espero dute arduradunek. Lan horiekin, Debagoieneko ospitalea 74 ohe izatetik 120 ohe izatera pasako da. Baina hori ez da lanek ekarriko duten hobekuntza bakarra. Lanak amaitzen direnean, hainbat espezializazio berri izango ditugu Debagoieneko ospitalean: zaintza berezien gunea, haur eta amandako gunea, medikuntza prebentiboa, emergentziatarako unitate berria eta operazio-gela adimentsua, esaterako. Beste berritasun bat Arrasaten jarri duten pediatria zerbitzua da.

Urologia eta pediatria zerbitzu berriak zabaldu berri dituzte Debagoienean

Aita Mennik sortu zuen garun kaltearen lehen unitate berezia Estatuan

"Aita Menni egoitza 2008an eraberritu zen araudi berrira egokitzekeo"

Eguneko zentroetan kopuru finkoa dago: 12,87 euro

Elena Berezibar, Gizarte langilea da eta eguneko zentro psikogeriatrikoetako eta adinekoen egoitza unitateetako ardura dauka. Berarekin hitz egin dugu osasun zerbitzuei buruz orokorrean eta Aita Mennik eskaintzen dituen zerbitzuei buruz.

Zein zerbitzu eskaintzen ditu Aita Menni Debaioenean adineko pertsonendako?

Alde batetik, eguneko zentroak ditugu Arrasateko Uribe auzoan eta Eskoriatzan.

Lehenengoan 1997an hasi zen lanean eta 30 plaza ditu Gipuzkoako Foru Aldundiarenkin hitzartuak eta beste bi Arabakoarekin (5 arte luzatu daitezkeenak behar izanez gero) Aramaioarrendako. Zentro honetan gainera asteburuko eta jaiegunetako zerbitzua eskaintzen da 12 pertsonentzat. Eskoriatzako zentroak 2004an zabaldu zituen ateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako 15 plaza eskaintzen ditu.

Bestalde, Aita Menni Egoitza dugu gure Gesalibarko zentroan. 2000.urtean hasi zen lanean 35 erabiltzailearekin, baina 2008an goitik behera eraberritu zen araudi berrira egokitzekeo eta gaur egun, bi unitatetan berezitako 30 erabiltzailearentzat tokia du, guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuak.

Nola lortu daiteke zerbitzu hauen laguntza?

Esan bezala, zerbitzu guztiak foru aldundiekin hitzartuta daude. Eskaintzen dugun laguntza behar izanez gero, eskariak udaletxe bakoitzeko gizarte zerbitzuetara bideratu behar dira. Bertako gizarte laguntzaileak eskaria foru aldundira igortzen du eta honek kasu bakoitzean beharrezkoa den zerbitzua eskatzen digu.

Nola finantzatzen da?

Zerbitzuaren ordainketa erabiltzailearen eta Aldundiaren artean partekatzen da. Eguneko zentroen kasuan, erabiltzaileak kopuru finko bat ordaintzen du, gaur egun eguneko 12,87 €, zerbitzu guztiak barne hartzen dituen. Erabiltzen den zerbitzua egoitza denean, berriz, erabiltzaile bakoitzari ordainsari ezberdina ezartzen zaio bere egoera ekonomikoaren arabera.



"Garrantzitsua da familiekin egin behar den informazio lana"

Zein da zentroetako eta egoitzako lantaldea?

Asistentzia psikogeriatriko espezializatuak beharrezko egiten du talde multidisziplinari baten elkarlana. Lantaldea osatzen dute laguntzaile klinikoak, monitorea, erizainak, gizarte laguntzaileak eta psikologoak.

Egoitzaren kasuan, lantaldean sartzen da mediku psikiatra ere. Gure profesionalen inguruan, azpimarratuko nuke adineko pertsonen eremuan duten eskarmentua, gure nagusiei eskaintzen dieten gertutasuna eta zentroetako eguneroko bizitzan duten dedikazioa eta inplikazioa.

Nola bizi dute senitartekoe?

Hasieran zalantza asko sortzen dira. Kontutan izan behar da adinekoen inguruan hartu beharreko erabakiak gogorrek direla. Nolanahi ere, erabiltzaileak egokitzen doan neurrian eta zentrorantz pozik doala ikusten duten bezala, eman duten urratsarekin lasaiago sentitzen joaten dira.

Gure ustez oso garrantzitsua da familiekin egin behar den informazio eta laguntza lana. Nik esango nuke gure familiak oso inplikaturik daudela gure adinekoen zaintzan eta jarraipenean eta beraz, beraiekin dugun harremana oso ona da. Nolabaiteko kontaktuak egunero izaten ditugu eta bisitak ere oso maiz izaten ditugu.

Familia bakoitzaren egoera ezberdina da. Horregatik, behar bakoitzari ematen diogun irtenbideak ere ezberdina izan behar du, kasu bakoitzari egokitua. Kasu bakoitza errespetatu behar da bere norbanakotasunean.

Zeintzuk dira etorkizunari begira dituzuen erronkak?

Gure helburu nagusia gure adinekoei eta beren senitartekoei zerbitzu espezializatua eskaintzen jarraitzea da. Epe motzean, gure eskualdean beharrezkoak diren plazak izango ditugu bai eguneko zentroetan eta baita egoitzetan ere. Jarraitzen ditugun bitartean begibistik ez galtzeko.

Zuen lanaren gauzarik onena eta txarrena?

Onena, proiektuen dinamikotasuna, bezeroarekin zuzeneko harremana eta leku berri asko ezagutzen ditugula. Txarrena, berriz, burokrazia.



Jesusen Bihotz Sakratuaren
AHIZPA OSPITALARIAK
AITA MENNI

PSIKIATRIA

ADINEKO PERTSONAK

GARUNeko KALTEA

JASONE ZABALA

Gure gizartea zahartzen doan garai hauetan eta beste hainbat pertsonaren bizi baldintzak hobetzeko asmoz, egoitzen eraberritze lanak eta egoitza berriak beharrezkoak dira; horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak XXI. mendeko gizarte ongizateari dagokionez, hainbat laguntza eman ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adinekoak zaintzeko hartua duen konpromisoari jarraituz, 542 egoitza-leku eskaintzen ditu Debagoiengan: Aretxabaletan 170, Bergaran 115, Eskoriatzan 36, Oñatin 83 eta Arrasaten 98 egoitza eta 40 Aita Mennin.

Oñatiko zentroak 15 gaixorentzako unitate psikogeriatricoa du eta Aretxabaletako zentroak, 30 leku. Debagoienari dagokionez, bi zentrozen artean 45 leku eskaintzen dituzte.

673 LEKU BERRI

Hori guztia aurrerapauso handia da gizarte ongizate arloan daukagun helburua lortzeko bidean: zenbait unitate abiaraztea egoitza-zentroetan, harik eta Gipuzkoan 673 leku berri izan arte. Pauso horiek pixkanaka emango dira lurralde osoan, eskualde eta azpieskualdeetako oreka gordez, betiere.

Debagoiengan, gainera, balio askotariko bi egoitza ditugu: Antzuolako Torresoroa, 2008ko urrian ireki zena 19 plazarekin, eta Elgetakoa, 7 leku dituen adinekoentzako eguneko zentroan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren helburu nagusietako bat Gipuzkoako landa eskualdeetako gizarte zerbitzuak hobetzea da, eta ildo horretan kokatzen dira bi zentro horiek, herritarrek inguruetatik bertatik irten beharrik izan ez dezaten.

Ezaugarri berri gisa, zentro horietan pertsona ezinduen eta pertsona nagusiak elkarrekin bizi dira, tankera eta maila desberdinetako ezintasunak dituztenak, baita pertsona nagusi autonomoak ere. Horrela, arreta eredu berria proposatu dute; familiak kontuan izateaz gain, erabiltzaileen arteko eta haien inguruarekiko harremana estutzeko erraztasunak ematen ditu eredu horrek.

Bi baliabide horiez gain, eskualdeko biztanleek beste eguneko zentrorik ere badute euren zerbitzura: Oñatikoa (30 leku, urte hasieran gehitu zituzten plazak), Eskoriatzakoa (15), Arrasatekoa (35) eta Aretxabaletakoa (30). Bergarakoan, egoitze lanen ondoren, plaza kopurua handitu egingo dute (12 zeuden orain arte). Guztira, beraz, 136 daude Debagoiengan adinekoak zaintzeko.

EZINTASUNA DUTEN PERTSONENDAKO

Ezintasuna duten pertsonendako badaude egoitzak gurean. Arrasateko Aspaceko egoitzan 20 plaza daude eta eguneko zentroan 23; Aretxabaletako Atzezin, berriz, 12 plaza daude; Bergarako Uliazpin 10 eta eguneko zen-



Egun, Etxetek programarekin 1.347 pertsonak jaso dute laguntza Gipuzkoan; Debagoiengan, 161 izan dira.

■ GIZARTE ONGIZATEA XXI. MENDEAN

Nagusi eta ezinduen ongizatea bermatuta dago gurean

troan 20 plaza; Arrasateko Goienetxen, eguneko zentroan 18; Aita Mennin, berriz, eguneko zentroan 15 eta Aspace Bergaran, eguneko zentroan 48.

ETXETEK PROGRAMA ETA LAGUNTZAK Gizarte Politikarako Departamentuak, Etxetek programaren bidez, %51 handitu ditu emandako laguntzak aurreko urtea-

rekin alderatuta. 1.347 pertsonak jaso dituzte 2009ko lehen sei hilabeteetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak emandako laguntza

teknikoak; horrenbestez, iaz epe berean emandako laguntzak %29 areagotu dira. Aurtengo lehen sei hilabeteetan emandako laguntzak 3.331 izan dira, 2008ko lehen sei hilabeteetan emandakoak baino %51 gehiago; eskatzaile bakoitzak 2,46 laguntza jaso ditu, batez beste.

Laguntza teknikoak Foru Aldundiko Etxetek programaren barruan ematen dira. Programaren helburua minusbaliotasunen bat duten pertsonen edo mendekotasun egoeran daudenek dituzten beharrei aurre egiteko bitartekoak izatea da; bai autonomia pertsonalarekin lotutakoak, bai modu independentean bizi izatera bideratutakoak.

Pertsona horiek gainontzeko herritarren baldintza beretan gizartean moldatzeko dituzten zailtasunak murrizteko asmoz, Gizarte Politikako Departamentuak laguntza ekonomikoetan eta laguntza produktuen lagapean oinarritutako programa du abian; produktu horien artean, minusbaliotasuna edota mendekotasuna saihesteko, konpentsatzeko, arintzeko edota deuseztatzeke balio duten era guztietako produktuak, bitartekoak, ekipamenduak eta sistema teknikoak daude.

2009an Foru Aldundiak bi milioi euro inguru gastatu ditu dagoeneko. Hala, onuradunen kopurua ugartu egin da: egun, 1.347 pertsonak jaso dute laguntza. Kopuru handiena Donostialdean dago, eta Debagoiengan 161. Guztira, 3.311 laguntza



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Bizi kalitate hobea eta bakoitzaren autonomia

JASONE ZABALA

Etxetek-en helburua da minusbaliotasunen bat duten pertsonak edo mendekotasun egoeran daudenen dituzten beharrei aurre egiteko bitartekoak izatea; bai autonomia pertsonalarekin lotutakoak, bai modu independentean bizi izatera bideratutakoak. Horretarako, Diputazioak 2009an bi milioi euro inguru gastatu ditu dagoeneko. Hala, onuradunen kopurua ugartu egin da: egun, 1.347 pertsonak jaso dute laguntza; gurean, 161ek.

Etxetek programak eskaintzen dituen zerbitzuak gipuzkoar guztiendako dira; horien artean: laguntza produktuen erakusketara, informazioa eta aholkularitza, Donostia, Eibar eta Irungo zentroetan, eta laguntza horiek Aldundiari eskatzeko moduen informazioa. Beste zerbitzu batzuk, berriz, ez-gaitasuna edo mendekotasuna dutenendako dira.

LAGUNTZA MOTAK

Hainbat laguntza mota eskaintzen dira: babes eta zaintza pertsonalerako eta mugikortasunerako, etxebizitzaren irisgarritasunerako eta komunikaziorako. Eta laguntza horiek eskatzeko, norberaren udalerriko gizarte zerbitzuen bidez egin beharko da.

Kostuei dagokionez, informazioa eta aholkularitza zerbitzua ematea doakoa da, baita laguntza produktuak erabiltzen uztea ere, baldin eta berreskuragarriak badira. Gastu ekonomiko bat duten familietan beraien egoera ekonomikoa nolakoa den ikusi behar da. Pertsona horiei eskainiko litzaiekeen zerbitzuak ondorengoak lirerateke: produktu lagunagarriak, baldin eta ez badira berreskuragarriak, eta oztipoak kentzeko egin beharreko obrak.

Informazio gehiago izateko, zentroek zein ordutan zabaltzen duten jakiteko edo hitzordua eskatzeko ondorengo telefonora deitu besterik ez dago: 943 21 69 90.

Debagoiengan 136 pertsonarendako lekua dago eguneko zentroetan

eman dira. Etxetek programara jotzen duten pertsonak hainbat laguntza jaso ditzakete. Onuradunek Gipuzkoan, batez beste, 2,46 laguntza jasotzen dituzte. Kasu horretan, Tolosaldean

(2,61) ematen da batez besteko handiena, Donostialdean baino gehixeago (2,55). Etxetek programan artatutako pertsonen %60 emakumeak dira eta emandako laguntza teknikoan %90 mugikortasun taldekoak dira. Laguntza horiek honakoak dira: aulki motordun eta bereziak; egokitutako altzariak (ohe artikulatuak, ultzeraren aurkako koltxoak eta abar); garbitasuneko, komuneko eta dutxako osagarriak (aulki birakariak, komuneko jasagarriak, heldulekuak...); altzatzak eta

Debagoiengan 161 pertsonak erabili dute Etxetek-ek eskaintzen dituen zerbitzuak

lekualdaketa gailuak (garabiak eta eskailera igogailuak, besteak beste); eta, azkenik, ibilgailuak erosteko edo egokitzeko laguntzak. Etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko laguntzek

osaten dute gehien eskatutako bigarren taldea; Etxetek programako hirugarren atala komunikaziorako sarbidea izateko laguntzek osatzen dute.

Etxetek programaren barruan aurten egin diren jardueren artean, *stock* sistema nabarmen hobetu izana azpimarratu behar da. Material berreskuragarriak entregatzeko eta biltzeko zerbitzua indartu egin da. Horri esker, biltegiatze sistema hobetu egin da, eta, ondorioz, herritarren eskaerei erantzuna azkarrago ematen zaie.

GSR Debagoiena egoitza urriaren 28an inauguratuko dute

JASONE ZABALA

Gure bailaran dagoen zaharren egoitza berriena Aretxabaletan dago. Joan den ekainean zabaldu zituen ateak eta urriaren 28an egingo dute inaugurazio ekitaldi ofiziala.

Bertan egongo dira, besteak beste, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia; Maite Etxaniz, Gizarte Politikako foru diputatua; Inaxio Garro, Aretxabaletako alkatea; eta Jose Maria Aldekoa, Mondragoneko presidentea. Ekitaldia 12:00etan izango da. Gipuzkoako Foru Aldundiak milioi bat euro inbertitu ditu egoitzan. 170 pertsonarendako tokia dauka eta horietatik 102 plaza kontzertatuak dira, eta horrela banatzen dira: 67 plaza laguntza behar duten pertsona nagusiendako; psikogeriatriako 30 plaza (15 pertsonako bi gelatan banatuta) eta behin-behineko 5 plaza arnasketa programetarako eta abar.



Aretxabaletako zaharren egoitza berria.

GOIENKARIA

adindunaren eskaera. Egoitza berriak hiru solairu ditu, eta bederatzi modulutan dago banatuta; besteak beste, bi jangela, liburutegia, egongela, bisitariendako gela, logela bikoitzak eta banakakoak, gimnasioa, kafetegia, lorategiak eta bulegoak ditu.

Bestalde, egoitzak 25 pertsonarendako lekua duen eguneko zentro bat ere badauka. Arduradunek adierazi digutenaren arabera, egoitza berri horren irekierak Debagoiengo itxaron-zerrenden beherakada nabarmena ekarri du, eta, zentzu horretan, zegoen beharra beterik utzi du.

TOKIA LORTZEKO

Zaharren egoitzan plaza kontzertatua hartu nahi duenak, ondorengo prozedura jarraitu beharko du: gizarte-langile batek adindunaren momentuko balorazioa egingo du behar dituen zerbitzuak aztertzeko. Ondoren, Diputazioan eskaria aurkeztuko du eta itxaron-zerrendan sartuko da



Mugitzeko garabia.

ALDUNDIA



Irudian, Aretxabaletako Basabe poligonoa. Bertan dago Debagoieneko Industrialdearen egoitza.

GOIENKARIA

DEBAGOIENENKO INDUSTRIALDEA

Ibarreko industria ekimenari eutsi

EDU MENDIBIL

Industria ekimenari eustea izango da ibarreko erronka nagusietako bat etorkizunari begira. Mundu mailako krisi finantzarioa dela-eta, ez dira ez garai onenak industriarako. Edozein modutan ere, Debagoieneko Industrialdea erakundeak proiektu interesgarriak ditu esku artean. Eskoriatzako industrialdea izan da Debagoieneko Industrialdean integratzen azkena.

Debagoieneko Industrialdean Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergarako udalak daude eta urte bukaerarako Eskoriatza ere sartuko da.

Gure ibarrean industria ekimena eta inbertsioa suspertzea da Debagoieneko Industrialdearen helburu nagusia. Horren lekuko ditugu aipatutako herrie-

tan azken hamarkadetan eraiki diren industrialdeak. Debagoieneko Industrialdearen kapital soziala 8.555.096 euro da gaur egun eta honakoa da erakunde bakoitzaren ekarpena: Sprilur SArena %51; Diputazioarena %24,36; Aretxabaletako Udalak %9,80; Oñatiko Udalak %5,45; Arrasateko Udalak %4,83; Bergarako Udalak %4,52; eta, azkenik, Debagoieneko Mankomunitateak %0,04.

Debagoieneko Industrialdearen egoitza Aretxabaletako Basabe poligonoan dago eta bertan Koldo Pereira gerentea eta bi administratzailek egiten dute lan. Esan bezala, Sprilur erakundearen (www.sprilur.es) menpe dago elkarte.

ESKORIATZAKOAZ, AZKENA

Bada, Eskoriatzako Industrialdea izan da Debagoieneko Industrial-

dean integratzen azkena. Aurreko urriaren 7an egindako batzarrean, Eskoriatzako Industrialdea SAko administrazio kontseiluak onartu zuen aipatutako industriagunea Debagoieneko Industrialdeari saltzea. Erabakia aho batez onartu zuten batzarreko kideek, Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alkateak, Dorleta Lezetak, Edorta Barandiaranek, Iñaki Pierrugesek eta Karmelo Lezetak, hain zuzen ere.

Hartutako erabakiaren arabera, Eskoriatzako Udala Debagoieneko Industrialdean sartzeko prozesuarekin hasi da eta urte bukaerarako tramite guztiak amaituta egotea espero da.

1997ko apirilaren 18an sortu zenetik, Eskoriatzako Udalak eraman du industrialdearen ardurara. 2005a ezkeror zorrak izan ditu, Torrebason dauden instalazio guztiak saldu ez direlako. Iaz

udaberrian aipatutako lokalak saltzeko publizitate kanpaina abian jarri zuten, baina erantzuna ez zen nahi besteko ona izan.

Hori dela eta, industrialdearen egoerak Udalaren egoera ekonomikoa zaildu du. Horren aurrean, Debagoieneko Industrialdeari saltzarekin batera, Udalaren egoera ekonomikoa hobera egitea bilatu nahi da. Esan bezala, Debagoieneko Industrialdean integratzen den bosgarren udala izango da Eskoriatzako.

1980KO HAMARKADA EZKERO

Debagoieneko gainerako industrialdeei dagokienez, 1980ko hamarkadaren hasierakoak dira gehienak: Aretxabaletako Basabe poligonoa (42.851 m²-ko azalera dauka); Berezano eta Zubillaga I Oñatin, hurrenez hurren 24.960 m² eta 9.415 m²-ko azalera dituztenak; 1990eko hamarkadan, berriz, Oñatiko Zubillaga II eta Oxiñurdir poligonoak etorri ziren (2.135 m² eta 13.555 m²); Baintxe, Aretxabaletan, 2002. urtekoa (47.763 m²) eta Bergarako Labegarieta, urte berean amaitu zutena (54.922 m²); Markuleteren lehen fasea, 2003koa (18.489 m²) eta 2004an egin zen zabaltzea, beste 14.475 m²-ko eraikitzearekin. Era berean, 2008an, Markuleteko bigarren faseari ekin zioten.

MARKULETE ETA LARRAMENDI

Markuleteko F-12 partzelaren bigarren faseari ekin zioten joan den urtean Arrasaten. Poligonoaren azalera gordina 13.165 m² da; industria pabiloiek 8.496 metro hartuko dituzte, bulegoek 2.032 metro eta zerbitzuek (taberna, jatetxe eta abarrek), berriz, 772 metro.

Debagoieneko Industrialdeko iturrien arabera, poligono ezberdinetan okupazioa ia erabatekoa da gaur egun: Bergarako Labegarieta industrialdean 286 m²-ko hiru pabiloi eskuragarri daude; Markuleten beste hiru (2.805 m²) eta LKS Ingeniaritza Aretxabaletatik Garaia Berrikuntza Gunera joan denez, Basabe poligonoan lau bulego hutsik geratu dira, 663,50 m²-ko azalera guztira.

Arrasateko Markuleteko proiektuaz gain, Bergarako Larramendiko Industrialdearen urbanizazioa ere bukatzeko zain dago. Datorren maiatzean bukatuko dituzte hango lanak, eta ondoren Sprilur-ek Industrialdeari 25.000 m² salduko dizkio, azken horrek proiektua egin eta pabiloak eraikitzeko. Oñatiko Santxolopetegi poligonoa (proiektua egiteke dago oraindik) eta Arrasateko Emaldi dira beste erronketako batzuk. Industria ekimenari eustea da helburua.

Debagoieneko Industrialdearen kapital soziala 8.555.096 euro da gaur egun

Ibarreko industrialde gehienak 1980ko hamarkadaren hasierakoak dira

■ ELKARRIZKETA: KOLDO PEREIRA / DEBAGOIENENKO INDUSTRIALDEKO ZUZENDARIA

"Edozein enpresak du tokia Debagoieneko Industrialdean"

OIHANA ELORTZA

Debagoieneko Industrialdeko zuzendaria da Koldo Pereira bergararra. Bailerako industrialdeek ematen dituzten eta eman ditzaketan aukerak ondo ezagutzen ditu, eta horien alde egiten du, baita krisi garaian ere, etorkizun hobeko baterako azpiegiturak egokiak direla uste duelako.

Arrasateko Markulete da bailarako industrialde berriena. Ze hedadura du?

1985ean hasi zen proiektu horrekin Jose Carlos Anasagasti. Lehen fasean, bi enpresarendako prestatu zen tokia: egungo Ekide eta Baikor. Bigarren fasearen zirriborroa ere egin zen orduan, baina lan horiekin hasi ginenean birplanteatu egin genuen; lehen ez zen bulegorik eta zerbitzurik aurreikusten eta ikusten genuen horren beharra bazegoela Markuleten. Duela urte eta erdi hasi genituen bigarren faseko obrak eta joan den irailetik dago zabalik. 13.165 metro koadroko hedadura du.

Hasi da betetzen?

Ari gara eskaerak jasotzen.

Nolako enpresendako tokia dago?

Edozein motatako aktibitatea duten enpresendako. Gutxienez 300 metro koadro ditu pabiloi bakoitzak, baina tamaina ezberdinetakoak daude. Badago bat, adibidez, 1.000 metro koadro baino gehiago duena.



Aretxabaletako Basabe industrialdean du egoitza Debagoieneko Industrialdeak.

O.E.

Pabiloi txikiak eraikiko ditugu; bulegorik ez dugu planteatzen.

Beste proiektua Oñatiko Santxolopetegi gunea da. Gune berria da eta orain Udala ari da tramite guztiak egiten. Urte eta erdi inguru iraungo du horrek eta gero ikusi egin beharko da zer kokatzen den, baina posible da bulegoak ere egitea, metro koadro asko daude-eta.

Krisi garaian, momentu ona da enpresa bat sortu edo eraikin berriari inbertitzeko?

Oñatiko industrialdea da bailaran egin zen lehena, duela 26 urte, nahiz eta martxan hasi zen lehenengoa Aretxabaletako Basabe izan. Egun bizi dugun antzerako egoeran eraiki zituzten. Beharrei erantzuteko azpiegitura egin zen orduan, eta oraingoak ere geroko negozioen azpiegitura izango dira.

Zein herri daude sartuta Debagoieneko Industrialdean?

Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergara. Eskoriatza sartzeko prozesuan dago orain eta beste herriek ere badute aukera sartzeko, gura dutenean.

Ze erronka nagusi ditu Debagoieneko Industrialdeak?

Industrialdeak kokatzeko tokiak bilatzea; mendialdera goaz herri gehienetan. Arrasaten eta Bergaran, adibidez, garbi ikusten da hori. Hala ere, industrialdeak banan eraiki behar dira, ez denak batera. Horrelako proiektu batek azterketa eta prozesu luzeak ditu atzetik.

"Pabiloiak ez ezik, zerbitzuak eta bulegoak ere badaude Markuleten"

Zer aukera ditu interesatuak?

Aukera bat da erostea eta beste aukera bat da erosteko asmoarekin alokatzea. Bederatzi urteko mailegua ematen diegu: aplikatzen zaie Euriborra + 2,7. Hirugarrena alokairu simplea da.

Orain arte ze eskaera jaso dituzte Markuleterako?

Bat baino gehiago jaso dugu, baina Debagoieneko Industrialdeko kontseiluak erabaki behar du eskaerak egokiak diren edo ez.

Olandixoko tunelak ekarriko dio aukerarik Markuleteko industrialdeari?

Bai; aukera handiak, gainera. Tunel hori industrialdearen albotik pasatzen da eta hantxe ditu sarrera-irteerak. Kamioiak, garraioa, zuzenean doaz errepide nagusira eta hori abantaila handia da enpresarendako.

"Industrialdeendako tokiak bilatzea da etorkizunerako dugun erronka nagusia"

Beste proiekturik badu Debagoieneko Industrialdeak?

Bergaran, Sprilur ari da egiten 300.000 metro koadroko urbanizazioa. Datorren urteko maiztzean bukatuko du eta 25.000 metro koadro salduko digu guri.

8.946 m² – pabiloiak

2.032 m² – bulegoak

772 m² zerbitzuak (Taberna –Jatetxea)

◀ Jabetzaren lorpidea eta finantzaketa abantailagarria

◀ Aparteko arkitektura eta eraikuntza iraunkorra

◀ Kokapen estrategikoa, teknologi, eraberritze eta ikerkuntza zentroetatik gertu



Markulete industrialdea F-12-II. Fasea – ARRASATE

debagoiena@industrialdea.spri.es - Tel.: 943 79 62 80

DEBAGOIENENKO INDUSTRIALDEA
Basabe industrialdea, E0-10 - 20550 Aretxabaleta



Estreina ezazu **HONDA** bat Euskadiko Kutxarekin

Eskaintza berezia



% 17tik
% 29 ra
arteko
beherapena

Honda Civic, Accord Sedan, Accord Tourer eta CRV.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

HEZKUNTZA > ELKARLANA

Larrañaren eta Alecop-en, hitzarmena

Goizetan eskolara joan ondoren, arratsaldeetan lau orduko lan jarduna egingo dute ikasleek

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Rodrigo Mercado Zuazola-Larraña Institutuak eta Alecop Kooperatibak kolaborazio hitzarmena sinatu zuten astelehenean eskolako eraikinean. Akordioaren arabera, Larraña Institutuan diharduten ikasleek lau orduko lan jarduna egin ahaliko dute enpresa ezberdinetan Alecop-en bitartez.

LAU ORDUKO LAN JARDUNA

Hitzarmena sinatu zuten Alecop-eko Errektore Kontseiluko presidente Iñaki Kerejetak eta Rodrigo Mercado Zuazola-Larraña Institutuko zuzendari Kepa Altubek. Era berean, Larrañako ikasleak egon ziren aurkezpenen.

Bi entitateek positibotzat jo zuten sinatutako hitzarmena: "Lanbide Heziketa zikloak aukeratzeko dutenek lan mundurako sarrera bermez egin ahal izango dute. Esperientzia lortu eta euren heziketa akademikoa osatu ahal izango dute", esan zuen Kepa Altubek.

"IKASLEEN KOOPERATIBA"

Ikasturte bakoitzaren hasieran lanerako aukerak dituzten ikasleentzako zerrenda emango diote Alecop-i, azken honek ikasle bakoitzaren lehentasunak zehaztu ditzen. Iñaki Kerejetak esan zien ikasleei Alecop ikasleen kooperatiba bat dela: "Gure estatutuek ongi esaten dute ikasleok zuen



Alecop-eko Errektore Kontseiluko presidente Iñaki Kerejeta eta Larrañako zuzendari Kepa Altube, prentsaurrekoan.

M.B.

ikasketak autofinantzatzeko aukera duzuela gurekin. Gainera, lan esperientzia izateko aukera emango dizuegu, eta hori guztiori, ingurune kooperatibo baten barruan. Hortaz, esperientzia honetan parte hartzea gonbidatzen zaituztet".

Informazio zehatzagoa emateko Alecop-eko kideak ikasleekin bilduko dira taldeka.

ESANAK

"Lanbide Heziketa zikloa aukeratu dutenek lan mundurako sarrera bermez egingo dute"

Kepa Altube > Larrañako zuzendaria

"Zuen ikasketak autofinantzatzeko aukera duzue gurekin; eta hori, ingurune kooperatibo batean"

Iñaki Kerejeta > Alecop-eko kidea



GOIENKARIA

Astaputz izugarria Legazpi aldean

Perretxikoak batzeko garaian gaudela ezagun da. Begira bestela goiko argazkiko astaputz ikusgarriari! Unai Zabaleta Telleria oñatiarrak topatu zuen orain dela bi aste Legazpi inguruan. Perretxiko zale izanik, irteeratzea egin zuen, eta astaputza ikusi eta etxera eroan zuen lagunei erakusteko.

> OSASUNA

Elikadura osasungarria oinarri hartuta, zortzi ikastaro egingo dituzte urritik ekainera arte

Elikadura osasungarria oinarri hartuta, zortzi ikastaro egingo dituzte urritik ekainera arte. Elikadura makrobiotikoan esperientzia duen Isabel Moreno izango da irakaslea. Lehen ikastaroa urriaren 31n egingo dute. Teoria eta praktika landuko dituzte, eta bazkaria ere egingo dute. Abere-proteinen eta proteina begetalaren arteko abantailak eta bien arteko ezberdintasunak azalduko dituzte. Interesatuak 943 78 30 60 edo 658 71 90 89 telefonoetara deizkete izena emateko edo informazioa eskatzeko.

Hurrengo ikastaroak azaroan, urtarrilean, otsailean, martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean egingo dituzte. Ikastaro guztietan parte hartzen dutenei %15eko beherapena egingo diete.

JENDARTEA > OSPAKIZUNA

Bost taldek eta trikiti eskolako ikasleek parte hartuko dute biharko trikiti jaialdian

Jaialdia 17:00etan egingo dute Zubikoa kiroldegian; sarrerak eta Oinarri elkarteko afarirako txartelak salgai daude

M.B. > OÑATI

Lizargarateko Trikitizale Elkartekoek I. Trikiti Jaialdia antolatu dute biharko. Hain zuzen ere, 17:00etan hasiko dute kiroldegian. Guztira, bost taldek (Miren eta Agurtzane; Maixa, Ines eta Izer; Iker Allur eta Narbaiza; Epelde eta Iturbide; eta Laja eta Landakanda) eta Oñatiko trikiti eskolako ikasleak igoko dira ohol-tza gainera.

Talde bakoitzak, banaka, hainbat kantu joko ditu. Jaialdia bukatzeko, parte-hartzaile guztiek batera joko dute.

Ondoren, kalera irtengo dute. Triki-poteoa egingo dute kalerik kale, eta afaltzeko elkartuko dira Oinarri elkartearen. Horren hari-ra, oraindik salgai daude jaialdirako sarrerak eta afarirako txartelak. Biak ala biak, kultura etxean, edo Urbia edo Umerez tabernetan eros daitezke. Sarrerak 10 eurotan saltzen dituzte, eta afarirako txartelak 20 eurotan.



Lizargarateko Trikitizale Elkarteko kideetako batzuk.

GOIENKARIA

Antolatzaileek dei berezia egin diete trikitizaleei: "Jaialdi ona prestatu dugu. Punta-puntako trikitilariak datoz, eta musika giroa aparta izango da. Baina entzuleen beharra dugu. Hortaz, guztiak gonbidatu gurako genituzke".

TRIKITIARI BULTZADA EMATEKO
Lizargarateko Trikitizale elkartea 2008an sortu zen trikitiari bultzada emateko asmoz. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte: besteak beste, trikitizaleen eguna, eta Lizargaraten egiten dituzten erromeriak. Zortzi lagunek dihardute taldean.

EGURRA SALGAI

Pagoa eta haritza Prestatuta

699 86 16 19

AISIALDIA > DOS PISTONES ELKARTEA

Rally Game zirkuitua eta irrati-kontrol bidezko autoen erakusketa daude egunotan

Domekan, 1/18 eskaladun auto elektrikoaren instalazioa inauguratuko dute pilotalekuan; kultura etxean dauden autoak, berriz, gaur arte ikus daitezke

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Dos Pistones elkarteko kideek gogor dihardute lanean domekan Rally Game zirkuitua gertu izateko. Egun horretan, eguerdian, 1/18 eskalako auto elektrikoaren zirkuitua inauguratuko dute pilotalekuan. Probatzeko interesa dutenek bere autoa eraman beharko dute.

Elkarteko kide Iñigo Gartziak azaldu digu hilabete inguru daramatela zirkuitua probatzen: "Uztailaren amaieran erosi genuen domekan inauguratuko dugun zirkuitua. Ez da erraza izan lortzea, mundu osoan enpresa bakarrak egiten du-eta. Taiwanen dago hori eta guk Bartzelonan erosi dugu. Behin zirkuitua Eskoriatzan izanda, Udalari domeketan zirkuitua pilotalekuan muntatzeko baimena eskatu genion eta ordutik hona, astero bildu gara".

Egun horietan, goizean zirkuitua muntatu eta, besteak bes-



Kultura etxean dago irrati-kontrol bidezko autoen gaineko erakusketa.

MIRIAN BITERI

ERAKUSKETA

Gaur arte bisita daiteke autoen erakusketa

Irrati-kontrol bidezko autoak gustuko dituztenek herriko kultura etxera joan behar dute gaur arratsaldean; han, askotariko eskalatako hamabi auto jarri dituzte ikusgai Dos Pistones elkartekoek. Hastapen eta txapelketako auto elektrikoak zein gasolinakoak dira horiek. Horretaz gain, igorgailuak, kargadoreak, motorrak eta bestelako osagarriak daude. Erakusketa horretan elkarteko kideen artean egindako lehiaketak eta irrati-kontrol bidezko autoen lasterketen gaineko bideoak ere ikus daitezke; baita etzi inauguratuko den zirkuituaren zati bat ere.

te, denborak neurtzen eta birak zenbatzen ibili dira elkarteko hamar lagun inguru. Arratsaldean, berriz, kiroldegiko kantxa txukun uzteaz arduratu dira.

35 METROKO LUZERA

Zirkuituaren diseinua elkartekoek egin dute; 35 metroko luzera du horrek. Esan bezala, 1/18 eskaladun auto elektrikoak erabil daitezke bakarrik horretan. Gar-

tziak nabarmendu gura izan du zirkuitua zaletasun hori duten debagoiendar guztiei zabalik egongo dela. Gartziaren esanetan, "asmoa da zirkuitua hilerio hainbat domaketan jartzea, zaletasuna bultzatuz. Horren harira, kontuan hartu behar da horrelako auto bat izatea ez dela oso garestia; berriak 180 bat euro balio du eta bigarren eskukoak, 120 inguru".

KULTURA > MUSIKA

Puro Chile taldea Inkernuko agertokira igoko da bihar gauean

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatutako urriko egitarauaren barruan dago sartuta talde bizkaitarrak eskainiko duen kontzertua

M.B. > ESKORIATZA

Bikustik taldearen emanaldiaren ondotik, astean Puro Chilekoak entzun ahal izango ditugu Inkernu tabernan. Talde bizkaitarrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, 22:30ean.

Pedro Fernandez (bateria), Urko Igartiburu (gitarra eta ahotsa), Ane Irisarri (koroak) eta Mamen Rodrigok (baxua eta ahotsa) osatzen dute. Azken hori partaiderik ezagunena da, bere garaian Vulpes punk talde ezaguneko kide izandakoa da-eta.

Taldea 2007an sortu zen. Mexikon, aurretiko ezagupenik gabe bat-batean egindako gauzak izen-

datzeko erabiltzen duten *puro chile* esamoldea hartu zuten izen. Orduan, lau kantuko maketa gertatu eta kontzertuak ematen hasi ziren. Handik urtebetera, lehenengo lana grabatzeari ekin zioten: *Color*.

PARTAIDETZA ZABALA

Berrizko Lorentzo Records estudioetan grabatu dute lan hori, Aitor Ariñoren eskutik. Bederatzi kantuz osatuta dago eta Eloreko Arriola antzokian grabatutako bideoak ere badu. Grabazioan eta baita bideoan ere hainbat lagun laguntza izan dute, hala nola Josu Zabala (Her-

tzainak, Zazpi Eskale, Gu ta Gutarrak), Alazne eta Belen (Tiananmen), Roberto Moso (Zarama), Ezequiel Rudy Garcia (Banana Boats, Rotabator, The Starlites), Joni Benito, Ino Nodar, Aitor Etxebarria (Irao) eta Almudena Cacho kazetaria.

Puro Chileko partaide guztiek ibilbide luzea dute musikan. Hainbat taldetan jo dute: Rock Dam, Maria y la Plantacion, Anticuerpos, Tiananmen, Piroleta de hormigon, La Xeta Paxote, Puñetazo, Yo soy Julio Cesar, El mejor amigo del Hambre, Reverendo Parker edo Waltrapaxx, besteak beste.



Mamen Rodrigo.

GOIENKARIA

JENDARTEA > EMAKUMEAK

Amuskaren ikastaroetan 40 bat lagunek dihardute

Urriko lehenengo astean hasi zituzten ehoziri, olio-pintura, patchwork eta eskulanak egiten

Azaroan hamabi orduko sukaldaritza tailerra egiteko asmoa dute, gozogintzaren gainekoa

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Hasi dira dagoeneko Amuska emakumeen elkarteak gertatutako ikastaroak. Eskolak urriaren hasieran hasi ziren eta kultura etxean egiten dituzte.

Astero bi ordu ematen ditu bakoitzak aukeratutako zereginen. Astelehen arratsaldean, ehoziri-lanak eta bainika dituzte; Idokia Ibañez arrasatearrak ematen ditu horren gaineko eskolak. Amuskako kide Gurutze Idigorasek azaldu digu ikastaro horretan hamar lagunek parte hartzen dutela.

Martitzenetan hitzordu bikoitza dute: goizean, urtero arrakasta handia duen ikastaroa dute emakumeek; olio-pinturarena, hain zuzen ere. Idigorasen esanetan: "Jendearren gustukoa da hori, hasi berri dugun ikasturte

honetan hamabi pertsona gaude". Maria Jesus Carrillo eskoriatzarrak arduratzen da ikasleek aukeratzen dituzten irudiaren gaineko azalpenak emateaz.

PATCHWORK

Arratsaldean, berriz, patchwork ikastaroa dago. Zortzi lagun joaten dira astero Mari Carmen Burgosek ematen dituen eskoletara. Lana ondo irten dadin jarraitu beharreko arauak ematen dizkie eta emakume gehienek etxean jarraitzen dute eskoletan hasitako lanarekin. Eguazten arratsaldean, azkenik, eskulanak egiteko aukera dute. Ikastaro horrek ere oso harrera ona du eskoriatzarren artean. Aurten, guztira, 14 lagunek eman dute izena.

Idigorasek aipatu du eskolak otsailera arte iraungo dutela eta,



Goiko irudia eguazten arratsaldean hartuta dago, eskularen ikastaroan.

M.B.

bi asteko geldiunearen ondotik, ikastaroekin hasiko direla berriro. Horretarako, baina, izenematea zabalduko dute, bakoitzak gura duen ikastaroaren izena eman dezan.

SUKALDARITZA TAILERRA

Horietaz gain, Amuska elkarteak lanean dihardu ekimen berriak gertatzen. Data zehatza oraindik erabakitzeke badago

ere, Idigorasek aurreratu digu azaroan sukaldaritza tailerra egiteko asmoa dutela, Bizi-ikasirekin elkarlanean; are gehiago, gozogintzaren gainekoa izango dela eta iraupenari dagokionez hamabi ordukoa izango dela ere aipatu digu. Amuskako kideak gaineratu du, Gabonei begira, buruan dutela sukaldaritza gaineko bigarren ikastaro bat gertatzea.

GAZTEAK

Masaje tailerra dute domekan gaztelekuan

Interesatuak hezitzaileei esan edo Txatxilipurdira deitu behar dute

M.B. > ESKORIATZA

Domekan masaje tailerra izango dute Eskoriatzako gaztelekuan, 18:00etan. Gari Lopez de Munain izango da tailerra koordinatzailea arduratuko dena. Txatxilipurditik azaldu dutenez, tailerra doakoa izango da eta 12 eta 16 urte bitarteko edozein gazte eman dezake izena horretan. Interesa dutenek gaztelekuko hezitzaileekin jarri behar dute harremanetan edo Txatxilipurdira deitu, 943 79 54 46 telefono zenbakira.

Hori, domekari dagokionez. Baina biharko ere beste ekimen bat dago aurreikusita. Mendi irteera egingo dute arratsaldean.

HANKAPALUAK ETA FIMOA

Bestalde, azken bi aste bukatu ere hainbat ikastaro izan dituzte herriko gaztelekuan. Urriaren 17an hankapaluekin ibiltzeko aukera izan zuten zortzi gazte Luis Ezeiza ikastetxeko patioan. Zuhaitz Larrañaga bergararra izan zen tailerra bideratu zuena. Hilaren 12an, berriz, fimo ikastaroa izan zuten gaztelekuan.

UDALA > TEKNOLOGIA BERRIAK

Udal Artxibo Historikoaren inbentarioa ikusgai dago 'www.eskoriatza.net' webgunean

1960. urte arteko dokumentuen inbentarioa sailkatu eta digitalizatzen hasi ziren 2001ean; Internetez kontsulta daiteke orain

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udal Artxibo Historikoaren inbentarioa ikusgai jarri dute Udalak duen webgunean: www.eskoriatza.net. Jakina denez, Udalak webgune berria jarri du martxan orain dela gutxi eta apurka eduki berriak sartzen dihardute. Azkena, esan bezala, Udal Artxibo Historikoaren inbentarioa.

Horretan, Udalak historian zehar sortutako informazioa jasotzen da. Zati bat Serapio Muxi-

karen taularen arabera antolatzen. Baina 2001ean, Eskoriatzako Artxibo Sistema ezartzeko proiektua jarri zuten martxan honako helburuarekin: udal dokumentuen ondarea antolatzeko eta digitalizatzea eta, lan horren ondorioz, fondo administratibo eta historikoa kontsultatzeko eta gordetzeko lanak erraztuko dituen artxibo sistema orokorra diseinatzea.

Ordutik hona eginikoa publiko egin du orain Udalak; hala, ikerzaileek edo historian interesa dutenek kontsulta dezakete.

ZAHARRENA, 1947KOA

Artxiboan 1960ra arteko dokumentuen inbentarioa jaso da, gaien arabera antolatuta, hala nola hiri gutunak, errege-agin-ak, ordenantzak, auzi zibilak eta notario-eskritura. Dokumenturik zaharrena 1947koa da.

Interesatuak inbentarioa webgunean kontsulta dezakete eta jarraian, interesgarri izan daitekeen edozein dokumentu ikusiz gero, nahikoa izango dute hirigintza@eskoriata.net helbidera idaztea, Eskoriatzako Udal Artxiboan hitzordua eskatzea edo 943 71 44 07 telefono zenbakira deitzea.

DATUA

165

METRO LINEAL

Udal artxiboak 165 metro lineal ditu paperean. Paper artean ibili beharrean, baina, orain Internet bidez ikus daiteke Eskoriatzako Udalak martxan jarri duen webgune berrian.

oharrak

UMEAK

> **Kaxa magikoa izango dute gaur Tortolis ludotekan**

Egubakoitzero bezala, gaur, egubakoitza, ekintza berezia egingo dute ludotekan. Kaxa magikoa izango dute, 18:00etan.

KIROLA

> **Kirol hitzorduak kiroldegian**

Kirol hitzordurik ez da faltako aste bukaeran. 16:00etan, Euskal Ligako areto-futbola egongo da Intxaurtxuetako kiroldegian. Etxekoek Lagun Onak taldekoak hartuko dituzte. Jarraian, 18:00etan, senior mailako nesken saskibaloia norgehiagoka izango da.

ERAKUSKETA

> **Hego Amerikako lekuen gaineko erakusketa Ibarraundin**

Astelehenean, hilak 26, erakusketa zabalduko dute Ibarraundi museoan. Hego Amerikako lekuen eta bizimoduen gainekoa izango da hori. Honako ordutegian bisitatu ahalgo da, urriaren 30era arte: astele-

henetik egubakoitzera bitartean, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

UMEAK

> **Estitxu Mentaberri ipuin kontalaria egunean liburutegian**

Ipuin kontalarien tartea liburutegira itzuliko da datorren astean. Egunean, Estitxu Mentaberri kontalaria izango da han, 18:00etan, giza balioen gaineko ipuina kontatzen.

ZINEMA

> **'Mugarik gabeko zinema'**

Ibarraundin *Mugarik gabeko zinema*-ren II. erakustaldia dago hilaren 29an: *Migrazioa* delakoa. 19:00etan izango da.

ELIZA

> **'Bezperak' errezatuko dira azaroaren 1ean parrokan, 17:00etan**

Azaroaren 1ean, Domu Santu egunean, meza egongo da 12:30ean. Horretaz gain, 17:00etan, *Bezperak* delakoak errezatuko dira San Pedro parrokan.

> UDALA

Herritarrei dei egin diete euren aisialdian erakusteko

Herritarrek aisialdian egiten dituzten gauzak ezagutzera emateko hainbat ekimen antolatatu ditu Udalak. Esaterako, *Antzuolarrak munduan zehar* egitasmoa. Antzuolarren lan gehiago ikusgai ipini nahi dituzte eta herritarrei jakinarazi nahi diete norbait gertu balego, Orlanen erakusketa antolatuko luketela. Interesatuok udaletxera deitu, Kultura Batzordeko edozeini esan edo kultura@antzuola.net helbidera idatz dezakete.

> ZINEMA

'Donnie Darko' filma emango dute domekan gaztetxean

Gaztetxeak urrirako gertatu duen zinema emanaldia domekan, urriaren 25ean, izango da, 18:00etan, gaztetxean. Zientzia fikzioko *Donnie Darko* filma emango dute. Heriotzaren atzaparretatik ihes egin ostean, munduaren amaiera iragartzen duen untxi erraldoi baten gaineko irudipenak dauzkan nerabe baten istorioa kontatzen du filmak. Existenzialismoak eta paradoxek bat egiten dute filmean.

> IRTEERA

Abiadura Handiko Trenaren ibilbidea egingo dute oinez

Domekarako ibilaldia antolatu dute AHT pasatuko den bidean barrena. Sagastitik 09:00etan abiatu, Goizperren atzeko aldera joan eta Loieta bidetik Mendibil gainera igoko dira. Presa ikusi, Ertzillara jaitsi eta iturria bisitatuta Teleixatik, San Blasera eta Erautzara joan eta han Aritzagabasaldeko iturria eta mehategia ikusteko aukera egongo da. Gero, Galardiko iturrira eta trenbidetik Kaxetara joan ostean kalera itzuliko dira.

> ELIZA

Parrokia berritzeko lanen gaineko bilera egunean izango da

Parrokia zaharberritzeko lanak azaroaren bigarren hamabostaldian hasiko dira eta lanak egiteko, gutxi gorabehera, 10 hilabete beharko dira. Hori dela-eta, parrokiaren azaroaren 15ean egingo dute azken meza eta hortik aurrera elizkizunak Antiguako elizan egingo dituzte lanek iraun bitartean. Herritarrei informazioa emateko, egunean, urriaren 29an bilera izango da, 20:00etan, parrokiako saloian.



Goizperko eta Matz-Errekako ordezkariak Euskara zinegotzi eta teknikariarekin euskara planen gaineko batzarrean. I.A.

ENPRESA > HIZKUNTZA

Matz-Erreka eta Goizper, 10 urte euskara planekin

Elay lantegia izan zen euskara planak abiarazten aitzindari 1991n eta herriko beste bi lantegiok orain dela hamarkada bat ekin zioten

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Enpresan euskararen presentzia eta erabilera areagotu eta errotzeko estrategia da euskara plana, euskaraz lan egitea helburu duena. Elay izan zen aitzindari arlo sozio-ekonomikoan euskara plana garatzen eta haren bideari jarraitu zioten Matz-Errekak eta Goizperrek orain dela 10 urte.

Euskara plana zer zen ia ez zekitenean, hainbat langileren kezkatik etorri zen planak abian jartzeko ideia eta Emun kooperatibaren aholkularitza jaso zuten.

AHOZKOTIK IDATZIRA

Goizperko Fernando Iturbek esan digunez, "langileen %94k euskaraz hitz egiten bagenekien. Ahoz-

koan erabiltzen zen, baina idatzian eta informatikan oso gutxi zegoen".

Matz-Errekako Juan Kruz Lizarralde dio, batik bat, irudia hobetu dela: "Gaur egun informazio batzar batzuk ere euskaraz egiten dira, lehen dena erdaraz zenean. Idatziz ere euskara gero eta gehiago erabiltzen da".

PILOTA > TXAPELKETA

Frontoi txikian 14 lagunek jardungo dute lehia zapatuetan

Liga eran jokatu da txapelketa, azaroaren 28ra bitartean, eta partiduak 10:00etan hasiko dira



Ota (ezkerrean) eta Patri, partidua jokatu aurretik Faran epailearekin. IKER IRIZAR

I.A. > ANTZUOLA

Zapatuan, urriaren 17an, hasi zen frontoi txikiko II. txapelketa eta, aurten, 14 lagunek hartuko dute parte, bi taldeetan banatuta; batzuek aurrean jokatu dute eta besteek atzean. Lehenengo jardunaldian bost partidu izan ziren jokoan eta Mikel, Ota, Irimo, Jon Iturbe eta Bidurre izan ziren irabazle euren partiduetan.

Lehen taldean, Irimo-k 22-12 irabazi zion Faran-i; Ota-k 22-11 Patri-ri; eta Mikelek 22-10 Balerdi-ri. Bigarren taldean hauek izan ziren emaitzak: Bidurre 22-Agurre 20 eta Jon Iturbe 22-Aitzol 16.

SARIAK

Partidu guztiak zapatuetan jokatu dira, 10:00etan hasita, eta urriaren 24an honako partiduak izango dira jokoan: Irimo-Patri, Mikel-Faran, Palomo-Ota, Bidurre-Endika, Aitzol-Agurre eta Zubi-Torre.

EKITALDIAK

Enpresak eta Udala, euskal olinpiadetan

Antzuolako Euskara Planen Topaketa egingo dute urriaren 30ean Goizper, Matz-Erreka eta Elay enpresek eta Udalak. Euskara Planak herrira zabaltzeko jai giroko topaketa izango da Zurrategin, 18:00etan hasita.

Lau taldeetan banatu eta herri kirolak (kaskara-jokoa, eski-jokoa, txinga eramatea, kupelari bira eta sokatira); tortilla lehiaketa; eta mus txapelketa egingo dituzte lehenengo eta ondoren, luntxa eta euskara planen gaineko emanaldia egingo dute. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian izango dira ekitaldiak. Bestalde, euskara planen harira, Xabi Paya bertsolaria etortzeko da Antzuolara euskararen gaineko hitzaldi bat egitera.

Bai Goizperrek baita Matz-Errekak ere lantegiak barrutik euskalduntzea zuten helburu, eta, hein handi batean, lortu egin dela diote. "10 urteotan jende aldaketa handia izan da. Hasieran, euskaraz idazteko zailtasun handien zuten adinean gora zihoazenez, eta, euskaraz hezitako gazteak sartu ahala eta metodologiarekin eta jendearen parte-hartzearekin, aurrerapen handiak izan dira: errotulazioa, idatzi laburrak... Informatikan ere programak euskaraz dauzkagu eta argi dugu aplikazio berriak euskaraz egin behar direla", dio Iturbek.

"Euskara enpresako sistema barruan txertatu da, baina orain komeni zaigu barneratzea eta zuzendaritza inplikatzeko", esan digu Lizarralde.

Enpresetan badute euskara planen berri; orain, herriari azaldu nahi diote zertan diharduten.

MUJIKA HARATEGIA



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak**

**Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34**

HEZKUNTZA > ELKARBIZITZA PLANA

Gurasoak behar dira eskolaren Elkarbizitza Plana lantzeko

Asteon egin dute eskolan egitasmoaren aurkezpena, eta Maala guraso elkarteak bilera deituko du gurasoen batzordea osatzeko

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Herri eskolak erronka handia du aurten: ikastetxeko Elkarbizitza Plana martxan jartzea. Curriculumaren barruan derri-gorrezkoa izango da ikastetxe guztiendako 2010eko ikasturteko aurrera. "Guk aurten sartzea erabaki dugu", adierazi du ikastetxeak. "Zenbat eta arinago lanean jarri, hobeto izango da. Uste dugu hezkuntzan bizikidetzaren garrantzitsua dela".

Azaldu dute eskolan dauden lau estamentuek -irakasleak, ikasleak, gurasoak eta zerbitzuetako langileak- hartu behar dute la parte prozesu horretan. "Helburua, aurten, denen artean elkarbizitza zer den jasotzen duen



Izaskun Altuna, eguazteneko aurkezpenean.

LARRAITZ ZEBERIO

dokumentu bat sortzea da, eta datorren ikasturte hasierarako elkarbizitzako behatokia eratu lagatzea". Irakasleek osatu dute euren batzordea, eta orain gurasoena lehenbailehen sortzea komeni da.

SENTSIBILIZAZIOA HELBURU

Guraso batzordearen lana ikastetxeko gurasoen artean programaren inguruko sentsibilizazio kanpaina egitea izango da. "Komeni da Gabonetarako eskolako guraso guztiari galdetegi

KOORDINATZAILEA

Izaskun Altuna da koordinatzailea

Bost irakaslek osatzen dute Elgetan Elkarbizitza Planerako irakasleen batzordea, eta Izaskun Altunak koordinatuko du programa. Liberatuta dago aurten, eta hilean behin batzortuko da Eibarren prozesu horretan orientazioa emateko ardura duten profesionalekin. Batzar horietan jarraitu beharreko pausoak azalduko dizkiote, baita lantzeko interesgarria den materiala eskaini ere. "Komeni da prozesuan ahalik eta guraso gehien inplikatzea", adierazi du. "Denen artean egin behar dugun zerbaitea".

batzuk betearaztea, gurasoak talde txikitik antolatzea eta talde bakoitzak bere definizioa adostea. Datorren hilean martxan behar luke talde horrek, koordinatzailearekin lehenbailehen lanean hasteko".

> ERRETIRATUA

Podologoak hilaren 29an etorriko da

Podologoak hilaren 29an, eguena, egingo du urriko bisita Elgetara. 15:00etan hasiko da kontsulta pasatzen, eta ez ditu 22 lagun baino gehiago hartuko. Txanda hartzeko deitu Nati Arrieta: 943 76 80 77.

Bestetik, bigarren saria ekarri dute Xalbadorpe elkarreko erretiratuek hilaren 15ean Mendaron jokaturako gastronomía lehiaketatik. Prestatu zuten legatza saltan txirlekin. Nati Arrieta eta Irene Bolinaga izan ziren Elgetako ordezkariak.

> HIRIGINTZA

Birgaitze plan bereziaren aldaketa proposamena

Hiri antolamendua definitzen du Birgaitze Plan Bereziak, eta Udalak Elgetakoa berri-erabaki du, aurrekoa zaharkituta dagoelako. Aldaketa proposamena landu du, eta herritarrei aldaketa horiek azaltzeko batzarra deitu du hilaren 28rako, eguaztena, 19:00etan. "Helburu nagusia da erdigunean ditugun eraikin zaharkituak eraberritu ahal izateko bideragarritasuna bermatzea", azaldu dute Udaletik.

> LANAK

Ur hornidura ziurtatzeko lanak amaituta Azurtzan

Bi urte luzatu dira lanak, baina azkenean amaituta daude. Azurtza auzoan ez dute aurrerantzean, orain arte moduan, ur hornidura arazorik izango. Hiri bizilagun daude auzoan -bi bertan bizi izaten- eta ur hornidura arazoak izan dituzte orain arte, esaterako, ur eskasia izan denean. Egindako ur biltegi berriarekin pentsatzekoa da amaitu dela arazo hori auzokideendako.

POLITIKA > ARALARREN ERANTZUNA

Aralar: "Gogoan izango dute EAJ-EAko zinegotziek bakoitzak egindako lana"

Aurreko astean EAJ-Hamaikabat taldeak egindako kritikei erantzun die Aralarrek

L.Z. > ELGETA

Oposizioa EAJ-Hamaikabat taldeak gogor kritikatu ditu Elgetako Aralar eta Rebea Ubera. Haurreskola berriaren aurkezpenean aurretik egindako lanari errekonozimendua eman ez izanarekin agertu ziren kritiko.

Asteon, Elgetako Aralarrek kritika horiei erantzuna emateko idatzia bidali du. "EAJ-EAko dio berak hasi zuela bidea, baina atzera egin besterik ez dago ikusteko duela sei urte EAJ-EA eta Aralar zeudela Udal Gobernuan, eta orduan bultzatu zela haurreskola; hain zuzen ere, Rebea Ubera batzordeburu zuen Hezkuntza Batzordetik. Eta gogoan izango dute EAJ-EAko zinegotziek haurreskola garatzeko bakoitzak egindakoa. Batzuek trabak ipini eta beste batzuek proiektua aurrera atera. Hau ez du Aralar-Independenteak taldeak esaten, Haurreskola Partzuegoko arduradunei galdetu berterik ez dago".

UMILTASUNA

"Umiltasunetik dihardu lanean Aralar-Independenteak taldeak. Horrela egin du orain arte, eta horrela jarraituko dugu, herrirako onak diren proiektuak ahalik eta adostasun zabalarekin aurrera ateratzen ahaleginduz", adierazten du Aralarrek idatzian.

Gaineratzen dute legeak esaten duela sektore bat gartzen denean aprobetxamenduen %10 Udalari dagokiola. "Legeak herriari aitortzen dio norberaren meritu moduan zabalteak argi lagatzen du EAJ-EAko zinegotziek esandakoak zuen helburua".

Eskerrak ematen amaitzen du idatzia Aralarrek: "Nabarmendu gura dugu eta eskerrak eman, haurtzaindegiaren inaugurazioan egin genuen moduan, orain dela sei urte haurtzaindegi aurrera ateratzeko laguntza eman zuten herritarrei. Benetako protagonistak horiek dira, herritarrak, eta ez EAJ-EA edo Aralar-Independenteak".

HIRIGINTZA > SEGURTASUNA

Patronatuaren eraikinarekin zer egin aztertzen ari da Eliza

Elgetako abadeak uste du Udalari dagokiola segurtasun neurriak hartzea

baina oso zaila da. Umeek sua egingo dute, eta leihoak zabaltzen dituzte."

ELIZAREN IRITZIA

Gotzaindegiarena da eraikina, eta Elgetako abade Juan Cruz Juaristik esan digu Udalarekin harremanetan daudela. "Udalak badu interesa, eta negoziatioetan gabiltza. Hari dagokio segurtasun neurriak hartzea. Eskatzen diogu behin-behineko neurriak hartzeko; sarrera guztiak ondo tapatzeko eta hesiak ipintzeko".

L.Z. > ELGETA

Domingo Iturbe patronatuaren eraikinean aurreko astean gertatutako ezbeharrak ez da lehenengo izan. Inguruko bizilagunek esanda, Udalak badaki umeak ibiltzen direla bertan. "Saiatzen gara eraikina itxita mantentzen,

4 t'erdiko pilota txapelketa

Motorrak berotzeko eta eskuak probatzeko norgehiagokak gaur eta etzi

L.Z. > ELGETA

Aurtengo txapelketan izena eman duten 20 bikoteetatik zazpi kantuan ikusteko aukera izan genuen aurreko aste bukaeran.

Honakoan, beste zazpiren sasoi puntua ikusteko aukera izango dugu. Txapelketa hasi berri duten pilotariendako eskuak probatu eta lehenengo puntuak batzen joateko aukera.

EMAITZAK

1. Larrea-Belamendia / Alkorta-G. Bolinaga	13-22
2. J. Bolinaga-Izagirre / Arantzabal-Goenaga	10-22
3. Calleja - Arkazaro / Arbulu-M. Elgoro	12-22
4. Osoro-Bouzas / Gorrotxategi-Atorrasagasti	22-10
5. Ibarluzea-Telleria / Morales-Zenitagoia	22-7
6. Retolaza-Larrañaga / Ramos-Etxebarria	22-12
7. Peñalver-Lazkano / J. Irazabal-Ormaetxea	22-15

GAURKO PARTIDUAK (hilak 23, 20:30ean)

1. J. Bolinaga-Izagirre / Arbulu-M. Elgoro
2. Zubiaurre-Ugarteburu / Goenaga-Al. Arantzabal
3. O. Erostarbe-Arizmendiarieta / Odriozola-Gallastegi
4. U. Alkorta-Garate / Ar. Arantzabal-K. Erostarbe

DOMEKAKO PARTIDUAK (hilak 25, 11:00etan)

6. Calleja-Arkarazo / Morales-Zenitagoia
7. Ibarluzea-Telleria / L.A. Alkorta-Gorka Bolinaga
8. Gaizka Bolinaga-I. Irazabal / Billa-E. Elgoro

KULTURA > DANTZA

Arabako Dantzarien Biltzarraren erakustaldia zapatuan

200 dantzari inguru etorriko dira zapatuan herrietako dantzen topaketan parte hartzera

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Arabako Dantzarien Biltzarrak bertako dantzen XI. topaketa ospatuko du bihar, zapatua, Aramaion. 200 dantzari inguruk hartuko dute parte; Pipaon, Ekora, Gasteiz, Maeztu, Eltziego, Araia, Gesaltza Añana eta Villabuena de Alavatik etorriko dira, besteak beste. Dantza talde bakoitzak bere herriko dantzak egingo ditu. Urtero egiten den erakustaldi horren helburua da herrietako dantzei eustea.

Aramaio badauka bertako dantza bat: txakolin-dantza. Horixe izan da, gainera, topaketa aurten Aramaion egitearen arrazoietakoa bat. Hori

horrela, Aramaio Lagun Artea dantza taldeak ere hartuko du parte topaketan. Anfitriio lanak ederki asko egingo dituzte, gainera; adin desberdinetako hiru talde osatu dituzte eta azken 50 urteetan dantza taldean ibili diren aramaioarrek batzea lortu dute erakustaldian parte hartzeko.

18:00etan kalejira egingo dute Ibarako kaleetan barrena, eta erakustaldia 18:30ean egingo dute herriko plazan. Eguraldiak laguntzen ez badu, kiroldegian egitea aurreikusten dute. 21:00etan, herri afaria egingo dute kiroldegian, eta 23:00etan, berriz, erromeria herriko plazan.

Martin Arriolabengoa > Euskara zinegotzia

"Puntuazio horrek esan nahi du gauzak ondo egiten ari garela"

A.B. > ARAMAIO

Kontseiluak udalen hizkuntza politikak neurtu ditu eta Aramaio Udalak 9,10eko nota lortu du; bederatzigarren postuan dago Hego Euskal Herrian neurtutako ehunetik gorako udalen sailkapenean.


9,10eko nota lortu duzue. Ez dago batere gaizki.

Ez. Oso pozik gaude. Ezustean hartu dugu berria, ez genuen eta horrelakorik espero. Pozik gaude: puntuazio horrek esan nahi du gauzak ondo egiten ari garela eta bide onetik goazela.

Kontseiluak azpimarratu duen puntu bat da euskarari eskainitako aurrekontua. Zenbatekoa da?

Aurten, udal aurrekontuaren %4,11 Euskara batzordera bideratu dugu. Euskara gai garrantzitsua da guretako. Oso pozik gaude Euskara Batzordea lortzen ari den emaitzekin. 12 pertsona inguruk osatzen dugu batzordea, esparru desberdinetako jendea dago bertan: merkataria, herriko elkarteetako ordezkariak... Jendea oso inplikaturik dago; batzordetik irteten ari diren ekintzak oso positiboak dira.

Euskara Plana izatea da Kontseiluak baloratu duen beste gauza bat.



Martin Arriolabengoa. GOIENKARIA

"Gipuzkoako udal askoren aurretik egotea harro sentitzeko modukoa da"

Lehen esan bezala, euskaren erabilera sustatzea eta herri euskalduna izatea garrantzitsua da guretako. Orain dela hilabete batzuk, euskararen kale erabilerraren azterketa egin genuen, eta datuak ez ziren oso onak izan; arduratu egin ginen. Hori ikusita, herriko esparru desberdinetan euskara bultzatzeko lanetan

ari gara; merkatariekin kanpainak egin ditugu, euskara ikasteko ikastaroak antolatuta ditugu... Horrez gain, euskal ordenantza batzuk ere onartu dira Udalean; orain, jarraipena egin behar zaie.

Hobetzeko puntu batzuk ere aipatu ditu Kontseiluak.

Bai. Aipatzen direnetako batzuk konpondu egin ditugu. Adibidez, baldintza plegu guztiak dagoeneko euskaraz publikatzen dira. Bestetik, lehen, zerbitzu batzuetarako baldintza pleguetan ez zen euskara exijitzen, eta hori ere aldatu egin dugu. Aipatzen diren beste akatsak ere konpontzeko bidean daude.

Uemako kide izateak lagundu egiten duela uste duzue?

Bai, noski. Uemak asko laguntzen du; bide bat proposatzen dizu eta exijitu ere exijitzen ditu gauza asko. Udalean asko nabari dugu Uemaren lana; oso tresna positiboa da udaletxean euskaraz bizi izateko.

Lortutako emaitza lanean jarraitzeko motibazioa izango da, ezta?

Bai. Duda barik. Oso pozik gaude. Arabako udal bat gara eta Gipuzkoako udal askoren aurrean egotea harro sentitzeko modukoa da.



ANDER MONEDERO

Jose Luis Kortak Kazatxon bapo bazkaldu zuen

Jose Luis Korta Aramaion ikusi dugu asteon; oraingoan, artzainez inguratuta. Anboto azpian dagoen Kazatxo elkartearen urtero bazkaria egiten dute eta bertan elkartzen dira Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako artzainak. Aurten gonbidatu berezia izan dute: Jose Luis Korta. 84 urteko Basilio Ugartek lau bildots prestatu zituen eta arraunlaria pozik zen. "Bapo bazkaldu dugu; urtebetean jan barik egoteko moduan. Datorren urterako, neure burua gonbidatu dut", zioen Kortak. Artzainak ere, pozik: Kortak sekulako giroa ipini zuen bazkarian eta oso gertuko egon zen. Jakin dugu bazkalostean, gainera, hark garbitu zituela platerak.

ERLIJIOA > MEZA

Ezkontza gutxi egon da Dorletako santutegian

Etzi esango dute uda sasoiko azken meza Dorletan; azaroaren 1etik aurrera parrokiari

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Etzi, hilak 25, ospatuko dute udaberri-uda sasoiko azken meza Dorletako santutegian. Arantzazutik etortzen den Martin Mendizabal fraide frantziskotarrak dauka

Gatzagako meza guztien ardura eta Domu Santu egunean hasi (azaroak 1) eta maiatzaren 1a bitartean San Milixan parrokiari esango ditu ohiko ordutegian (12:30).

SEI EZKONTZA BAKARRIK AURTEN
Dorletako Amaren irudia gordetzen duen XVII. mendeko santutegi txikiak ezkontza asko hartu izan ditu. Azken urteotan, baina, poliki-poliki jaitsi egin da kopurua eta aurten sei bakarrik ospatu dituzte bertan, irailean azkena: "Saso baten, urtean 30etik gora ospatzen ziren, baina gero eta gutxiago datoz. Datorren urterako ere oso bikote gutxi hartu du lekua", jakinarazi du santutegiko kontuen ardura duen Tere Aranburuzabalak.

Ezkontzek behera egin arren, beste era bateko ospakizunek egin dute gora eta orain, zilarrezko eta urrezko ezteiak ospatzera doaz familia asko Dorletara.

AMA BIRJINAREN URTEURRENA
Txirrindularien zaindaria da Dorletako Ama eta domekan, hain zuzen, beteko dira 51 urte koroatu zutela, 1958ko urriaren 25ean. Iaz egin zituzten urteurreneko ospakizunak Txirrindularitza Batzordeak eta Udalak antolatuta, baina aurten ere hainbat txirrindularik izango dute gogon eguna. Hala, Gasteizko txirrindulari talde batek bisita iragarri du domekarako eta hurrengo zapatuan, hilak 31, Legutiokoak etorriko dira: "Halakoetan lore eskaintza egiten diote ama birjinari, eskerrak eman eta babesa eskatzeko", dio Aranburuzabalak. Arlaban gainean dagoen irudiak ere lore sorta asko jasoko ditu egunotan.



Txirrindulariek Ama Birjinari egindako lore eskaintza Dorletako santutegian. M.A.

KOMUNIKABIDEAK > INTERNET

Sare sozialen gaineko ikastaroak gaur KZgunean

Aitor Madrid dinamizatzailea goiz partean izango da Pilar kaleko egoitzan (09:00-13:00)

M.A. > LEINTZ GATZAGA
Interneten gaineko zalantzak argitu eta gatzagarrei hainbat ikastaro eskaintzeko, Aitor Madrid dinamizatzailea etorriko da KZgunera gaur goizean (09:00-13:00). Bi orduko ikastaro motzak ditu aukeran, oso erabilgarriak guztiak sare sozialak erabili eta Interneteko azken kontuak ezagutu gura dituztenentako: *Google* tresnak, *Gmail*, *Youtube*, *Flickr*, *Blogger* eta beste hainbat.

Gainera, software librearen gaineko azalpenak emango ditu Madridek, eta Interneten zelan jarri iragarkiak erakutsi. Bestalde, osasun txartel elektronikoen eta Izenperen gaineko argibideak eskainiko dizkie interesa duten herritarrei. Horiek bideratzeko aukerarik ez dago Gatzagako KZgunean, baina Debagoieneko beste herri batzuetako bulegoetan zer egin behar den jakinaraziko die.

> IRTEERA
Gaur doaz erretiratuak Nafarroara, Iratxe ingurura, egun-pasa

Toki Eder elkarteko erretiratuak Nafarroara doaz gaur egun-pasa. Urtero egiten duten udazkeneko irteera da, eta, beste batzuetan legez, 25 bat lagun joango dira -aurrekoetan baino gutxiago.

Nafarroa erdiko parajeak ezagutuko dituzte gatzagarrak; Artaxoa herri entzute-tsuko harresia eta gaztelua, esaterako. Bazkaltzera, ostera, Aiegi herrian dagoen Iratxe hotelera joango dira. "Bazkari ederra gertatzen dute eta bazkalostean dantzaldia eskainiko digute", dio erretiratuen elkarteko kide batek.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Urriko zozketa

Sariak irabazteko

HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 20 euro

XABIER LETE IKUSTEKO SARRERAK



Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



LIBURUA



Bidali AG ATXAGA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



KAMISETA



Bidali AG KAMISETA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



MP3 BAT



Bidali AG EROSKI
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARI NAGUSIA

IRAILA-AZAROA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



Amillaga 32 • 943 76 59 60
(auto garbigailu ondoan)

- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

Jonathan Perez > Atleta

"Jasoko dudan saria urte hauetako lanaren errekonozimendua da"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Jonathan Perezek (Arrasate, 1981) Gipuzkoako atleta onenaren saria jasoko du gaur, egubakoitza, Federazioak antolatu duen galan. 13 urterekin hasi zen atletismoan, eta gaur egun Espainiako pertika jauzilari onenaren artean dago. Oraindik, baina, Arrasatekoari salto onena egitea geratzen zaio.

Iritsi da Gipuzkoako Federazioaren partetik errekonozimendua. Ordua zen.

Bai, baina lehenagoko urteetan oso ondo ibili den jendea saritu dute, eta aurten tokatu zait niri.

Gaurko galan norbaitek galdetuz gero saria nori eskaintzen diozun...

Ez nuke dudarik izango. Lehenik eta behin, Fernando Zufiriari, nire kirol ibilbidean izugarri

lagundu didan gizona delako. Gainera, Txufi-ri esker ezagutu nuen Jon Karla Lizeaga, gaur egun dudaren entrenatzailea. Eta sari hau Jon Karlarendako ere bada, pertikaren gainean gauza mordoa erakutsi dizkit-eta.

Zer-nolako urtea izan da?

Nahiko gorabeheratsua. Urtrilean hamargarren aldiz irabazi nuen Gipuzkoako txapelketa,

"Entrenatzaileak behar dira taldean atleta gehiago izateko"

"Nire errekonozimendua Fernando Zufiriari eta Jon Karla Lizeagari"

eta zenbateko polita da. Sevillan, pista estalian, bost metroko saltoa egin nuen, eta laugarren sailkatu nintzen Espainiako txapelketan, baina gero aire librean min hartu nuen. Hori ikusita, urtearen bigarren zatian gehiago zentratu nintzen entrenatzaile lanean.

Atleta izatearekin batera entrenatzaile ere zaitugu.

Orain dela sei urte inguru hasi nintzen Lander Errastirekin. Orain, berriz, Maialen Axpe, Lore Mar eta Malen Ruiz de Azuarekin egiten dut lan, eta eurek ematen didate atleta moduan izan ez ditudan poztasun asko eta asko. Hau da, nire ametsa beti izan da errekorrak gainditzea eta Espainia mailako txapelketak irabaztea, eta nik lortu ez dudana hiru neska hauek ari dira lor-

tzen; eta zelan, gainera... Jendea ez da konturatzen, baina kanpora lehiatzera joaten garenean jendeak zera esaten du: "Badatoz Arrasatekoak!".

Eurak ere pozik ibiliko dira oraindik lehiari dabilen atleta bat entrenatzaile izanda.

Bai, ikusten dutelako euren entrenatzailea oraindik ere Espainiako elitean dagoela. Dena dela, batzuetan dudak izaten ditut eurekin, akats bat zelan zuzendu, zer gomendatu... Horrelako zalantzak ditudanean Jon Karlarengana bidaltzen ditut, eta hark berehala antzematen du zer egin duten txarto. Hori bai, harekin egon ostean lur jota itzultzen dira, zorrotza delako [barre].

Lore Marrek Bidasoa Irun taldearekin fitxatu du, eta Maialen Axpek Bidasoarekin.

Bai, eta ondo etorriko zaie, klub horietan baliabide handia-

goak izango dituztelako. Hastezko, pertika gehiago izango dituzte eskura; izan ere, pertika jakin bat dago atletaren pisu eta salto egin nahi den marka bakoitzeko. Eta badira pertika gogorragoak ala bigunagoak.

Dena dela, Espainia mailan puntan dabilten pertika-jauzilari gazteak ditugu herrian, baina orokorrean klubeko atleta kopurua ez da handia.

Oso argi daukat harrobi ona izateko entrenatzaileak behar direla. Ni Txufi-k hartu ninduen, eta gertutik zaindu. Baina horrelako gizonak geroago eta gutxiago daude. Jendea behar da, lanerako gertu. Nik hiru neska hartu ditut, hau egiteko balio dutela ikusten dudalako; izan ere, ez nago gertu nire denbora librea seriotasunez ibili behar ez duten gazteekin alferrik galtzeko. Orain, Mikel Uribealgok ere oso talde polita osatu du.

AURRERA BEGIRA

Perezek 5,21 metroko saltoa du begiz jota

Arrasateko atletak badaki dagoeneko ez dela mutil koskorra; atletismoan goi mailan jarduteko ez, behintzat: "5,10 metroko marka daukat, baina marka hori erraz egin nuen, eta badakit hori ez dela nire muga, haratago joan naiteke. 2010ean Espainiako txapelketa jokatuko da Anoetan, eta hor ahaleginduko naiz 5,21 metroko marka egiten. Goi mailako atletismoari agur esateko marka ederra izango litzateke hori".



Jonathan Perez, eguaztenean, Mojategiko kirol instalazioetan: "Pena lehenago egin ez izana, belaunetan eta orkatiletan arazo gutxiago izango nituzkeen".

XABIER URTZELAI

PILOTA > AMATEUR MAILA

Aitor Elkoro izango da Gipuzkoako hautatzaile eta entrenatzailea

X.U. > ELGETA

Aitor Elkoro pilotari ohiak ardura berria izango du, Gipuzkoako pilotariaren hautatzaile eta entrenatzailea izango da-eta. Elkorok borondatezko lana egingo du Pilota Federazioarendako, eta gazteekin, 22 urte azpikoekin eta senior mailako pilotariekin jardungo du. Elgetakoak batez ere GRAVN izeneko torneorako prestatuko ditu

pilotari gipuzkoarrak. Txapelketa hori martxotik maiatzera bitartean jokatzen dute pilota federazio ezberdinen artean.

Iaz, Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Errioxako federazioak lehiatu ziren, 300 bat pilotari inguru. Elkorok adierazi du lan handia izango dela, eta lan horretarako Aritz Berraondo antzuolarraren laguntza izango du.

> ERRUGBIA

Kanpanzar ART taldeak Elorriorekin jokatuko du ligako lehen partidua

Arrasate errugbi taldeak babesle berriarekin ekingo dio denboraldiari; izan ere, Kanpanzar Harrobiak enpresarekin hitzarmena egin du eta aurrerantzean taldea Kanpanzar ART deituko da.

Arrasateko mutilek zapatuan hasiko dute denboraldia, eta hasiteko urteko partidua *beroenetako* bat izango dute, Elorriokoak etorriko dira-eta bisitan. Bihar 16:30ean izango da partidua, Mojategin.

> SQUASH-A

Urriaren 30ean eta 31n egingo dute Arrasaten Euskadiko txapelketa

Euskadiko squash txapelketa egingo dute urriko azken asteburuan Arrasaten, eta txapelketan esku hartu gura duenak urriaren 26a baino lehenago eman behar du izena 656 736 017 telefono zenbakira deituta (15 euro).

Txapelketaren aurkezpena, berriz, datorren eguaztenean egingo dute, Arteagan. Baina martitzenerako partiduen ordutegiak zehaztuta egongo dira www.squasheuskadi.com.

> ATLETISMOA

Soraluze-Bergara krosetan 500 korrikalari hartuko dituzte gehienez

Soraluze-Bergara krosak azken urteotan izan duen arrakasta ikusita, Antxintxika taldekoek erabaki dute gehienez korrikalari kopuru bat jartzea. Hala, urriaren 31n egingo duten krosetan, gehienez, 500 korrikalarik hartu ahal izango dute esku.

Gainera, sariak dirutan eman beharrean opariak banatuko dituzte aurten; hala, eliteko korrikalariak baino herriko atletak sarituko dituzte.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Reala-Cordoba
Zapatua. 18:00. Anoeta.

Hirugarren maila
Gernika-Aretxabaleta
Domeka. 17:00. Urbieta.

Gazteen liga nazionala
Aretxabaleta-Danobat
Zapatua. 17:45. Ibarra.

Gazteen euskal liga
Getxo-Bergara
Domeka. 11:30. Fadura.

Ohorezko erregiona maila (lehenengo preferentia)
Aloña Mendi-Ondarroako A.
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Euskalduna
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Mondra-Ordizia
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Erregional preferentia
Lazkao-Antzuola
Zapatua. 16:00. Arizti Handi.
Aretxabaleta-Orioko
Domeka. 16:30. Ibarra.

Lehen erregionala
Bergara-UDA Arizmendi
Zapatua. 18:15. Ipintza.

Gazteen ohorezko maila
Orioko-Mondra
Domeka. 17:00. Mendibeltz.
Zumaiako-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Aita Mari.

Gazteen lehen maila
Arizmendi-Urola
Domeka. 12:00. Almen.
Aretxa-ArizmenB-Bergara
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Ohorezko kadeteak
Bergara-Amaika Bat
Domeka. 11:30. Ipintza.

Ordizia-Aretxabaleta
Zapatua. 12:45. Altamira.
Beasain-Aloña Mendi
Zapatua. 15:45. Igartza.

Emakumezkoen liga
Bergara-Elgoibar
Domeka. 17:00. Ipintza.
Amaiak Bat-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Errotazar.
Mondra-Arizmendi
Zapatua. 18:30. Mojategi.

SASKIBALOAIA

Lehenengo maila
Urdaneta-MU
Domeka. 17:00. Leioa.

Senior autonomikoa
Getxo-Aloña Mendi
Zapatua. 20:00. Getxo.

Gipuzkoako seniorrak
Soraluce BKE-Santo Tomas
Zapatua. 16:00. Labegariet.
Aloña Mendi-Soraluce BKE B
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
MU-Katu Kale
Zapatua. 16:00. Musakola.

Senior emakumezkoak
Eskoriatza-Tecnun
Zapatua. 18:00. Intxaurtx.

Gazte gizonzkoak
Easo A-MU A
Zapatua. 18:00. Bidebieta.

ESKUBALOAIA

Euskadiko seniorrak
Ford Mugarri Arras.-Romo
Zapatua. 17:00. Iturripe.

Euskadiko senior mailako emakumezkoak
Verkol Aloña-Urdaibai
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Euskadiko gazte mailako emakumezkoak
Basauri-Verkol Aloña
Domeka. 12:00. Basauri.

Euskadiko kadete mailako emakumezkoak
Basauri-Verkol Aloña
Domeka. 10:15. Basauri.

Lehen territorial maila
Aloña Mendi-Irongo gaztiak
Domeka. 12:00. Zubikoa.
Soraluce BKE-Amenabar.
Domeka. 12:15. Labegar.

Bigarren territoriala
Tolosa-Arrasate
Domeka. 11:15. Iturripe.

Gazte mailako gizonzko
Leizaran-Bergara Soraluce
Zapatua. 16:30. Andoain.

PILOTA

Eskoriatzan
Gaur, 19:00etan hasita:
Eskoriatza-Alde zaharra
Eskoriatza-Tartaloetxe
Eskoriatza-Hernani

Elgetan
Gaur, 19:15ean hasita:
Ozkabil1-Aretxabaleta
Ozkabil2-Beloki

Bergaran
Gaur, 20:00etan hasita:
Bergara-Hernani
Bergara-Arrasateko2
Bergara-Oiarpe2

Aretxabaletan
Gaur, 20:00etan hasita:
Aretxabaleta-Segurako
Aretxabaleta-Bergara

XAKEA

Arrasate Hiria torneo
Gaur, 19:00. Altamiran,
lehenengo jardunaldia.



Mikel Palacios, Trintxerperen kontrako partiduan, erdilaria gaintu eta eskuin hegaletik jokaldia egiten.

GOIENKARIA

FUTBOLA > LIGA

Aloña Mendik lider dagoen Ondarroa izango du aurrean

Mondrak eta Bergarak ere etxean jokatu dute asteburuan; Gernikan jokatu du Aretxabaletak

XABIER URTZELAI > BERGARA
Aloña Mendik ligako sei partidua irabazi dituen Ondarroako Aurrera taldearen kontra jokatu du domekan (16:30, Azkoagain). Orain arte zerbaki ikusgarriak batu dituzte Ondarroakoek; erasoan benetan dira arriskutsu, par-

tiduko bi gol baino gehiago egin dituzte-eta. Mondrak sailkapenaren erdian dagoen Ordizia hartuko du zapatuan (Mojategi, 16:30). Azkargortaren mutilek partidu bakarra irabazi dute ligan; ordua da zelaian erakutsitako jokoak fruituak ematen hasteko. Berga-

rak, berriz, sailkapenean atzerago dagoen Euskalduna hartuko du (Agorrosin, 16:30). Joan den astean etxetik kanpora lortutako garaipena etxean birbildu nahi dute mahonerok.

ARETXABALETA GERNIKARA
UDAK domekan (17:00) jokatu du bosgarren postuan dagoen Gernikaren kontra. Bizkaikoek hiru puntu gehiago baino ez dituzte.

Etxean konposta egin nahi duzu?

Leintz Gatzagan, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran edo Antzuolan bizi zara?

Debagoieneko Mankomunitateak beste 200 konpostagailu berri banatzeko kanpaina bat jarriko du martxan.

Debagoieneko bailaran bizi bazara eta bertan lorategia, lursaila, baratza edo antzekorik baduzu, deitu ezazu Debagoieneko Mankomunitatera eta har ezazu parte.

Eskaerak egiteko epea: urriaren 26tik azaroaren 6ra. 08:30etik 12:00etara.

Informazio gehiago nahi izanez gero: Debagoieneko Mankomunitatea. Nafarroa Etorbidea, 17. 20500 Arrasate. Tel.: 943 79 33 99.




DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA




Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Garapen Iraunkorrerako Departamentua
Departamento de Desarrollo Sostenible





Jatetxe Gida



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Igandeetan itxita



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behe / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 www.etxeaundi.com

Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburueterako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE
Tel.: 943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

Igande gauean itxita.



Txondorra erretegia

Bizkaia etorbidea 9 / ARRASATE
Tel.: 943 79 42 76

Eskaintza

- Sagardotegi menua
- Eguneko menuak
- Menu bereziak eta karta
- Taberna eta Wifi

Berezitasunak

- Menu pertsonalizatuak
- Kazuelatxoak
- Haragi eta arraina txingarretan erreta.



Unzueta sagardotegia

Zabola z/g / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardotegi txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitaratekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **ADI HOLDEN**
Bergararrek diskoa grabatzen dihardute Shot! estudioetan > 46



> **MUSIKA**
Aretxabaletako abesbatza, organo erromantikoaren zikloan > 47

> **MIKEL ESCOBALES**
Madrilera egin du 'ihes' gazte aretxabaletarrak. Esperimentazioa gustuko du; Aretxabaletako frontoian ikus daiteke hark egindako grafiti bat > 50



Maite Lazkano eta Aitzol Ena Bergaran dantzan, irailaren 18an. Moises Azpiazu lehiaketaren 25. ekitaldia irabazi zuten. J. ARANTZABAL



Seguran Euskal Herriko txapela eskuratu zuen bikote bergararrak urriaren 11n.

Urtetako lanaren fruitua: Lazkano eta Ena, Euskal Herriko dantza txapeldunak

URTE BOROBILA

Zazpi txapelketa eta Euskal Herriko txapela eskuratu dituzte

ITZULERA Bizpahiru urteko geldialdiaren ondoren itzuli dira txapelketetara

EDU MENDIBIL > BERGARA

Urte borobila izan du Aitzol Ena eta Maite Lazkano dantza bikote bergararrak. Zazpi txapelketa irabazi dituzte denboraldian, eta, Maitek azpimarratzen duenez, "Euskal Herriko txapelketa irabaztea pastel goxoari ginda jartzea bezala izan da". Estibalizen, Laudion, Oreretan (Gipuzkoako txapelketa), Hondarribian, Donostian, Zarautzen eta Bergaran nagusitu ondoren, Euskal Herriko txapela jantzi zuten bergararrek Seguran, urriaren 11n. Urtetako lanari merezitako saria.

Biak ere txikitari hasi ziren dantzan, Aitzol (35 urte) 7 urterekin, Moises Azpiazu zenaren aginduetara eta Maite (29 urte), 5 urte

besterik ez zuela, Moisesen iloba Dani Azpiazu irakasle zuela. Maiteren hitzetan, "umetan, gurasoekin dantza saio bat ikustera joan eta zera esan nuen: nik hori ikasi nahi dut. Nahiko lotsatia nintzen eta ingurukoek ez zuten uste plazan dantzatzeko gauza izango nintzenik. San Blas auzoan dantzatu nuen lehenbiziko aldiz, etxe-koen harridurarako...". Aitzolek etxean bizi izan du dantza-zaletasuna: "Gure aita eta Moises Azpiazu lagun minak ziren, eta, halako baten, anaiok dantzan hasteko proposatu zion. Laurok dantzan hasi, baina Asier eta biok izan gara zaletasunari eutsi diogunak...".

TXAPELKETETARA ITZULI

Hain zuzen ere, Aitzolen anaia, Asier, Maiteren dantza bikotea izandakoa da. 2001ean Segurako txapelketa irabazi zuten Maitek eta Asierrek eta beste lau aldiz txapeldunorde geratu ziren. Bi anaien artean diferentziarik ote dagoen galdetu diogu Maiteri: "Argi dago ezpal berekoak direla biak. Hala ere, Asier dantzari fisikoagoa, indartsuagoa dela esango nuke eta Aitzol, aldiz, teknikoagoa. Erraza izan da elkar ulertzea".

Bizpahiru urteko geldialdiaren ondoren, aurtun txapelketara itzultzea erabaki zuten biok. Aitzol



Maite Lazkano eta Aitzol Ena, eguazteneko entseguaren aurretik.

E.M.

Bikote harrobi bikaina atzetik

Denboraldiko azken txanpa gogorra gertatu zaie dantzari bergararrei; Maitek zein Aitzolek arazo fisikoak izan dituzte, baina zorionez, euren onena eman ahal izan zuten Seguran. Saio borobila egin eta Nestor Basterretxearen trofeoa Bergarara ekarri zuten. Biek ere fandangoa dantzatzeko nahiago dute, nahiz eta zailagoa dela aitortu. Jantziei dagokienez, ez dute aparteko maniarik. Maitek amak egindako txaketa gorria estreinatutako Seguran eta gona ere berezia zela diosku: bere lehen dantza-bikotekidearen amak egindakoa. Ena auto-eskola gidaria da lanbidez; "Dantzan, niri ere bolantea eramatea gustatzen zait, e?" esaten du Maitek segituan. Pololo hitza entzun ere ez du nahi egin denboraldi baten eta Nestor Basterretxearen trofeoa hurrengo urtean Bergarara itzul daitekeela dio: "Ez gugarik, baizik eta atzetik bikote indartsuak datozelako. Dantzari harrobi bikaina daukagu herrian".

Donostian bizi denez, han eta Bergaran egin dituzte entseguak, astean bitan denboraldiaren hasieran eta hiru eguneko zenbaitetan. Ez zaie erraza gertatu lana, familia eta dantza tartekatzea, eta ingurukoek babesa funtsezkoa izan dela diote biek. Lortutako emaitza bikainek ere eramangarriagoa egin dute esfortzua. Txapelketei dagokienez, Segurakoaz gain, Hondarribikoa eta Bergarakoa nabarmen dituzte: "Hondarribian jendeak sekulako harrera beroa egin zigun eta oso gustura aritu ginen dantzan", dio Maitek. Eta Aitzolek: "Juantero Villarreal Bidasoa eskubaloitako entrenatzaile ohia da gure jarraitzaile sutsuenetakoa eta gurea bezalako fandangoa urtetan ez zuela ikusi esan zigun hartan. Beti eskertzen dira horrelako loreak...". Bergarakoa betiere da berezia biendako: "Moises Azpiazuaren omenezkoa delako; eta gainera, aurtengoa 25. ekitaldia zen. Etxekoan aurrean dantzatzeko polita da beti".

Seguran etxekoak (Aitzolen 17 hilabeteko alabatxoa tartean) gertu izatea gauzarik ederrenetakoa izan zela diote. Euskal Herriko txapela jantzi eta orain merezitako atsedena hartuko dute. Etorriko da hurrengo urtean segitzen ote duten erabakitze ordua.

IKUSKIZUNA > MUSIKA ETA ANTZERKIA

Maria del Mar Bonet eta Leo Bassi gurean, bihar eta etzi

Bonetek Arrasaten egingo du emanaldia bihar 20:00etan eta Bassik Oñatin, domekan, 19:30ean

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Musika eta antzerkia daude auke-eran aste bukaeran gurean. Maria del Mar Bonet abeslariak emanaldia egingo du bihar Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan; eta Leo Bassi *Utopia* antzezlanarekin etorriko da Oñatiko Santa Ana antzokira domekan, 19:30ean.

Bi ikuskizunetarako sarre-
rak salgai daude oraindik. Bone-
ten emanaldirako sarre-
rak

Kutxaren Internet zerbitzuan (www.kutxa.net webgunean), Kutxaren kutxazain automatiko-
etan edo Amaia Udal Antzokian bertan (antzokiko leihatila zabalik dagoenetan) 10 eurotan eros daitezke. Bestalde, Leo Bassi-
ren emanaldirako sarre-
rak 12 eurotan salduko dituzte gaur eta bihar Oñatiko kultura etxean eta domekan emanaldia hasi aurretik leihatilan.

MARIA DEL MAR BONET

Maria del Mar Bonetek (Palma, 1947) katalanez abesten duen kantaria da. *Nova canço* izeneko mugimenduko kide izan zen, eta kantu mota horretan oinarritu-
ko du biharko emanaldia.

Nova canço 50eko hamarkada-
ren erdialdean Katalunian sortu
zen musika mugimendua da. Bes-
teak beste, hizkuntzaren norma-
lizazioaren alde eta frankismoa-

ren kontra jo zuten askok; beste-
ak beste, Raimon, Lluís Llach eta
Joan Manuel Serrat kantari-
ek.

1967. urtean Els Setze Jutges taldea sortu zuen Bonetek, eta Mallorcako folklorea berresku-
ratzen ahalegindu zen. Gainera, Alcover, Rosello-Porcel eta Ver-
ges idazleen olerkiei musika jarri
zuen. Grabatutako lanen artean aipagarrienak dira *Que volen aquesta gent?*, *Anells d'aigua*, *Gavines i dragons*, *Bon viatge faci la cadarnera* eta *Salmaia*.

LEO BASSI, OÑATIN

Leo Bassik (New York, 1952) *Utopia* antzezlanarekin estreinatuko du Oñatiko Santa Ana antzokian domekan. AEBetako presidentea Barack Obamak enpresa priban-
tu

tuei diru publikoa emateko har-
tutako erabakian oinarritu du
Bassik antzezlanarekin. Aurpegi zuria duen pailazo jantzita igoko da oholtza gainera.

ZIRIKATZAILEA ETA POLEMIKOA

Leo Bassi sei belaunalditan zirku-
ikuskizunetan jardundako familia italiar ospetsu bateko kidea da. 7 urterekin egin zuen debuta zirkuan, eta 24rekin hasi zuen bakarkako ibilbidea. Ordu-
tik hona, komiko, animatzaile eta kultura dinamizatzaile dihar-
du. Bassik berak *bufoi* legez defini-
tzen du bere burua. Darabilen estiloa zirikatzailea eta polemiko-
koa da, batez ere eskuindar ide-
ologia eta Eliza Katolikoa kriti-
katzen dituenen.

Leo Bassik *Utopia* antzezlanarekin eskainiko du Oñatin.

GOIENKARIA



errabal jaialdi ibiltaria

URRIA • Jazz, blues eta musika beltza

MIGUEL SALVADOR PROJECT

OSTIRALA 23 • 20:30 EIBAR / Coliseo
> Jazz instrumentala (Bilbo)

BILL LYERLY BLUES BAND


LARUNBATA 24 • 22:00 SORALUZE / Liburutegiko ataria
> Blues, country, rock (EB)

ORGANIKS

IGANDEA 25 • 19:00 MUTRIKU / Zabel kultur etxea
> Jazz, groove, funk (DONOSTIA)

MOKOOMBA

LARUNBATA 31 • 22:30 ELGETA / Espaloia kafe antzokia
> Crossroads (Zimbabwe, Afrika)



Adi Holdenek kideak Shot! estudioko grabazio gelan.

JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > LAN BERRIA

Adi Holdenek datorren astean egingo du masterizazioa

Bergarrek Danbaka lehiaketako Debagoieneko talde onenaren saria jaso zuten

M.B. > ARRASATE

Danbakako III. edizioan Debagoieneko talde onenaren saria eskuratu zuen Adi Holdenek diskoa grabatzen dihardu. Alex, Ruben, Arturo eta *Txarli* asteen egon dira Arrasateko Shot! estudioan instrumentuen doinuak eta ahotsak grabatzen; eta dato-

ren astean egingo dute masterizazio lana. Ondoren, kantuak nola gelditu diren ikusi, eta beharrezkoak diren azken ukituak emango dizkiote diskoari. Oraindik ez dakite ze egunetan kalera-tuko duten CDa.

IZENBURU BARIK

Bergarako taldeak 12 kantu grabatu ditu izenbururik edukiko ez duen diskorako. "Taldearen izenarekin aurkeztuko dugu, izenburu barik", esan digute. Gainera, CDaren azala Jose Mari Galanekin egingo dutela eta ideiak badituztela esan digute.

MUSIKA > ORGANO ERROMANTIKOAREN ZIKLOA

Aretxabaletako abesbatzak itxiko du aurtengo edizioa domekan Loiolan

Bihar, San Pedron, txistua, bertsoak eta organoa aldi berean entzungo dira Aitor Olea, Jose Ignazio Ansorena eta Andoni Egañaren eskutik

MIRIAN BITERI > BERGARA

Azkoitia, Bergara eta Azpeitiko X. nazioarteko organo erromantiko zikloa amaitzeaz dago. Amaitu aurretik, baina, hiru emanaldi ikusteko aukera egongo da aste bukeran.

Joan den urtean Azkoitian eskainitako kontzertuaren arrakasta dela-eta, aurten ere organoa, txistua eta bertsoak berriro uztartzea erabaki dute ziklo horren antolatzaileek.

Hala, bihar, Bergarako San Pedro elizara joaten direnek Andoni Egaña bertsolaria, Jose Ignazio Ansorena txistularia eta Aitor Olea organo jotzailea batera ikusteko aukera izango dute. Hain gutxitan konbinatzen diren



Aretxabaletako abesbatzak 19:00etan abestuko du domekan Loiolako santutegian.

GOIENKARIA

musika tresna horiekin Mokoroa, Vivaldi, Saint Saens eta beste hainbat egileren lanak interpretatuko dituzte, Andoni Egañaren bertsoak tartekatzen diren bitartean. Emanaldia 20:00etan hasiko da.

LOIOLAN, 19:00ETAN

Etzi, domeka, Azpeitiko Loiolako santutegian, aurtengo organo erromantikoaren zikloaren edizioari amaiera emango dion emanaldia entzun ahalko da. Aurten ere Aretxabaletako abesbatzak

itxiko du zikloa, Jose Luis Franzenesena organo jotzaile azpeitiarrarekin batera. Hitzordua 19:00etarako jarrita dago.

Aretxabaletako abesbatzako zuzendari Anjel Barandiaranek azaldu digu abesbatzako partai-

de guztiek abestuko dutela Loiolan; 30 lagun inguruk, hain justu ere. Abesbatzak esperientzia du organo erromantikoaren zikloan abesten, dagoeneko lauzpabost aldiz parte hartu du-eta horretan. Dena den, Barandiaranek onartu digu domekakoa kontzertu "berezia" izango dela eta aurretik "lan asko" dagoela.

EDUARDO MOKOROA

Aurtengo omenaldian, Eduardo Mokoroa tolosarra omenduko dutela esan du; izan ere, aurten 50 urte betetzen dira musikaria hil zela. Besteak beste, Mokoroaren *Misa in Honorem S. Joannis Baptista*, *Tatum Ergo* eta *Ave Verum* lanak abestuko dituzte, Frantzesenak lagunduta.

HIRUGARRENA, AZKOITIAN

Aste bukaeran, organo erromantikoaren zikloaren hirugarren emanaldi bat ere badago. Bihar, Tolosako Andra Mari Musika Kaperak Mokoroaren lanak abestuko ditu Azkoitian, Jose Antonio Arzelus organo jotzailearekin batera. San Maria la Realen izango da emanaldia, 17:00etan.

MUSIKA > ERRABAL 09

Hilaren 31n erritmo afrikarrek Elgetako Espaloia hartuko dute

Seigarren urtez, Errabal kultura elkarteak jaialdi ibiltaria jarriko du martxan gaur Deba bailaran

M.B. > BERGARA

Gaur, egubakoitza, Errabal jaialdi ibiltariaren seigarren edizioa iritsiko da. Deba bailarako herrietara jazz, bluesa eta musika beltza eramaten duen ekimen hori Eibarren hasiko da. Miguel Salvador Project talde bilbotarrak jazz instrumentalaren gaineko kontzertua eskainiko du Coliseo antzokian, 20:30ean. Miguel Salvadorrek (gitarra), Hasier Oleagak (bateria), Jon Pirisek (kontrabaxua) eta Jonathan Hurtadok (pianoa) osatzen dute esandako taldea.

Bihar, berriz, Soraluze hartuko du Errabal jaialdiaren lekua. AEBetatik iritsitako Bill Lyerly Blues Band entzun ahaliko dute, 22:00etan, herriko liburutegira joaten direnek. Ipar Karolinatik datorren musikari beterranoak blues, country eta rock estiloak uztartzen ditu emanaldietan.

Hilaren 25ean, Mutrikan, Organiks talde donostiarrak joko du. Fredi Pelaez (Hammond orga-

noa), Juanma Urriza (bateria), Julen Izarra (saxo tenorea), Jose Gallardo (saxo altua) eta Mikel Romero (gitarra) boskotea 19:00etan igoko da Zabiela kultura etxeko agertokira. Jazz, groove eta funka uztartuko dute saioan donostiarrak.

Errabal 09, egitaraua

URRIAK 23, EIBAR

20:30 Miguel Salvador Project, Coliseo antzokian.

URRIAK 24, SORALUZE

22:00 Bill Lyerly Blues Band, Liburutegian.

URRIAK 25, MUTRIKU

19:00 Organiks, Zabiela kultura etxean.

URRIAK 31, ELGETA

22:30 Mokoomba, Espaloia Kafe Antzokian.

AZKENA, ELGETAN

Jaialdi ibiltariak Elgetan egingo du azken geldiduna. Urriaren 31n, Zimbaweko Mokoomba musika emanaldia egingo du Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean. Perkusioa, kantuak eta erritmo afrikarrak lantzen dituzte. Sarrera aurretik erosten dutenek 8 euro ordaindu beharko dituzte; leihatilan, berriz, 10 euro.

Lehenengo aldia da Mokoombako partaideak Afrikatik irtetzen direna, eta Euskal Herrian kontzertu bakarra eskainiko dute: Elgetakoa, hain justu ere. Handik, Bartzelonara joango dira. Espaloian kontzertua eman aurretik, euren herrialdeko ohituren eta kantuen gaineko hitzaldia egingo dute liburutegian.

DEBA BAILARAN

Esan bezala, seigarren aldia da Errabal kultura elkarteak izen bereko jaialdia antolatzen duena. Horren helburu nagusia da jazz, blues eta musika beltza estiloak Deba bailarako herrietan zehar ezagutaraztea, kontzertuen bidez.



Mokoomba hilaren 31n egongo da Elgetako Espaloian.

GAZTELUPEKO HOTSAK

trinmer
telecomunicacionestdt
televisión digital
terrestre

Bergaran ere badago Lurreko Tebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenatan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxes: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo alokagai. Sukaldea, 3 gela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi eta despentsa, jantzita utziko genduke, garaje itxiarekin. 687 11 07 21.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38

Bergara. Alde zaharrean etxebizitza salgai. Bi logela. Berritua eta jantzita. 605 73 37 39.

Oñati. Kale Zaharrean etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela, trasteleku eta komuna. Kanpokaldera begira. 1000 euro. 606 24 21 21.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Urriburu kalean. Unibertsitate ondoan. Sukaldea, komuna eta hiru gela. Guztia kanpora begira. 652 71 16 20 edo 943 79 81 63

Luz Saint Sauveur. Etxebizitza ematen da errentan eski denboraldirako. 670 49 84 28.

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. 650 euro. Deitu 645 71 98 84 telefonora.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 679 09 33 34 telefono zenbakira.

Arrasate. Logela bateko apartamentua alokatuko genduke Arrasaten. Egoera onean egoite ezinbestekoa izango da. 658 74 82 17.

Bergara. Errentan, konpartituz nahiz bakarrik, pisu baten bila nabill. Ederne naiz eta 33 urte dauzkat. Deitu 653 38 56 12 telefono zenbakira.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan. 270 euro. Deitu 618 00 08 28 telefono zenbakira.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia salgai Usate plaza. 686 02 56 56

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea errentan hartuko nuke. 679 62 69 64

3/ LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Debagoiena. Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63.

ARRASATE

Herriko plazan martxan dagoen taberna txikia errentan ematen da. Sukaldea du. Aukera ona. 605 76 08 29

ESKORIATZA

Aldatz taberna eskualdatzen da. Unibertsitate ondoan. Aukera ona. 635 71 47 70

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona behar dugu urtebeteko haurra goizez zaintzeko (08:00etatik 10:00-11:00ak arte). Deitu 17:00etatik aurrera. 607 57 73 73.

OÑATI

Ile apaindegirako ofiziala behar da.

686 67 34 66

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEA OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERA
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldatetarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEN GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

402. ESKAERA

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

Arrasate. Umeak zaindu edo garbiketarako egongo nituzke. 649 30 13 60.

Bergara eta Arrasate. Gidabaimena duen mutila atariak garbitu, elkarrekin garbitu edo beste edozein lan egiteko gertu. 685 70 76 25.

Bergara. Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. 943 53 29 18.

Debagoiena. 30 urteko gaztea gertu lanerako. Geriatria laguntzaile titulua daukat. Beste edozein lanetan aritzeko ere prest egongo nintzateke. Orduetako arazo barik. 685 70 76 25.

Debagoiena. Antzeko lanetan esperientzia duen emakumez-

ko batek lan egingo luke helduak zein umeak zaintzen. Orduetegi malgua eta lanerako presutasuna. 669 02 91 30.

Debagoiena. Emakumea edozein lan egiteko prest. Socorro Mora Soria. 627 14 63 79.

Debagoiena. Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luis de los Santos. 671 27 78 36.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona edadetuena zein haurren zainketa lan egiteko. Etxean bizi izateko prest. Deitu 663 65 78 43 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lan egiteko. Orduka edo gabez. Deitu 678 23 54 93 telefono zenbakira.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan ere biziko nintzateke. Bost urte daramatzat hemen eta legezko papearak dauzkat. Deitu 646 78 81 40 telefono zenbakira.

Debagoiena. Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lan egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informaek ditut. 671 35 22 60.

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu orduka etxeko lan egiteko. 622 60 84 68.

Debagoiena. Instalazio elektrikorako eta mantenuko lan egiteko gertu egongo nintzateke. Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. 669 49 83 24 edo 680 30 30 52.

Debagoiena. Iturgin laguntzaile lan egiteko nituzke. Magno Alberto. 600 76 43 14.

Debagoiena. Jantzi denda saltzaile bezala lan egingo nuke. Urte askotan denda ibilutako. 627 96 19 22.

Debagoiena. Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. 626 78 22 95.

Debagoiena. Mutil esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gabez ere bai. Baserrieta joateko arazo barik. Deitu 648 06 84 71 telefonora.

Debagoiena. Mutil euskalduna gertu asteburuetan edozein lan egiteko prest: zerbitzari, garbiketari, konponketari eta abar. 686 99 23 94. Merke.

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gabez ere bai. Baserrieta joateko arazo barik. Deitu 660 37 20 47 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Zerbitzari ere bai. 660 56 65 58.

Debagoiena. Neska gertu edozein lanetarako. 679 17 11 35

Nagusiak zaindu. Neska euskalduna gertu goizetan pertsona nagusiak zaintzeko. 635 25 54 44.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Batxilergo teknologikoko eskola partikularrak etxean emango dizkidan norbait behar dut. 669 63 52 25.

Bergara. DBHko 4. mailako eskola partikularrak jasoko nituzke. 18:00etatik aurrera. Pilar. 943 76 16 42

502. EMAN

Bergara. LH, DBH eta batxilergo zientifikoa dituen neska euskalduna naiz. Orain Enpresaritzan ikasketak egiten ari naiz. Idurre. 676 25 22 22 edo 943 76 03 34.

Ingelesko eskolak emango nituzke Bergaran. Maila guztiak, azterketetarako prestakuntza barne. Ingeles komertzialean esperientzia dut. Deitu 618 91 32 89 telefonora.

Ingelesko irakasle euskalduna eskola partikularrak emateko gertu dago. Azterketak gainditzeko eta errefortzurako ariketak egiteko. Bolun. Deitu 616 12 56 29 telefonora.

Komunikazioa. Ingeleseko nahiz euskerazko elkarrizketa saioak eskeintzen ditut (one to one), hizkuntza hauetan hitz egiten trebatzeko, Oñati edo Arrasaten. 656 74 29 49.

Oñati. Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntza, DBHko edo batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika eta abar). Deitu 678 27 27 57 zenbakira.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Citroen Xsara 1.9 D salgai. 1998koa. 166.000km. Oso egoera onean. 1.200 euro. Deitu 629 15 79 29 zenbakira.

Honda Varadero motorra salgai. 1.000 cc. 2006koa. 10.000 km. 615 76 49 14.

Toyota Previa monobolumena salgai. 7 plaza. Oso ondo zainduta. 650 40 25 66.

GARAJE BIKOITZA ENKANTEAN UARKAPEN

Pasa den 2009ko urriaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, Arrasateko Udalak erabaki du Uarkapeko garaje itxi bat enkante bidez inorentzea.

- 27,27 m²ko garaje bikoitza salgai Uarkapen.
- Irteera prezioa: 45.000 euro.
- Eskaintzak aurkezteko azken eguna: azaroaren 2.

Informazio gehiago:

- BAZ (Maisu Arano, 8)
- Tel.: 943 25 20 00
- www.arrasate-mondragon.org (Kontratazioa)

LOKALAK SALGAI UARKAPEN

- Merkatal lokala (156,51 m²): 235.161,00 €
- Merkatal lokala (141,91 m²): 213.224,00 €
- Merkatal lokala (32,67 m²): 61.359,58 €
- Merkatal lokala (37,99 m²): 54.099,20 €
- Biltegia (46,50 m²): 40.872,58 €
- Lokala (68,45 m²): 57.968,74 €

Informazio gehiago:

Construcciones Irgala
Tel.: 943 77 05 89



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmoporosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerrek 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Garbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerrek 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerrek 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

Antzuola:

- Buzintzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

Elgeta:

- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:

- Atxuri 49 m². 117.618 €.



DEBA GARAIA

INMOBILIARIA

Telefono Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trasteleku.
- Zubiaurre, 55 m², 84.142 euro. Negoziazarriak.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokan eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.
- Adosatua eta bifamiliarak. Eraikuntza berriak.



Euskal
Okela

Euskal Herriko
behi-okela



EUSKO LABELDUN TXAHAL BAT ERREKO DUGU

Larunbata, urriaren 24a

11:00etatik aurrera, gure Eroski Arrasateko bezeroek **txahal haragi pintxo bat** eta **baso bat sagardo** dastatzeko aukera izango dute **€1en truke**, Eroski eta Eusko Labelen eskutik.

Ekintza honetan batzen den diru guztia, **Harreman** Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearentzat izango da.

- Gogorarazi gura dizugu Arrasateko hipermerkatuko harategian Eusko Labeldun okela daukagula.

Mikel Escobales > Artista

"Gauzak beste modu batean sentitzen ditugu, eta adierazteko beharra dugu"

Madriletak eskaintzen dituen aukerak aprobeatzeko asmoz hara egin du *ihés* Mikel Escobales gaz-

te aretxabaletarrak. Esperimentazioa gustuko du eta herrian, frontoian, ikus daiteke harkegin-

dako grafiti bat. Hala ere, gustatuko litzaioke bere lanak herri-tarren aurrean azaltzeko era-

kusketa egitea, baina baldintzatu gabeko toki baten, hori "artistarendako gutxiespena" delako.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARETXABALETA
Aretxabaletako gaztea da Mikel Escobales; Arte Ederretako ikasketak egitera Madrilera joan dena, hiriak eskaintzen dizkion aukerak baliatzen dituena eta ateak zabaliak dituena bere izatea besteek ere ezagut dezaten.

Madrilera joateko, Aretxabaleta txiki geratu zaizu?

Aretxabaletak ez zizkidan eskaintzen Madriletak ematen dizkidan irtenbideak. Gainera, etxetik kanpo joateko gogoa neukan. Kanpoan ikastea onuragarria da bizitzarako, gauza asko ikasten da; gurasoekin bizi izanda, dena eskura jartzen digute, ez gara bizitzaren balioez ardurutzen.

Ohitu zara Madrilera bizimodura?

Euskal Herriko hainbat gauzaren falta sumatzen dut; gehienbat, maite dudak jendearena. Hala ere, hirian gogoko dut jendea eta hiriak berak eskaintzen duena. Beti dago zerbait berria egiteko. Hiriburua denez, 24 orduz bizirik dago eta edozein momentutan nahi dena egin daiteke.

Nola erabaki zenuen Arte Ederren ikastea?

Batxilergo modalitatea aukeratu behar nuen, eta irakasleek zera galdetu zidaten: "Kooperatibak makinak konpontzen bukatu nahi duzu?". Horrek nire izatea aurkitzen lagundu zidan eta konturatu nintzen artearekin lotutako zerbait egin behar nuela.

Zein diziplinatan moldatzen zara ondoen?

Material guztiarekin moldatzen naiz, baina asko daukat ikasteko. Teknika ugari dago eta ez naiz inoiz gauzak ikasteaz nekatuko.

Diote arte ederretako ikasleak bereziak, arraroak direla.

Bereziak gara, baina arraro hitzak ez gaitu definitzen. Gauzak beste modu batean sentitzen ditugu eta adierazteko beharra dugu. Zerbait berria sortzean sentitzen dudana ezin da hitzez definitu, sentitu egin behar da.

Artea, zertarako?

Arte oso zabala da eta norbanakoa bere izaerara moldatzen du. Hori da artearen berezitasuna, nork bere modura adieraztea, eta niri izugarritzko sententzioak sortzen dizkit zerbait berria egiteak. Bizi izatea arte bat da. Pribilegiatua naiz, pozik nago nirekin eta hori da inportantea.



GOIENKARIA

Grafiti lehiaketa irabazi zenuen Aretxabaletan. Ongi moldatzen zara grafitian?

Lehiaketan egindako grafitia ez dago bukatuta eta arrazoia ez zen izan ni oldartu izana, emandako baliabideak baizik. Paretaren dimentsioa frontoia dela kontuan izanda eskailera batzuekin pintatzea ezinezkoa da. Kultura zerbitzukoek amaitutzat eman

zuten, baina nire izateak paretaren hutsa ikusten du, beheko aldea bakarrik pintatu ahal izan nuelako. Prest nago lana amaitzeko, baina baliabideak behar ditut. Aukerak badaude grafitiak egiteko, baina poteak gero eta garestiagoak dira eta isunak gero eta gogorragoak. Hala ere, beti daude kolorea eskatzen duten paretak.

Artetik bizi daiteke?

Bai. Jendeak honetatik bizi izatea oso zaila dela pentsatzen duen arren, arteak aukera asko ematen ditu. Jende horri esango nioke artean, argazkilaritzan, pinturan, eskulturan, diseinuan oinarrietan, maisulanetan eta sormenarekin harremana duen edozein lanetan ateak irekita daudela.

Zer egiten duzu aisialdian?

Denetarik, bizirik sentitzea gustatzen zait; lagunekin egotea eta daukadana ematea, partekatzea. Kontzertuak eta gaueko giroa ere gustatzen zaizkit. Ez zait gustatzen toki finko batean egotea, bidaiatzea gustuko dut eta ahal dudanean *ihés* egiten dut. Udan Italian egon nintzen eta neguan Berlinera joan nahi nuke; arazoa ez da gogoa, dirua baizik. Arte Ederren bukatzen ditudanean furgoneta batean Ameriketara joatea gustatuko litzaidake. Hori da nire ametsa eta betetzea espero dut.

Orain zer duzu esku artean?

Fakultateko lan asko daukat; hala ere, denbora dudanean koadroak eta eskulturak egitea eta argazkiak ateratzea gustatzen zait. Orain, pertsonen barruan dagoen hutsa egurrezko eskultura serie batzuetan adierazten ari naiz, eta egurrekin bukatutakoan beste material batzuekin landuko dut ideia bera. Horretaz aparte, edozein teknikarekin margotzea gustatzen zait; hots, naturala izatea, hori baita sormenaren funtsa. Artelan batek berezkoa izan behar du, hor baitago adierazkortasuna.



GOIENKARIA

PERSONALA

Herria: Aretxabaleta. **Adina:** 18 urte. **Ikasketak:** Arte Ederrak. **Zaletasunak:** Adieraztea, gauzak aztertzea, maite nauen jendearekin egotea, bidaiatzea eta sentitzea. **Madrilgo txoko bat?** Lavapies. **Aretxabaletako toki bat?** Gellao azpiko erreka. **Bidaia bat,**

nora? Amerika osoa bisitatuko nuke gustura. **Liburu bat?** *La insoponible levedad del ser*. **Film bat?** *Seven*. **Musika talde bat?** Led Zeppelin. **Artista bat?** Soutine pintorea. **Zure bizitzako leloa?** Bizi, maitatu eta bizi izaten utzi.

Zabala, Erostarbe eta zozketa 'Magazinea'-n

Oxel Erostarbe Elgetako alkatea izango da egueneko gonbidatua

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Pello Zabala frantziskotarra, Oxel Erostarbe Elgetako alkatea eta birziklatzearekin lotutako zozketa dira, besteak beste, datoren asteko *Goiena magazinea* programan jorratuko dituzten gaietako batzuk. Pello Zabala astelehenean joango da GOITB-

ko platora, *El tiempo* izenburua-rekin argitaratu duen bere azken liburuaz berba egitera.

Eguaztenean, 100 euro arteko dirusariak banatuko ditu ikus-entzuleen artean Amaia Txintxurreta oñatiarrak. Sari hori lortzeko azken aukera izango da, gainera. Bestalde, Elgetako alkate Oxel Erostarbe etorriko da eguenean *Alkatearekin zuzenean* atalera. Ikus-entzuleen galderak ere erantzungo ditu.

GOITB, 'Goiena magazinea'

> Aste barruan, 19:45



Oxel Erostarbe Elgetako alkatea eguenean egongo da zuzenean GOITBn. GOIENKARIA

telebegi

Edorta Arana
'edorta.arana@ehu.es'

Etsipena EITBn

Txarrena ez da "konfiantza ezaren" izenean hainbat editore aldatu izana EITBn. Lehen-goak ere, diskrezionalitate maila beraz, baten batek jarriak ziren albistegien edukiak erabakitzeke. Eta oraingoez bezalatsu, zein notizia sartu eta zein baztertu, eta gai bakoitzari nolako tratamendua emango zitzaion markatzen zuten. Txarrena da, gobernu-akordioaren osteko eguraldiaren mapa aldaketa edota aurkezle poxpolinak jartzearen ostean, etsipena zabaltzea, bai bertako langileen zein ikus-entzuleen artean ere. Hedabide publikoak gobernura heltzen d(ir)en alderdiaren esanetara daudela eta egin eta desegin pentsatzea oso kaltegarria da. EITBn beti hala izan dela esaten duenari erantzungo nioke baietz, baina hainbatek amesten zutela eta lanean ari zirela erre-dakzio kontseiluak antolatzearen alde, irizpide profesionalak erabil daitezten eta botereekin independentzia egunero jorratu beharra zegoela. Gaur, horiek, putz batean ari dira.

Errezetak astean bi egunetan

O.E. > HERRIA
Lapikondoa garbituz izeneko sukaldaritza irratsaioa estreinatuko dute Arrasate Irratiko *Igo autobusera* programan datorren astean. Egiten diren jakien soberakinekin prestatutako errezetak emango dituzte martitzen eta eguenean. San Markos mankomunitateak argitaratu du izenburu bera duen liburua eta harekin elkarlanean egingo dute *Lapikondoa garbituz* irratsaio berria.

Arrasate Irratia, 'Lapikondoa garbituz'

> Martitzen eta eguenean, 10:40tik 11:00etara.



GOIENKARIA

Bilboko saioko bertsoak 'Puntuz puntu' programan

Euskal Herriko bertsolari txapelketaren barruan Bilbon egindako saioan botatuko bertsoak emango dituzte eguenean *Puntuz puntu* programan. Txapelketaren saio bat baino gehiago emitituko dituzte GOITBn abendua bitartean. Saio horiek gainerako tokiko telebistekin batera ekoiztu ditu GOITBk eta saio bakoitzarekin ordu erdiko bi programa aterako ditu. Egunekoa Bilbon egindako emanaldiaren bigarrena izango da.

GOITB, 'Puntuz puntu' > Eguena, 22:15

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Inaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; egueneko oharrak...
Astearen errepaso (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Uda Giroan
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

astea GOITBn

Egubakoitza, 23	Zapatua, 24	Domeka, 25	Astelehena, 26	Martitzena, 27	Eguaztena, 28	Eguena, 29
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	10:30 Barrebusa.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.	11:30 Kantari.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 On Ein.	14:15 Udazken loreak.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	14:00 Elkartasun bideak.	12:00 Erloklip	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Elkartasun bideak.	14:30 Puntuz Puntu.	12:30 Ikusmira.	15:15 Sakonduz.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Ur eta lur.	15:00 GipuzkoaKultura.	13:00 Erreportajea.	15:45 Ikusmira.	15:50 Ikusten.	15:50 Sakonduz.	15:45 Kalekantoai.
16:15 Ikusten.	15:30 Barrebusa.	13:45 Solaskide.	16:15 28 Klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 Ikusmira.
16:45 Berriak.	16:30 Marrazki bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Wazemak.	15:45 Kantari.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.	18:30 Solaskide.	18:15 Barrebusa.	17:45 Kalekantoai.	17:35 Wazemank.	17:35 Harmailatik.	18:00 Sakonduz.
18:45 Berriak.	19:00 Ikusmira.	19:15 Erreportajea.	18:15 Ilunpean.	18:15 Gipuzkoakultura.	18:15 Ur eta lur.	18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:30 Ur eta lur.	19:45 Solaskide.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.	20:00 Erreportajea.	20:15 Wazemank.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Kantari.	20:30 Golb tb.	21:15 Ur eta lur.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Kantari.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Ikusten.	21:45 Puntuz Puntu.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Erreportajea.	21:30 Ilunpean.	22:45 GipuzkoaKultura.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Puntuz Puntu.
22:45 Ilunpean.	22:15 Solaskide.	23:15 Ilunpean.	22:15 Harmailatik.	22:15 Ilunpean.	22:15 Ilunpean.	22:45 Erreportajea.
23:45 GipuzkoaKultura.	23:30 Wazemank.	00:00 Itsasora begira.	23:00 Gipuzkoakultura.	23:00 Wazemank.	23:00 Kalekantoai.	23:20 Itsasoari begira
00:45 Emisio amaiera.	00:30 28 klip.	00:30 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.	23:45 Goiena Magazinea.
	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.

herritarrak galdezka

KIROLDEGIRAKO FAMILIA
TXARTELA

Oñatiar batek deitu digu esanez kiroldegiko familia txartela egin nahi duela eta zenbateko kostua izango lukeen; bai Zubikoarako txartelak eta baita mankomunatuak ere. Bestalde, honako galdera ere egin digu: "Familia txartela egiterakoan agiriren bat aurkeztu behar dut familia garela egiaztatzeke?"

Oñatiko Zubikoa kiroldegira jo dugu erantzun eske eta Kirol teknikariak eman dizkigu azalpenak:

Oñatiko kiroldegirako familia txartelak 182,20 euro balio du urte osorako baldin bada. Uztailetik aurrerako txartela eginez gero, %60 ordaindu beharko litzateke; eta urritik aurrera, berriz, %35. Txartel mankomunatu egiteko 12,60 euro gehiago ordaindu behar dira.

Bazkide direnek igerilekurako eta gimnasia sarrera doan izango dute. Bestalde, ikastaroren baten parte hartu nahi izanez gero, bazkide ez direnek baino prezio merkeagoan eman ahal izango dute izena.

Familia direla egiaztatzeke agiri bakarria aurkeztu behar dela esan digute kiroldegian: familia liburua, hain zuzen ere.

ARRIKRUTZ KOBEN ORDUTEGIA
BISITAK EGITEKO

Antzuolako bizilagun batek deitu digu galdetzeko ea Arrikruzteko kobak noiz bisita daitezkeen. Aste bukaeran lagun batzuk datozkie bisitan eta koben ordutegia jakin nahi du.

Arrikruzteko koben harrera-etxera jo dugu informazio eske, eta esan digute urri bukaera arte 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara zabaltzen dutela. Azken bisita koba itxi baino ordubete lehenago egingo dute. Dena den, azarotik aurrera



Etxahun Lekuek parte hartuko du Bergarako finalerdian.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ordutegia murriztu egingo dute. Hain zuzen, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara zabalduko dute. Neguko ordutegia otsailera arte mantenduko dute.

Bestalde, Arrikruzteko arduradunek gogorarazi digute kobak bisitatzeke ezinbestekoa dela aldeaz aurretik 943 08 20 00 telefonora deitzea edo

arrikruz@oinati.org helbidera idaztea. Erretiratuek eta 5-10 urte arteko umeek sei euro eta helduek zortzi euro ordaindu behar dute. 0-4 urte artekoen sarrera doakoa da.

NON EROS DAITEZKE BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO BERGARAKO FINALERDIETARAKO SARRERAK?

Aretxabaletako bertsozale batek jakin nahi du azaroaren 7an Bergaran jokatuko den finalerdietarako sarrerak non eros daitezkeen.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerdietako sarrerak Internet bidez bakarrik eros daitezke. Hain zuzen ere, www.bertsosarrerak.eu atarian. Sarrera arrunta 12 eurotan saltzen dute, bazkideena 9 eurotan eta 16 urte artekoena lau eurotan. Datozen egunetan jarriko dituzte salgai Bergarako finalerdietarako txartelak. Bestalde, BECen jokatuko duten finalerako sarrerak salgai daude dagoeneko Debagoieneko hainbat tokitan.

Galdera egiteko:

Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin.

• Telefonoz: 943 25 05 05

• Faxez: 943 25 05 12

• Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.

• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

bono fotoa

**Nola du izena argazkian ezker aldean ageri den mendiak?**

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Aretxabaletako Enrique Caballé.
Zorionak!

Erantzun zuzena:
Mugarriaundi edo Sekillaga.



Garmendia Ardoek emandako

Ardo botila packa*

zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago krintza botila bat.

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 24

Eguneko lehen orduetan ostarate zabalak egongo dira. Arratsalderako zerua estali egingo da. Tenperaturak igo egingo dira.



Domeka, 25

Temperaturak jaitsi egingo dira berririo. Tarteka ostarateak nagusi izango diren arren, euria egin dezake toki askotan.

EUSKAL HERRIAN

Zapatuko lehen orduetan ostarateak izango dira nagusi, baina arratsalderako lainoak nagusituko dira. Domekan temperaturak jaitsi eta euria egin dezake toki askotan.



TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

MINIMOA	-1°C	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14		°C	°C	l/m ²
Eguaztena, 14	17	6	0	
Eguena, 15	16	-1	0	
Egubakoitza, 16	15	-1	0	
Zapatua, 17	16	2	0	
Domeka, 18	16	2	0	
Astelehena, 19	20	8	0	
Martitzena, 20	20	9	9,8	

ASTEKO
EURIA
(l/m²)

9,8 L

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 24	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 18 65
Domeka, 25	Español	Araba Etorbidea, 14	943 79 18 65
Astelehena, 26	Ruiz	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09
Martitzena, 27	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Eguaztena, 28	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Eguena, 29	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Egubakoitza, 30	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26

BERGARA

Zapatua, 24	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 25	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 26	Urriticochea	Oxirondo plaza, 4	943 76 11 74
Martitzena, 27	Zabala	Ibarrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 28	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 29	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 30	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15

OÑATI

Zapatua, 24	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 25	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 26	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 27	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 28	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 29	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 30	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58

ARETXABALETA

Zapatua, 24	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Domeka, 25	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Astelehena, 26	Fraille	Herriko plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 27	Fraille	Herriko plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 28	Fraille	Herriko plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 29	Fraille	Herriko plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 30	Fraille	Herriko plaza, 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.



Bergarako **Pedro Igartua** eta Doneztebeko **Aurora Almandoz** orain dela 50 urte, urriaren 23an, Auroraren urtebetetze egunean, ezkondu ziren Donezteben. Urrezko ezteietan, zorionak, etxe-koen eta bereziki biloba Natalia, Ariane eta Xabierren partetik.



Bergarako **Luis Mari Elortza** eta **Maria Angeles Laspiur** ezkondu zirela 50 urte pasa dira. Urriaren 24an ospatuko dituzte euren urrezko ezteiak. Familiakoen eta bereziki biloben eta seme-alaben partetik zorionak eta muxu handi bana.




Rafael Ibarguen eta **Flora Etxebarria** aramaioarrak ezkondu zirela 50 urte beteko dira urriaren 24an. Urrezko ezteien ospakizuna zapatuan egingo dute familia bazkari batekin Marixekan. Ondo pasatu eguna, eta zorionak, bikote!

hildakoak


- **Julian Uribe-Etxebarria** Eskoriatzan, urriaren 15ean. 96 urte.
- **Pedro Elduaen Arizpeleta**. Arrasaten, urriaren 15ean. 82 urte.
- **Jose Ramon Uribetxeberria Zugasti**. Arrasaten, urriaren 16an. 77 urte.
- **Juan Jose Diez Ruiz**. Eskoriatzan, urriaren 17an. 68 urte.
- **Carmen Kortabarria Okarantza**. Aretxabaletan, urriaren 18an. 85 urte.
- **Juan Isazelaia Erostarbe**. Arrasaten, urriaren 20an. 83 urte.
- **Enrique Guridi Egaña**. Oñatin, urriaren 20an. 78 urte.
- **Alicia Martinez Sainz**. Bergaran, urriaren 21ean. 74 urte.
- **Feliciano Seco Garcia**. Bergaran, urriaren 21ean. 71 urte.
- **Pilar Luna Morales**. Arrasaten, urriaren 22an. 93 urte.
- **Aintzane Gallastegi Azkoaga**. Arrasate, urriaren 22an. 54 urte.



Ainhoa Umerez oñatiarra eta **Urko Egaña** azpeitiarra, urriaren 24an Santa Lutziako ermitan ezkonduko dira. Gero, Etxe-Aundi jatetxean egingo dute bazkaria. Egun zoragarria izan dezazuela opa dizuete koadrilakoe eta familiakoe. Ondo pasa bidaian!



Leire Viguri eta **Asier Ovejero** urriaren 24an ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Gero, Gure Ametsa jatetxean ospatuko dute familia eta lagunekin. Bidaian Vietnam, Kanbodia eta Balira joango dira. Koadrilakoen partetik, zorionak, eta ondo ibili ezkon-bidaian!



Mari Lali Prieto bergararra eta **Jose Luis Salazar** madrildarra zapatuan ezkonduko dira Mariaren Lagundiko elizan. Gero, Baster-Alde jatetxean egingo dute bazkaria. Zorionak, Bianca, Paco, Lali, Norberto eta Rafaren partetik. Ondo pasa Kuban.



Oñatiko **Joxemari Beitia** eta **Marrei Telleria** orain dela 25 urte ezkondu ziren, urriaren 20an, Arantzazun. Zilarrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak eta patxo bana, lagunen partetik. Laster ospatuko dugu txabolan.

ESKER ONA

Enrique Guridi Egaña

Gasteizen hil zen 2009ko urriaren 20an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko familiakoen izenean.



Oñatin, 2009ko urriaren 25an.

OROIGARRIA

Ramon Heriz Aranburu

Txomin Heriz lankidearen aita

2009ko urriaren 21ean hil zen, 89 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.



Leintz bailaran, 2009ko urriaren 25an.

ESKELA

Aintzane Gallastegi Azkoaga

2009ko urriaren 22an hil zen, 54 urte zituela.

Joan zinen gu hemen utzita baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.



Zure lagunak.

Rosarito, Isabel, Karmele, Igone, Angeli, Miren, Amaia C, Txaro, Amaia A, Maita, Arantza, Dorleta, Isabel A, Arantza Z eta Conchi.

ESKER ONA

Jose Ramon Ugarte Irazabal

Bergaran hil zen 2009ko irailaren 27an, 65 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko urriaren 23an.

URTEURRENA

Pilar Cañamaque Ruiz

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 25ean, 12:50ean, Arrasateko Santa Teresa elizan egingo da.



Bertaratuko zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Mari Carmen Zengotitabengoa Mendigutxia

Hirugarren urteurreneko meza eguaztenean, urriaren 28an, 19:00etan, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Jose Ramon Uribetxebarria Zugasti

Aretxabaletan hil zen 2009ko urriaren 16an, 77 urte zituela.

Resu Aranguren Beitia

Aretxabaletan hil zen 2009ko ekainaren 12an, 74 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2009ko urriaren 25an.

URTEURRENA

Crispin Ibabe Otxoa

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urriaren 24an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Gurekin egon zara, gurekin zaude eta gurekin betirako egongo zara.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Juan Antonio Lizarralde Jauregi apaiza

Lehen urteurreneko meza domekan, urriaren 25ean, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Urriak 23-30

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Erakusketa



ARETXABALETA

> 'Madarikatuak eta apartekoak' pertsonaien erakusketa Arkupe aretoan

Erakusketa bitxia jarri dute Aretxabaletan. Alberto Saavedra eskultorearen neska-mutiko beldurgarriak (irudian) eta, era berean, ezaugarri fisikoengatik ferietan ikusgai egoten ziren pertsonen nola-baiteko omenaldia. Urriaren 31ra arte.

Musika



BERGARA

> Organoa, txistua eta bertsoak tartekatzeko dituen emanaldia bihar Bergaran

Organo erromantiko zikloaren barruan, Aitor Olea organo joleak, Jose Ignazio Ansoarena txistulariak (irudian) eta Andoni Egaña bertsolariak Mokoroa, Vivaldi eta beste egile askoren piezak interpretatuko dituzte. Zapatuan, San Pedron, 20:00etan.

Antzerkia



OÑATI

> Leo Bassiren 'Utopia' ikuskizuna domekan Santa Ana antzokian

Leo Bassi ezagunak *Utopia* antzezlanaren ekarriko du domekan Oñatira. Politikaren ustelkeria salatzen du bertan, egungo gizartearen ekonomia eta politika abiapuntu dituen bakarrizketan. Santa Ana aretoan, 19:30ean. 12 euro.

Izena emateko epea urriaren bukaerara arte izango da zabalik, Monterron jauregian, astebarruan, 16:00etatik 20:00etara.

BERGARA

> Oinarrizko jostuntza

Azaroaren 2tik 13ra, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara.

Argibide gehiago 943 76 93 94 telefonoan (Miren) edo info@bizikasi.com helbidean.

ARETXABALETA

> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik

Martitzenero, 18:30etik 20:00etara, Aretxabaletako kuarter zaharrean. Abendura arte. Plaza mugatuak.

Izenematea 653 70 50 68 telefono zenbakian edo jaikielkartera@yahoo.es helbidean.

BERGARA/ARRASATE

> Mendekotasuna duten adinekoen zaintza ikastaroa

Azaroak 3, 5, 10 eta 12, 15:30etik 18:30era Bergaran; eta Arrasaten azaroak 16, 18, 23 eta 25, 15:30etik 18:30era.

Argibide gehiago 943 76 93 94 telefonoan (Miren) edo info@bizikasi.com helbidean.

BERGARA

> Oinarrizko jostuntza ikastaroa Bizikasiren eskutik

Azaroaren 2tik 13ra, astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara.

Argibide gehiago: 943 76 93 94 telefonoan (Miren) edo info@bizikasi.com.

Musika

OÑATI

> Oñatiko I. trikiti jaialdia zapatuan Zubikoan

Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta. Oñati Trikiti Eskola; Miren eta Agurtzane; Maixa, Ines eta Izer; Iker, Allur eta Narbaiza; Epelde eta Iturbide; eta Laja eta Landakanda.

Bihar, zapatua, Zubikoa kiroldegian, 17:00etan. 10 euro.

ARRASATE

> Rock and roll emanaldia gaur 3 aretoan

Alex *El hierro* & Iñigo *Crines* eta Flaming Gaupasin Brothersekin.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean. 5 euro.

ESKORIATZA

> Puro Chile taldea zapatuan Inkernun

Vulpes, Rock Dam eta Anticuerpos taldeetan ibilitako jendeak osatzen du Puro Chile.

Bihar, zapatua, Inkernu tabernan, 22:30ean.

ARRASATE

> The Discantus Vocal Ensemble domekan Arrasaten

1996an Budapesten sortutako taldea. Europako hainbat hiritan emanaldiak egin dituzte. Peter Meszaros da taldeko abeslaria.

Etzi, domeka, Arrasateko parrokan, 19:00etan.

Antzerkia

BERGARA

> 'Ondo pasa' pailazo ikuskizuna Osintxun

Poxpolo, Mokolo eta konpainiarekin.

Bihar, zapatua, Osintxuko ludotekan, 17:30ean.

Erakusketak

OÑATI

> Gorka Salmeronen 'Erretratoak' erakusketa

Formatu handiko 25 argazki ikusgai jarri ditu argazkilarik legazpiarrak.

Azaroaren 6ra arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

BERGARA

> Joxan Iza margolariaren erakusketa, gaurtik

Gaur, egubakoitza, zabalduko dute erakusketa, 19:00etan.

Aroztegi aretoan, azaroaren 8ra arte. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

BERGARA

> Martin Garmendiaren margo-lanak Nahikarin

Dozena bat koadro ikusgai jarri ditu Martin Garmendiak. Nahikari tabernan.

Ikastaroak

OÑATI

> Elikagaien erabiltzaileak

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Maria del Mar Bonet zapatuan Arrasaten

Maria del Mar Bonet abeslari ezagunak emanaldia egingo du zapatuan Arrasaten. *Terra secreta* izenburuko ikuskizuna ekarriko du, besteak beste Joan Bibiloni, Jordi Guardans, Ovidi Montllor edo Joan Manuel Serrati eskainitako abestiekin. Bere ibilbidean poeta katalanei berebiziko arreta eskaini die Maria del Mar Bonetek eta Balear uharte- eta Mediterraneo kantutradizionalak ere haren inspirazio iturri izan dira.

Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. 10 euro.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

ERAKUSKETA IRAUNKORRA: 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

PLANETARIUM BERRIA

Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta: 12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.).

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

Kartoizko suziaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa

Eboluzioa: Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu

ANIMAZIO, IKUSKIZUN ETA ERAKUSTALDIAK...

Elektrizitate ikuskizuna: Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia ahaztezina

Fakirren ohea: Milaka iltzez osatutako ohe baten gainean etzan nahi al duzu?

1, 2, 3 ... Matemagia!: Matematika-rekin ere jolas egin daiteke!

Zinema: Haurrei eskulan baten bidez, zinemaren printzipioa azalduko diegu.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

BERGARA / ARRASATE

> **Arrisku handiko elikagaien manipulazioa**

Azaroaren 3an eta 4an, 16:00etatik 19:00etara, Bergarako Miguel Altuna institutuan; azaroaren 9an eta 11n Arrasaten, ordu berean. Doaneko ikastaroa.

Argibide gehiago 943 76 93 94 telefonoan edo info@bizikasi.com helbidean.

ARRASATE

> **Hastapen mailako jostintza eta sendabelarren ikastaroa**

Nork bere baserritar jantzia egiten ikasiko du eta, bidez batez, patrioiak egin, patrioiak moztu eta josten ikasiko du, gure kulturaren murgilduz. Urriaren 26tik azaroaren 25era; sendabelarrena azaroaren 25etik aurrera. Ekin Emakumeek elkarkidetzat bultzatzeko antolatuta.

Izenematea 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 zenbakietan.

BERGARA

> **Yoga ikastaroa Angiozar auzoan**

Azaroaren 2an, 9an, 16an, 23an eta 30ean, 18:30etik 19:30era.

Argibide gehiago: 943 76 93 94 (Miren).

ARRASATE

> **Dementziak dituzten adinekoen zaintza ikastaroa**

Abenduaren 14tik 18ra, 15:30etik 18:30era.

Argibide gehiago 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

Lehiaketak

BERGARA

> **Film laburren lehiaketa**

Debagoienean bizi den edozeinek har dezake parte. 400 euro irabazlearentzat, 300 euro bigarren sarirako eta 150 euro bergarar onenari.

Lanak jasotzeko epea azaroaren 2ra arte zabalik. Argibideak: 943 77 91 58.

DEBAGOIENA

> **Txatxilipurdiren gazteendako argazki lehiaketa**

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Zaldibarko gazteleku eta gazte txokoen artean. 12-17 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute.

Argazkiak urriaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira. 943 79 54 46.

ANTZUOLA

> **XV. Argazki lehiaketa**

Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake. Lanak jasotzeko epea urriaren 30era arte dago zabalik.

Argibideak udaletxean: 943 76 62 46.

DEBA

> **Tene Mujika beka**

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabalteko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute.

Proiektuak abenduaren 1era arte jasoko dituzte: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba. Argibideak 943 19 28 40 telefonoan.



Katyn ***

Zuzendaria: Andrzej Wajda.
Aktoreak: Andrzej Chyra, Maja Ostaszewska. Polonia, 2009. 118 min.

Andrzej Wajda zuzendari poloniar ospetsuaren artean dago. Urte ugari darama zineman: hainbat zinemalditan saritu dute haren lana eta 2000. urtean ohorezko Oscarra jaso zuen. Nahiz eta 80 urte pasatxo izan, oraindik film interesgarriak egiten jarraitzen du. Gure pantailetara iritsi den *Katyn* filma 2007an filmatuta dago eta 50 urtean zehar mantendutako gezur bati buruz hitz egiten digu. Istorioa II. mundu gerraren garaian kokatzen da. Polonia alde batetik nazien inbasioa jasaten ari zen eta beste aldetik sartzen ari ziren sobietarrek poloniar ofizial asko atxilotu eta horietako 20.000 baino gehiago hil egin zituzten. Gerran izandako bilakaeraren ondorioz sobietarrek, Polonian ondo kokatuak, gezur ofizial bat inposatu zuten, naziei hilketa horiek leporatuz, hain zuzen ere.

Wajdaren aita Katyn basoan hil zuten eta orain, zuzendariak gertutakoaren kronika zinematografikoa egiten digu. Filma hiru zatitan bana daiteke. Lehenengoan, ofizialen atxiloteta eta senideen urduritasuna ikusiko dugu. Bigarrenean, senideen bitzita ikusiko dugu, desagertutakoak buruzko datuak eta notiziak jaso nahian eta berriak jakin ondoren egia zabalitzen eta hildakoen oroimena mantentzen. Eta hirugarrenean, gertatutakoaren lekuko izango gara. Momentu batzuetan nahasi samarra izan daiteke filma; denboran jauzi ugari daude, lehenengo zatian pertsonaia batzuk denbora luzeagoan agertzen dira eta beste batzuk, aldiz, zeharka. Hori dela eta, bigarren zatian haien senideak agertzen direnean, kostatu egiten da noren senideak diren jakitea; agian, pertsonaia batzuei buruz informazioa eta datu gehiago behar izango genuke, baina poliki-poliki, eta, batez ere azkenean zatiaren ikusitakoaren arabera, dena nahiko ondo lotzen da eta istorioa osatuta geratzen da. Filmaren gaztelaniako bikoizketa oso eskas da.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Los sustitutos
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Cher ami
Domeka: 17:00.

Desobediencia
Eguena: 20:30.

ARETXABAETA

ZARAIA

Gran Torino
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

La pantera rosa 2
Domeka: 17:00.

Lejos de la tierra quemada
Eguena: 19:30.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Malditos bastardos
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Ice Age 3
Zapatua eta domeka: 17:00.

Appaloosa
Eguena: 20:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

7 almas
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

La pantera rosa 2
Zapatua eta domeka: 17:00.

La clase
Eguena: 20:00.

GAZTETXEA

Vals con Bashir
Domeka: 18:00.

GASTEIZ

GURIDI

Agora
17:30, 20:00, 22:30.

Malditos bastardos
17:00, 22:15.

El imaginario del Doctor Parnassus
17:30, 20:00, 22:30.

Si la cosa funciona
18:45, 20:30, 22:30 (zapatua eta domekan).

La cruda realidad
17:00, 18:45, 20:35, 22:30.

G-Force
17:00, 18:45.

Rec 2
18:45.

La huérfana
20:30, 22:45.

Moon
17:00 (zapatua eta domekan).

Paris
19:45.

After
17:30, 20:00, 22:30.

La cruda realidad
17:00, 20:30, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

FLORIDA-GURIDI

La chica que soñaba con una cerilla y con un bidón de gasolina
17:30, 20:00, 22:30.

Vicky el vikingo
17:15 (zapatua eta domekan). Euskaraz.

Yo, también
18:50, 20:45, 22:35 (zapatua eta domekan).

Edén al oeste
18:00, 20:15, 22:30.

New York, I love you
18:00, 20:15, 22:30.

500 días juntos
18:00, 20:15, 22:30.

Katyn
17:15 (zapatua eta domekan).

El secreto de sus ojos
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

YELMO CINEPLEX

Toy story 1
(3-D emanaldiak)
15:30 (zapatua eta domekan), 21:30, 23:30.

G-Force
(3-D emanaldiak)
17:30, 19:30.

La cruda realidad
16:10 (zapatua eta domekan), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

La huérfana
15:35 (zapatua eta domekan), 17:50, 20:10, 22:30, 00:45.

Yo, también
22:20, 00:20 (zapatua).

Infectedos
16:45 (zapatua eta domekan), 18:30, 20:15, 22:00, 23:45.

La chica que soñaba con una cerilla y con un bidón de gasolina
15:30 eta 16:45 (zapatua eta domekan), 18:00, 19:15, 20:30, 21:45, 23:00, 00:15.

G-Force
16:15 (zapatua eta domekan), 18:15.

Agora
15:30 (zapatua eta domekan), 17:40, 20:00, 22:25, 00:50.

Up
15:45 (zapatua eta domekan).

Los sustitutos
15:40 (zapatua eta domekan), 17:30.

Malditos bastardos
17:00 (zapatua eta domekan), 18:30, 20:00, 21:30, 23:00, 00:30.

Rec 2
19:10, 20:40, 22:20, 00:00.

Vicky el vikingo
16:20, 18:20, 20:20 (zapatua).

Si la cosa funciona
20:15, 22:15, 00:15.

Los hombres que no amaban a las mujeres
17:00 (zapatua eta domekan), 19:30, 22:05, 00:40.

Pequeños invasores
16:30 (zapatua eta domekan).

El secreto de sus ojos
17:35, 19:50, 22:10, 00:30.

Urriaren 23tik 28ra. Gaurdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

ÁBACO BOULEVARD

Agora
16:30, 19:15, 22:15.

G-Force
16:00, 18:00, 20:05, 22:15.

Rec 2
16:20, 18:20, 20:10, 22:10.

Vicky el vikingo
16:05, 18:00, 20:00.

Up
16:20, 18:20.

La chica que soñaba con una cerilla y con un bidón de gasolina
16:00, 16:30, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30.

Malditos bastardos
16:00, 19:00, 22:00.

District 9
22:10.

La huérfana
15:45, 18:00, 20:20, 22:40.

500 días juntos
16:10, 18:20, 20:30, 22:30.

La cruda realidad
16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

Los sustitutos
16:20, 18:20.

Infectedos
16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

Egubakoitzetik domekara.



Los sustitutos
Zuzendaria: Jonathan Mostow. AEB, 2009. 90 minutu.
Unibertsitateko ikasle baten hilketa ikertu behar dute FBIko bi agentek. Ordezkoen high-tech fenomenoaren sorreraren parte hartu zuen gizonarekin lotura du biktimak. Teknologia horren bidez, pertsonak beren bertsio hobetuak erosi ditzakete, eta robot horiek bakoitzaren bizitzako funtzioak betetzen dituzte. Nork bere ebtxetik gidatzen ditu robotak.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

Transformers 2

AEB, 2009. Zuzendaria: Michael Bay.
Bi urte pasatu dira Sam Witwickey unibertsoa salbatu zuenetik. Hala ere, Samek beste gazteek dituzten arazo berak ditu. Ezustean, abentura berriak izango ditu. Shia LaBeouf, Megan Fox eta John Turturro aktoreekin.

San Valentin sangriento

AEB, 2009. Zuzendaria: Patrick Lussier.
Jaioterrira itzuli da Tom, San Valentin egun batez gertaturiko sarraskiaren 10. urteurrenean. 1981ean estreinatutako filmaren remake hau hiru dimentsiotan ikusitako aukera dago Euskal Herriko zenbait aretotan. Jensen Ackles eta Jaime King aktoreak dira protagonistak nagusiak.

District 9

Zeelanda Berria-Hego Afrika, 2009. Zuzendaria: Neill Bloomkamp.
Estralurtarren ontzi erraldoi batean Lur planetara helduko dira, Hegoafrikako Johannesburgo hirira, baina errefuxiatu gisa. Estralurtarrak kontzentrazio esparru moduko batean sartuko dituzte eta apart-heid erregimena ezarriko diete.

Gordos

Espania, 2009. Zuzendaria: Daniel Sanchez Arevalo.
Irautearen inguruko komedia koral bat da Daniel Sanchez Arevaloren (*Azuloscurocasinegro*) azken filma. Gizentasun arazoekin obsesionatuta dauden lagun batzuk dira protagonistak. Antonio de la Torre, Raul Arevalo eta Roberto Enriquez aktoreekin.

Ponyo en el acantilado

Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

Hotel Woodstock

AEB, 2009. Zuzendaria: Ang Lee.
1969. urtean da. Elliotek gurasoen hotela bere gain hartuko du, negozioa hondoratzen ari denean. Aldameneko herrian rock jaialdi bat egiteko baimena ez dutela eman entzungo du, eta antolatzaileei deituko die, hotelaren ondoko zelaia eskaintzeko, baina ez du inajinatu ere egiten milioi erdi lagun batuko direla han hiru asteren buruan...

nire aukera



Amaia Bikuña
Oñatiko zinema aretoko langilea

Asteburuan, zine aretoan lanean

Oraingo aste bukaera lan egitea tokatzen zaio Amaia Bikuña oñatiarri. 2006a ezkerro kultura etxeko zinema aretoan lanean dihardu. 31 urte ditu eta Ingurumen ikasketak eta Administrazioa eta Finantzak eginda dauzka. Oñatiko Laixan euskara elkartean diruzain dabil azken bi urteotan.

Aste bukaera libre duenetan, paseatzea, mendi bueltaren bat egitea eta lagunekin ibiltzea gustuko duela dio. Igeri egitera ere sarritan joaten da Zubikoa kiroldegira. Udazkena gustatzen zaio, "batez ere mendiko paisaiek hartzen dituzten kolore ederrengatik". Anjel Lertxundiren *Zoaz infernura, laztana* da irakurri duen azken liburua.

Lanak film ugari ikusteko aukera emango dizu, ala?

Bai, izaten dugu aukera Oñatira etortzen diren filmak ikusteko. Azkenetatik *Australia* gustatu izan zait gehien, nahiz eta uda aurretik bota genuen.

Umeen emanaldietan, neska-mutikoak zintzo egoten dira?

Ez pentsa... Askotan gora eta behera ibili behar izaten dugu, isilik eta geldirik egoteko aginduz.

Aretoa sarritan betetzen da?

Umeen emanaldietan askotan, eta film onak, entzutetsuak datozenean ere bai. 128 eserleku ditu Oñatiko zinema aretoak.

Leihatilan egoteaz gain, bestelako zereginak ere badituzue...

Bai, hiru lagun gabilta lanean eta denetik egin behar izaten dugu: txartelak saldu, proiektzioa eman eta bukatutakoan aretoa garbitu.

Paseatzea gustatzen zaizula diozu. Oñatiko txoko gomen-dagarri bat?

Asko daude... Asentzio inguru, esate baterako. Mendira? Ez naiz askotan joaten, baina ahal dudanean gustatzen zait Aloña aldean edo Urbian bueltatzea egitea.

Edu Mendibil

Autoa bai, kutsadurarik ez

KUTSADURA Auto ekologikoak kutsadurarik sortzen ez duten ibilgailuak dira; kasu honetan, elektrikoak

ABIADURA 55-60 km/h abiadura hartzen dute gehienez; eta 60tik 120 kilometrora bitartean egin

BIDAIA MOTZAK Horrelako ibilgailuak herri barruan edo inguruetan, urrutira joan gabe, ibiltzeko dira egokiak

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Mugikortasun iraunkorra eta halako terminoak modan dauden honetan, horretarako egokia den ibilgailua modan ipintzeko bidea ireki dute Arrasaten: auto ekologikoak salgai ipintzea.

En-Medio etxeko Juanma Gayk azaldu digu eurek saltzen dituzten auto ekologikoen ezauzgarri nagusia zein den: "Kutsatzen ez duen garraiobidea da. Gureak erabat elektrikoak dira, bateria bidezkoak. Kargatzen dira beste etxetresna elektrikoak bezala, sare elektrikorara konektatuta".

Horrelako auto batekin urrutira hel gaitezke? Autonomia modeloaren arabera dela esan digu Juanma Gayk. "Bateriaren, erabileraren edo lurraren arabera 60 kilometrotik 120 kilometro bitartean egin ditzake. Bestalde, hartzen duen gehieneko abiadura 55-60 km/h da. Ibilgailu ekologikoa oraindik ez dago gertatuta auto utilitarioak ordezkatzeko edo bidaia luzeak egiteko. Herri barruan edo gertuan ibiltzeko autoak dira".



ITXURA En-Medioko Ane, batzuek golferako ibilgailuen itxura duela dioten autoetako batekin.

IRATI AGIRREAZALDEGI

BASERRIETARA JOATEKO

Auto ekologikoak funtsean berdinak izan arren, gidabaimenarekin zein gabe gidatu ahal izango da, egindako paperen arabera.

Gutxi gorabehera 7.000 euroko kostua duela esan digu En-Medio Gayk: "Gainera, Gobernuak, ibilgailu elektrikoaren erabilera bultzatzeko Movele planaren bitartez dirulaguntzak ematen dihardu. Gure autoendako, esaterako, 1.500 eurokoa".

Ez dakite eskaera askorik izango den, baina herrian eta inguruetan ibiltzeko, bidaia motzarako, egokiak izan daitezke, Juanma Gayren esanetan: "Ibilgailuok egokiak dira baserrietara joateko. 4x4 erako autoak, oso kutsakorrek direnak eta gasolio asko kontsumitzen dutenak, erabili beharrean, auto ekologikoek funtzio bera bete dezakete kutsatu gabe, gasoliorik gastatu gabe eta olio, filtro eta horrelakoez kezkatu gabe".

Probatu nahi duenak Arrasaten dauka aukera eta gero, norberak erabaki dezala nola ibili nahi duen batetik bestera.

ahobero

"Oraintxe bertan sinatuko nuke Aznar jaunaren adinera hark orain duen moduko gorputzarekin iristearren"

Jorge Fernandez > Telebista aurkezlea

Askok harena bezalako gorputza izan nahi luketenean, hark beste batena eduki nahi. Gorputzaren itxura agian, baina altueran, behintzat, zaila izango du Aznarrenera jaistea.

iturri onetik

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak Arantzazun elkartuko da ekainean

Osasunaren esparrua euskalduntzearen alde lan egiten duen Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak urtero antolatuta ohi ditu jardunaldiak osasunaren inguruko gai zehatz bat landuz. Altsan egin berri dituzte aurtengoak eta datorren urtekoak Debagoienean, Arantzazun izango dira ekainaren 4an eta 5ean. Arantzazun aztertuko duten gaia da osasuna eta emakumeak.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Seiko urrea

Bat. Rubalcaba libre sentitzen da Strasbourgeko epaiaren ondoren nahi duena egin eta esateko, hitzak neurtzen ibili beharrik gabe. Bi. Estatuari ez zaio komeni ezker abertzalearen bilakaera politikoa, nahiago du jarduera armatuak iraun dezan aitzakia. Hiru. Madrilen larritu egiten dira euskaldun milaka batzuk -asko eta kolore ezberdinekoak- ados jartzen direnean. Lau. Harrigarria da EAJren malgutasuna, aldi berean egoteko manifiestoak aurrekontuak adosten diren mahaian, alderdiaren barrena sendo dagoen seinale. Bost. Ez nuke nik txapligurik botako Lizarra berpiztuko den esperantzaz, ez dut horretarako oinarririk ikusten.

Sei. Itxura lazarria du justizia andrearen jantzi zuriak epaile belzdunek behin eta berriro bortxatu ondoren.

ai, ene!



Musikariendako propio diseinatutako etxea

Pianoaren eta biolinaren itxura uzartzen duen etxe hori musikari famatuendako diseinatua da, ezin zitekeen bestela izan.

www.sarda.es



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatza

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51